



2023

Jarduera soziosanitarioaren memoria

EAEko Arreta Soziosanitarioaren Estrategia, 2021-2024

Euskadi Arreta Soziosanitarioko Zuzendaritza
Osasun Saila. Eusko Jaurlaritza
2023ko abendua

AURKIBIDEA

AURKIBIDEA.....	2
LABURDURA ETA AKRONIMOEN AURKIBIDEA	3
1. SARRERA	4
2. GOBERNANTZA SOZIOSANITARIOA	6
1. Gobernantza Soziosanitarioaren onarpen juridikoa eta hedapena.....	6
2. Arreta Soziosanitarioko Zuzendaritzaren antolaketa.....	18
3. Finantzaketa soziosanitarioko esparru partekatua.....	20
3. ELKARRERAGINGARRITASUN SOZIOSANITARIOA	28
4. Egoitza-zentroetatik Historia Klinikorako sarbidea izatea.....	28
5. Historia Soziosanitaria.....	30
6. Aginte-taula: datuetan oinarritutako erabakiak hartzea	34
7. Elkarreragingarritasun soziosanitaria garatzeko dekretua.....	34
4. PREBENTZIO SOZIOSANITARIOA	37
8. Prebentzio Soziosanitarioko esparru koordinatua zehaztea.....	37
9. Arrisku Soziosanitaria zehazteko tresna	39
5. ARRETA SOZIOSANITARIOA.....	43
10. Lehen Mailako Arreta Soziosanitarioaren hedapena.....	43
11. Arreta soziosanitarioaren xede-kolektiboen jarduketak.....	53
12. Arreta goiztiarra eta hezkuntzako eremu soziosanitaria garatzea	55
6. I+G+B SOZIOSANITARIOA.....	60
13. Arreta Soziosanitarioaren Ataria. Ezagutza sortzea eta hedatzea	60
14. I+G+B Soziosanitarioaren arloko politikei eta ekimenei buruzko erreferentzia- nodoa.....	66
15. Berrikuntza- eta ikerketa-proiektuak sustatzea ekosistema soziosanitarioaren oinarrietatik	69
ERANSKINA. PROIEKTU PILOTU SOZIOSANITARIOEN ERREGISTROA.....	71

LABURDURA ETA AKRONIMOEN AURKIBIDEA

AG	Arreta goiztiarra
ASB	Arreta Soziosanitarioko Buletina
EHAA	Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria
EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa
EGK	Ekonomia eta Gizarte Kontseilua
DGOM	Datuen Gutxieneko Multzoa
EABJ	Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoa (Eusko Jaurlaritzza)
EEBBS	Euskadiko Etika Batzordeen Batzorde Soziosanitarioa
ASEK	Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseilua
ASZ	Arreta Soziosanitarioko Zuzendaritza, Osasun Saila (Eusko Jaurlaritzza).
POD	Pazientearen Oinarrizko Datuak
AFA	Arabako Foru Aldundia
BFA	Bizkaiko Foru Aldundia
GFA	Gipuzkoako Foru Aldundia
LMAST	Lehen Mailako Arreta Soziosanitarioko Taldea, Lehen Mailako Arreta Soziosanitarioa ere deitua (LMAS).
EASE	Euskadiko Arreta Soziosanitariorako Estrategia 2021-2024.
AGBL	Arreta Goiztiarreko Balorazio Lantaldea, lurralde historiko bakoitzean Arreta Goiztiarreko Esku-hartze Taldeentzako erreferentziako balorazio-talde gisa jarduten duena.
AGET	Arreta Goiztiarreko Esku-hartze Taldea
EUDEL	Euskadiko Udalen Elkartea
AGBL	Arreta Goiztiarreko Balorazio Lantaldeak
LMAUko burua	Lehen Mailako Arretako Unitateko burua
ASIE	Arreta Soziosanitarioaren Ildo Estrategikoak, 2013-2017
DBLO	Datuak Babesteko Lege Organikoa (<i>3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzekoak</i>).
SEM	Susperraldi eta Erresilientzia Mekanismoa (COVID-19aren inpaktua apaltzeko eta ekonomia eraldatzeko modu ezohikoan mobilizatutako Europar Batasuneko funtsak).
NIC	Nagusi Intelligence Center, Bizkaiko Foru Aldundia
KEB	Kontrol Ekonomikoko Bulegoa, Ekonomia eta Ogasun Saila (Eusko Jaurlaritzza).
OSABIDE Integra	Osabide Global plataforman integratutako tresna informatikoa, ingurune ez-sanitarioetan (egoitza-zentroak, eguneko zentroak, etab.) Osakidetzaren historia klinikoan sartzeko.
ESI	Erakunde Sanitario Integratua (Osakidetza). Pluralean, ESIak.
ASLE	Arreta Soziosanitarioaren Lehentasun Estrategikoak, Euskadi 2017-2020.
HOP	Haurren Osasun Plana
OMS	Osasun Mentaleko sarea. Pluralean, OMSak.
OGZ	Oinarrizko gizarte-zerbitzuak
LH	Lurralde historikoak
LMAU	Lehen Mailako Arretako Unitatea
EUS	Egoitza Unitate Soziosanitarioak

1. SARRERA

[Euskadiko Arreta Soziosanitarioko Estrategiaren \(2021-2024\)](#) urteko memoria ebaluatzeko ariketak, hirugarren edizio honetan, trebezia metodologiko sendoan oinarriturik eta ekintzen segimendu xehatua eta zorrotza eginik, gure gaitasunen barruan beti ere, balio izan du, bikaintasun horri esker, strategiaren bitartez betetakoen informazioa emateko ez ezik, arreta soziosanitarioaren jatorrizko bekatuetako batzuk azaleratzeko ere, gure sistema asistentzialen espazio eta denbora den aldetik.

Ikuspegi historikotik, ekitaldi osoei buruzko memoriak, bai [Euskadiko Arreta Soziosanitarioaren Ildo Estrategikoak, 2013-2016. Ebaluazio txostena \(2017\)](#), bai [Jarduera- eta ebaluazio-memoria. Arreta Soziosanitarioaren Lehentasun Estrategikoak, Euskadi 2017-2020 \(2021\)](#), bai egungo urteko memoriak, talaia modukoak izan dira, baliagarriak izan dira etorkizunari begira arreta soziosanitarioaren eboluzioa ikusteko. Batetik, sendotu eta aurrera egiten duten proiektuak balioztatu dira; bestetik, alderdirik eskergabeenak, ikuspuntu estrategikotik porrot egin duten esperientziak eta, batez ere, urteak joan urteak etorri formulatzeko eta ezartzeko sistematikoki zailak izan diren dimentsioak egiaztatu dira.

Euskadiko koordinazio soziosanitarioaren hamarkada bateko ikuspegi horrek aukera ematen du hautemateko zenbait arlok lortu dutela dimentsio formalean eta kuantitatiboan ezartzea, eta ekosistema soziosanitarioa ahots boteretsuz eta ahaldunduz bete dute, [Euskadiko Arreta Soziosanitarioko Estrategia \(2021-2024\)](#) sustatzeari esker. Hala ere, dimentsio kualitatiboan eta materialean, badaude, askotan, oraindik ere dikotomiko diren arlo, talde, ideia eta bestelakoak.

Hirugarren ebaluazio honetan, [Gobernantza Soziosanitarioaren Dekretuaren](#) aplikazioarekin lotutako lorpenak egiaztatu dira; hain zuzen, dikotomia sozial/sanitario horiek gainditzera eraman behar gaituztenak. Horregatik, zirraraz begiratzen diegu aukerei, baina adanismoak gabe, soilik profesional onen karga genetikoan eta bokazionalean ezarrita dagoen eta gutxika guztion artean eraikitzen ari garen kultura baten garapen moduan.

Urteko memoria, ebaluazio-tresna den aldetik, eboluzionatzen ari den eta hobetu behar den kontzeptu bat ere bada. Zenbait alderdik kontakizun eta ebaluazio bikaina dituzten arren, hala nola gobernantza osatzen dute elementuen instituzionaltasun soziosanitarioarekin lotutakoek, badago erraz identifikatzekoak ez diren elementuen presentzia txiki bat, arrakasta-faktore kritikoak direnak kultura soziosanitarioaren sorreran, oinarritzko interfaze soziosanitarioarekin zuzenean lotutako bi ildotan: arreta eta elkarreragingarritasun soziosanitarioak, gero eta berezinezinagoa izan behar den prozesu baten parte moduan.

Gabezia horien arrazoia ez da euskarri dokumentalaren falta, baizik eta [Euskadiko Arreta Soziosanitarioko Estrategiaren \(2021-2024\)](#) bilakaera bera. Izan ere, horren ibilbidean aurkikuntza eta testuinguru berriak hautematen dira, batzuetan erraz sartu ezin daitezkeenak ebaluazio estrategikoan.

Hala, urteko memoriak, ebaluazio-tresna gisa, baditu Arreta Soziosanitarioko Zuzendaritzari lotutako Talde Soziosanitarioak [Euskadiko Arreta Soziosanitarioko Estrategiaren \(2021-2024\)](#) kudeaketa egiteko elementu guztiak. Aitzitik, modu sistematikoan eta informatuan ez dira ageri, ezjakintasunagatik edo koordinazio-faltagatik, ekosistema soziosanitarioa osatzen duten erakundeetako ekimen guztiak, beren strategiak erabiltzen dituztenez ez baitituzte [Euskadiko Arreta Soziosanitarioko Estrategiarekin \(2021-2024\)](#) bat egiteko beharrezko lanak

betetzen. Hala ere, multzo soziosanitarioko parte izan behar dira eta gobernantza soziosanitarioaren erabaketan parte hartu behar dute.

Labur esanda, memoria honek islatzen duen orainak etorkizun itxaropentsua aurreikusi duen arren, etorkizunerako dauden aukera guztiak ere jasotzen ditu, eta horiek barne bilduta egon beharko lukete esperientzia soziosanitario guztietan eta, memoriaren barruan, aintzat hartu beharko lirateke gobernantza-organoetako eztabaidetarako, adibidez, eskualdeko batzorde soziosanitarioetan. Modu horretan, memoria baliagarria izango da, halaber, askotan arreta soziosanitarioan izaten diren puntuitsuak hautemateko: instituzioen babesaren duten ekimen baliotsuak, baina koordinazio-testuinguru egokirik gabeak. Huts horiekin eratuko da hirugarren memoria honetan falta den zatia. Baina memorian falta diren dokumentuen horien gabezia harago, benetan kezkatzekoa dena izango litzateke gabezia horien ondorioz sinergiak eta efikazia galtzea arreta soziosanitarioaren ezarpenean.

Amaitzeko, soziosanitario hitzaren barruan biltzen dugunaren printzipioekin eta balioekin bat, memoria hau¹ askoren errealitatearen eta lanaren isla gisa aurkezten dugu, betiere jakinik oraindik badaudela entzun eta baloratu ez diren ahotsak.

¹ 2023ko *Jarduera Soziosanitarioaren Memoria* 2024ko urtarrilaren 11n egindako osoko bilkuran aurkeztu zitzaion Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseiluari.

2. GOBERNANTZA SOZIOSANITARIOA

GOBERNANTZA SOZIOSANITARIOA	
Arloaren helburua	<p>Gobernantza soziosanitarioak helburutzat du Osasuneko eta Gizarte Zerbitzuetako sistemen eta koordinazio soziosanitarioaren arteko harreman funtzionala hedatzea, koordinazio soziosanitarioa egituratuz Euskadiko Gobernantza Soziosanitarioaren Ereduan (2019) adostutako koordinazio-figurekin eta kontsulta- eta partaidetza-organoekin.</p> <p>Gobernantza soziosanitarioa hiru proiektu hauen bitartez hedatzen da:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1.1. Gobernantza soziosanitarioaren onarpen juridikoa eta hedapena. 1.2. Arreta Soziosanitarioko Zuzendaritzaren antolaketa. 1.3. Finantzaketa soziosanitarioko esparru partekatua.
1. Gobernantza Soziosanitarioaren onarpen juridikoa eta hedapena	
Proiektuaren egoera	Aribidean
Proiektuaren hasieradata	Proiektu hau 2018an hasi zen, Gobernantza Soziosanitarioko Eredua egiteko Erakundearteko Batzordea eratu zenean, eta 2019an onartu zuen Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseiluak.
Lantaldea	<ul style="list-style-type: none"> • Euskadiko Koordinazio Soziosanitarioko Taldea. • Araubide Juridiko, Ekonomiko eta Zerbitzu Orokorretako Zuzendaritza (Osasun Saila, Eusko Jaurlaritza). • Araubide Juridikoaren eta Zerbitzuen Zuzendaritza (Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila, Eusko Jaurlaritza). • Lurraldeko Koordinazio Soziosanitarioa. • Erreferente soziosanitarioak.
Proiektuaren helburuak	<ol style="list-style-type: none"> 1. Euskadiko Gobernantza Soziosanitarioaren Dekretua onartzea. 2. Gobernantza Soziosanitarioko Eredua Euskadiko gizarte- eta osasun-zerbitzuen eremuetan hedatzea. 3. Euskadiko Gobernantza Soziosanitarioaren Dekretua hedatzeko komunikazio-plan bat egitea eta haren hedapena ebaluatzeko adierazleak definitzea.
Aurrekariak	<p><u>2017-2020 aldirako Euskadiko Arreta Soziosanitarioaren Lehentasun Estrategikoak</u> garatzeko esparruan, Euskadiko Gobernantza Soziosanitarioko Eredua onartu zen ASEKen (2019ko maiatzaren 6a), Erakundearteko Batzordeak Gobernantza Soziosanitarioko Eredua prestatzeko egindako lanen emaitza gisa (2018).</p> <p>Batzorde horrek zehaztu eta adostuta erabaki ziren EAeko gizarte-zerbitzuen eta osasunaren arloen arteko harreman funtzionala antolatu behar duten figurak eta organoak. Koordinazio-elementu horiei formulazio juridikoa ezartzen zaie.</p>

	<p>2019an ekin zioten izapidetzeari aldez aurreko kontsulta publikorako aginduarekin eta 2022an amaitu zen, Gobernantza Soziosanitarioaren Dekretua Jaurlaritzaren Kontseiluak onartzearekin (2022/12/07) eta, ondoren, 243. EHAAn argitaratzearekin (2022/12/22) batera.</p> <p>Euskadin Gobernantza Soziosanitarioaren Dekretuaren hedapena babeste aldera, 2022an komunikazio-estrategia eta gida bat diseinatu zituzten. Bi dokumentu horien helburua zen 2023an jakinaraztea kontsulta- eta partaidetza-organoen, koordinazio-figuren eta baliabide soziosanitarioen izaera, eginkizunak, harremanak, rola, ardurak, etab. Euskadiko gobernantza soziosanitarioaren instituzioei, erakundeei eta eragile nagusiei.</p>
<p>Lan-metodologia</p>	<p>Gobernantza Soziosanitarioaren Dekretua hedatzea eta komunikatzea sustatzeko lan-esparruan, ur-jauzi erako komunikazio-estrategia bat proposatu zen, erakundeen eskumen-autonomia errespetatuz, plano estrategikotik eta beheranzko egitura-planteamendu bati jarraikiz, maila asistentzialera iristeko proposamen bat egin zuena, horretan gertatzen baita Euskadin arreta soziosanitarioa behar duten pertsonetikiko zuzeneko harremana.</p> <p>Hala, hiru xede hartzaile-talde handi zehaztu ziren, Gobernantza Soziosanitarioaren Dekretua antolatzeko eta ezartzeko beharrezko ardura eta inplikazio mailaren arabera:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Lehenik eta behin, lehentasunezko eta funtsezko hartzaile-taldean Euskadiko gobernantza soziosanitarioaren kontsulta- eta partaidetza-organook eta koordinazio-figurak zuzenean osatzen eta funtzionarazten dituzten instituzioak, erakundeak eta profesional sanitarioak daude. • Bigarrenik, gobernantza soziosanitarioa ezartzen zuzenean parte hartzen ez duten osasunaren eta gizarte-zerbitzuen arloetako instituzioak, erakundeak eta/edo profesionalak daude. Hau da, arreta soziosanitario ematen parte hartzen dutenak, ardurarik hartu gabe (ez dira koordinatzaile soziosanitarioko figurak edo kontsulta- eta partaidetza-organoen kide). • Hirugarrenik, instituzioak, erakundeak eta/edo profesionalak daude, bai hezkuntza-sistemakoak eta hirugarren sektorekoak, bai arlo sozialekoak eta/edo osasunaren arlokoak, zuzenean parte hartzen ez dutenak gobernantza soziosanitarioaren hedapenean (ez dute ardurarik hedapenean eta funtzionamenduan) eta parte har dezakete arreta soziosanitarioa ematen, ardurarik hartu gabe, hedabide generalistek eta sektorialek gauzatu beharreko funtzioarekin batera. <p>Ur-jauzi erako komunikazio-ekintzak gauzatzeko metodologia oinarritzen da Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseilua osatzen</p>

	<p>du ten instituzioek berai ek Gobernanta Soziosanitarioaren Dekretuaren berri emateko gauzatu beharreko paper aktiboan, laguntzeko baliatuz komunikazio-gida azalpen-dokumentu moduan.</p>
<p>Egindako ekintzen deskribapena</p>	<p>Gobernanta Soziosanitarioaren Dekretuaren hedapena lortzeko Euskadiko gizarte-zerbitzuen eta osasunaren arloetan eta horren edukien hedapen zabala eskuratzeko, ekintza hauek burutu ziren:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Fluxogramak eratzea kontsulta- eta partaidetza-organo guztien eraketa-faseak eta koordinazio-figuren izendapena azaltzeko (2023/01/27). • Dokumentu bat prestatzea, autonomia- eta lurralde-koordinazioa xede zuena, erabakien sekuentziarekin eta instituzio arduradunekin kontsulta-organoak sortzeko eta koordinazio-figurak izendatzeko. Horretan bildu ziren pausoen laburpena, 150/2022 Dekretuak xedatutako legezko epearen arabera diseinatutako kronograma eta organoen eraketari eta askotariko izendapenei buruzko publikotasunaren gaineko oharra (2023/01/27). • Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseiluaren eraketa eta instituzioetako ordezkarien izendapena (2023/02/06). • ASEKek Gobernanta Soziosanitarioaren Dekretuaren komunikazio-estrategia eta Euskadiko Gobernanta Soziosanitarioaren Dekretua. Komunikazio-Gida aurkeztea eta onartzea (2023/02/06). • Osasunaren arloan erreferente soziosanitarioak izendatzeko eredia prestatzea (2023/02/14). • Arreta Soziosanitarioko zuzendariak osasunaren arloko lurraldeko koordinazio soziosanitarioa izendatzeko eta publikitzeko eredia prestatzea (2023/02/14). • Lurraldeko koordinazio soziosanitariorako Eskualdeko Batzorde Soziosanitarioak eratzeko bilera-deialdiaren eredia prestatzea (2023/02/14). • Gobernanta Soziosanitarioaren Dekretuaren komunikazio-estrategia jakinaraztea Lurraldeko Koordinazio Soziosanitarioaren funtzioak betetzen dituzten pertsoneri (2023/02/14), Euskadiko Gobernanta Soziosanitarioaren Dekretua. Komunikazio-Gida zabaltzea horien artean, eta dokumentazioa argitaratzea Arreta Soziosanitarioaren Atarian (2023/02/14). • ASZren bilera Arabako Lurraldeko Koordinazio Soziosanitarioarekin eta Berrikuntzaren, Kudeaketa Sistemen eta Ebaluazioaren zuzendariarekin (Gizarte Politikak, AFA) gobernanta soziosanitarioa zabaltzeko (2023/02/14). • Arreta Soziosanitarioko zuzendariaren bilera Osakidetza Zuzendaritza Nagusiarekin eta ESletako eta OMSetako gerentziekin, dekretua hedatzeko eta ESletako eta OMSetako erreferente soziosanitarioak izendatzeko (2023/02/24).

- Osasunaren arloko koordinazio soziosanitarioko funtzioak onartuko zituzten pertsonak izendatzea Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako lurralde historikoetan (2023/03/09).
- Gizarte-zerbitzuen arloan, koordinazio soziosanitarioko funtzioak onartuko zituzten pertsonak izendatzea lurralde historikoetan, Araban (2023/04/13), Bizkaian (2023/02/21) eta Gipuzkoan (2023/02/28).
- Arreta Soziosanitarioko Zuzendaritzak mezu elektronikoa bidaltzea ESletako eta OMSetako gerentziei, erakundeetako erreferente soziosanitarioak berresteko eta/edo izendatzeko proposamenarekin (2023/03/01-02).
- Dokumentu bat prestatzea osasunaren eta gizarte-zerbitzuetako arloetako erreferente soziosanitarioak izendatzeko, aldeztetik identifikatuta foru-ente, udal edo mankomunitate bakoitzean funtzio horiek beteko dituzten profesionalak, ASZri 2021ean eta 2022an emandako informazioaren arabera (2023/03/01).
- Dokumentu bat prestatzea Lurraldeko Koordinazio Soziosanitariorako Gobernantza Soziosanitarioaren Dekretuaren gutxi gorabeherako edukien laburpen batekin (2023/03/06).
- Lurraldeko Koordinazio Soziosanitariora bidaltzea Gobernantza Soziosanitarioaren Dekretua ezagutarazten laguntzeko materiala (2023/03/07).
- Arreta Soziosanitarioko zuzendariaren bilera arloko diputatuekin (gizarte-zerbitzuetakoak), lurralde-eremuan izendapenak egiteko Lurraldeko Batzorde Soziosanitarioak eratze aldera (2023/03/09).
- EUDELi galdetzea Euskadiko 251 udalei gutun bat bidaltzeko proposamenari buruz, udalen esparruan erreferente soziosanitarioak berresteko edo izendatzeko eskaerarekin eta ASZri (Osasun Saila) jakinaraztea (2023/03/09).
- Gutuna bidaltzea Euskadiko 251 udalei, udalen esparruan erreferente soziosanitarioak berresteko edo izendatzeko (2023/03/09-10).
- Arreta Soziosanitarioko zuzendariak bilera egitea arloko diputatuekin (gizarte-zerbitzuetakoak), Lurraldeko Batzorde Soziosanitarioak eratzea aktibatuz (2023/03/10).
- Gipuzkoako Osasuneko lurralde-koordinatzaile soziosanitarioaren bilera Gipuzkoako lurralde historikoko ESletako asistentzia-zuzendaritzekin, Gobernantzaren Dekretua hedatzeko (2023/03/14).
- ASZren bilera Lurraldeko Koordinazio Soziosanitarioarekin, Eskualdeko Batzorde Soziosanitarioak hedatzeko eta Lurraldeko Batzorde Soziosanitario bakoitzaren osaer-simulazioa behin-behinean aurkezteko (2023/03/14).
- Toki-erakundeek (udalak eta mankomunitateak) erreferente soziosanitarioak berrestea edo izendatzea (2023/04/13).
- Lurralde-eremuko erreferente soziosanitarioak izendatzea: AFA (2023/04/13), BFA (2023/04/26) eta GFA (2023/02/28).

	<ul style="list-style-type: none"> • Barne-araudiaren proposamena egitea Eskualdeko Batzorde Soziosanitarioetarako (2023/03/20). • Eskualdeko Batzorde Soziosanitarioak erregulatzeko barneko funtzionamendu-erregelamenduaren proposamena bidaltzea Lurraldeko Koordinazio Soziosanitarioari (2023/03/20). • Osasun-sistemako kideak izendatzea Eskualdeko Batzorde Soziosanitarioak eratzeko (2023/03/28). • Erreferente soziosanitarioak izendatzea ESletan eta OMSetan (Osakidetza) (2023/03/29). • EUDELEko 3 ordezkari izendatzea (lurralde historikoa bakoitzetik bana) Lurraldeko Batzorde Soziosanitario bakoitzerako: Bizkaia (2023/04/04), Araba (2023/04/26) eta Gipuzkoa (izendatzeke). • Bizkaiko Lurraldeko Batzorde Soziosanitarioarako presidentea eta BFaren 3 ordezkariak izendatzea (2023/04/04). • Gizarte-zerbitzuetako sistemako kideak izendatzea Eskualdeko Batzorde Soziosanitarioak eratzeko: % 100ko lurralde-estaldura Araban; % 85,8koa, Bizkaian eta % 86,3koa, Gipuzkoan (2023/10/10ean eguneratutako datuak). • ASZren bilera Lurraldeko Koordinazio Soziosanitarioarekin, Eskualdeko Batzorde Soziosanitarioak hedatzeko eta Lurraldeko Batzorde Soziosanitario bakoitzaren osaera aurkezteko (2023/04/18). • Bizkaiko Lurraldeko Kontseilu Soziosanitarioa eratzea (2023/04/18). • Lurraldeko Koordinazio Soziosanitarioarako edukien gidoia prestatzea, Gobernantza Soziosanitarioaren Dekretuaren aurkezpena babesteko eta testuinguruan jartzeko Eskualdeko Batzorde Soziosanitarioak eratzeko bileran (2023/04/19). • Eskualdeko Batzorde Soziosanitarioak eratzeko hurbilketa-eta diagnostiko-dokumentuak prestatzea (III), arreta berezia jarrita osasunaren eta gizarte-zerbitzuen arloetako kideen izendapenari (2023/04/18). • Arabako Lurraldeko Batzorde Soziosanitarioarako presidentea eta AFaren 3 ordezkariak izendatzea (2023/05/09). • Arabako Lurraldeko Kontseilu Soziosanitarioa eratzea (2023/05/10). • Gobernantza Soziosanitarioaren hedapena ebaluatzeko proposamen metodologikoa prestatzea, galdera-sortaren diseinuarekin eta laginaren proposamenarekin (2023/05/16). • ASZk Gobernantza Soziosanitarioaren hedapena ebaluatzeko galdera-sorta bidaltzea ardura mailaren bat duten eta hedapenean parte hartzen duten ekosistema soziosanitarioko 95 eragileri –erantzunak jasotzeko mugaeguna 2023ko ekainaren 15a da– (2023/05/19). • Eskualdeko Batzorde Soziosanitarioak eratzea: Arabako-Errioxa (2023/05/04), Araba (2023/05/08), Bidasoa (2023/05/08), Donostialdea (2023/05/08), Goierri-Urola Garaia (2023/05/10), Tolosaldea (2023/05/22), Barakaldo-Sestao
--	--

	<p>(2023/05/23), Uribe (2023/05/24), Debabarrena (2023/05/29), Debagoiena (2023/05/29), Ezkerraldea-Enkarterri-Gurutzeta (2023/06/13), Bilbo-Basurto (2023/06/14) eta Barrualde-Galdakao (2023/06/27).</p> <ul style="list-style-type: none"> • Bizkaiko Lurraldeko Batzorde Soziosanitarioko kideak izendatzea (2023/06/20). • <u>Gobernantza Soziosanitarioaren Dekretuaren Hedapena Ebaluatzeko Txostena</u> idaztea (2023/08/14). • <u>Gobernantza Soziosanitarioaren Dekretuaren Hedapena Ebaluatzeko Txostena</u> bidaltzea Lurraldeko Koordinazio Soziosanitarioari (2023/08/18). • <u>Gobernantza Soziosanitarioaren Dekretuaren Hedapena Ebaluatzeko Txostena</u> bidaltzea 21 eragile parte-hartzaileei (2023/08/22). • Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseiluaren funtzionamendua erregulatzeko barne-erregelamenduaren proposamena prestatzea (2023/08/24). • Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseiluaren Batzorde Tekniko Iraunkorraren bilera (2023/10/03). • EAEko <u>Erreferente Soziosanitarioen Gidaren</u> eguneraketa argitaratzea (2023/11/08). • Urteko bi ohiko bilerak deitzea eta egitea, Gobernantza Dekretuari jarraikiz, Eskualdeko Batzorde Soziosanitario guztiek (2023). • Gipuzkoako Lurraldeko Batzorde Soziosanitariorako presidentea eta GFAREN 3 ordezkariak izendatzea (2023/12/15). • Gipuzkoako Lurraldeko Kontseilu Soziosanitarioa eratzea (2023/12/20).
<p>Jarduera-adierazleak (Ekintza, data, parte-hartzaileak, etab.)</p>	<p>Proiektuaren jarduera-adierazle nagusia, <u>Euskadiko gobernantza soziosanitarioari buruzko abenduaren 7ko 150/2022 Dekretua</u> 243. EHAAn (2022/12/22) argitaratu ondoren, <i>Gobernantza soziosanitarioari buruzko dekretua hedatzeko estrategiaren (2022)</i> dibulgazioko ekimenak gauzatzea eta <u>Gobernantza Soziosanitarioari buruzko Dekretuaren Komunikazio Gida (2022)</u> argitaratzea dira, Euskadin Gobernantza Soziosanitarioa hedatzeko ekintza guztiekin batera, zehazki, kontsulta- eta partaidetza-eratzea sustatzekoekin eta koordinazio soziosanitarioko koordinazio-figurak izendatzearekin. Zehazki:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseiluaren eraketa eta instituzioetako ordezkarien izendapena (2023/02/06). • Osasunaren arloko koordinazio soziosanitarioko funtzioak onartuko zituzten pertsonak izendatzea Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako lurralde historikoetan (2023/03/09). • Gizarte-zerbitzuen arloan, koordinazio soziosanitarioko funtzioak onartuko zituzten pertsonak izendatzea lurralde historikoetan, Araban (2023/04/13), Bizkaian (2023/02/21) eta Gipuzkoan (2023/02/28).

	<ul style="list-style-type: none"> • Erreferente soziosanitarioak izendatzea ESletan eta OMSetan (2023/03/29). • ASZren eskaera Euskadiko 251 udalei erreferente soziosanitarioak berretsi edo izenda zitzaten (2023/03/09-10). • Toki-erakundeek (udalak eta mankomunitateak) erreferente soziosanitarioak berrestea edo izendatzea (2023/04/13). • Lurralde-eremuko erreferente soziosanitarioak izendatzea: AFA (2023/04/13), BFA (2023/04/26) eta GFA (2023/02/28). • Eskualdeko Batzorde Soziosanitarioak erregulatzeko barneko funtzionamendu-erregelamenduen proposamena (2023/03/20). • Osasun-sistemako kideak izendatzea Eskualdeko Batzorde Soziosanitarioak eratzeko (2023/03/28). • Erreferente soziosanitarioak izendatzea ESletan eta OMSetan (Osakidetza) (2023/03/29). • EUDELeke 3 ordezkari izendatzea (lurralde historikoa bakoitzetik bana) Lurraldeko Batzorde Soziosanitario bakoitzerako: Bizkaia (2023/04/04), Araba (2023/04/26) eta Gipuzkoa (izendatzeke). • Bizkaiko Lurraldeko Batzorde Soziosanitariorako presidentea eta BFAren 3 ordezkariak izendatzea (2023/04/04). • Gizarte-zerbitzuetako sistemako kideak izendatzea Eskualdeko Batzorde Soziosanitarioak eratzeko: % 100ko lurralde-estaldura Araban; % 85,8koa, Bizkaian eta % 86,3koa, Gipuzkoan (2023/10/10ean eguneratutako datuak). • Bizkaiko Lurraldeko Kontseilu Soziosanitarioa eratzea (2023/04/18). • Arabako Lurraldeko Batzorde Soziosanitariorako presidentea eta AFAren 3 ordezkariak izendatzea (2023/05/09). • Arabako Lurraldeko Kontseilu Soziosanitarioa eratzea (2023/05/10). • Bizkaiko Lurraldeko Batzorde Soziosanitarioko kideak izendatzea (2023/06/20). • Eskualdeko Batzorde Soziosanitarioak eratzea: Arabako-Errioxa (2023/05/04), Araba (2023/05/08), Bidasoa (2023/05/08), Donostialdea (2023/05/08), Goierri-Urola Garaia (2023/05/10), Tolosaldea (2023/05/22), Barakaldo-Sestao (2023/05/23), Uribe (2023/05/24), Debabarrena (2023/05/29), Debagoiena (2023/05/29), Ezkerraldea-Enkarterri-Gurutzetza (2023/06/13), Bilbo-Basurto (2023/06/14) eta Barrualde-Galdakao (2023/06/27). • <u>Gobernantza Soziosanitarioaren Dekretuaren Hedapena Ebaluatzeko Txostena</u> (2023/08/14). • <u>Gobernantza Soziosanitarioaren Dekretuaren Hedapena Ebaluatzeko Txostena</u> hedatzea Lurraldeko Koordinazio Soziosanitarioaren eta 21 eragile parte-hartzaileen artean (2023/08/18 eta 22).
--	---

	<ul style="list-style-type: none"> • Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseiluaren funtzionamendua erregulatzeko barne-erregelamenduaren proposamena (2023/08/24). • Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseiluaren Batzorde Tekniko Iraunkorra eratzea (2023/10/03). • EAEko Erreferente Soziosanitarioen Gidaren eguneraketa (2023/11/08). • Urteko bi ohiko bilerak deitzea eta egitea, Gobernantza Dekretuari jarraikiz, Eskualdeko Batzorde Soziosanitario guztiek (2023). • Gipuzkoako Lurraldeko Batzorde Soziosanitariorako presidentea eta GFaren 3 ordezkariek izendatzea (2023/12/15). • Gipuzkoako Lurraldeko Kontseilu Soziosanitarioa eratzea (2023/12/20).
<p>Proiektuaren aliantzak</p>	<p>Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseilua osatzen duten erakundeak eta, eratu ondoren, kontsulta- eta partaidetza-organoak izendatutako koordinatzaile soziosanitarioak (Autonomiako Koordinazio Soziosanitarioa, Lurraldeko Koordinazio Soziosanitarioa eta osasunaren eta gizarte zerbitzuetako arloetako erreferente soziosanitarioak, tokikoak eta lurraldekoak).</p>
<p>Aurrerapen nagusiak eta arazo iraunkorrak</p>	<p>Gobernantza Soziosanitarioaren Dekretua hedatzeko oztopo nagusietako bat gobernantza soziosanitarioa eratzeko eta antolatzeko epe mugatua zen (3 hilabete), egitura funtzional konplexua denez. Legez ezarritako epean (2023ko martxoa), lortu zuten Gobernantza Soziosanitarioaren Dekretuan zehaztutako koordinazio-figuren zati handi bat izendatzea eta ASEKa eratzeko (2023/02/06). 2023ko maiatzean eta ekainean, hiru lurralde historikoetako Eskualdeko Batzorde Soziosanitarioak eta bi Lurraldeko Batzorde Soziosanitario (Arabakoa eta Bizkaikoa) eratu ahal izan zituzten. Adierazi behar da tarte horretan, zehazki, 2023ko maiatzaren 28an, udal- eta estatu-hauteskundeak izan zirela. Horrek erreferente soziosanitarioak izendatzeko prozesua zaildu zuen, eta kontsulta- eta partaidetza-organo batzuk eratzea moteldu zuen (adibidez, Gipuzkoako Lurraldeko Batzorde Soziosanitarioa, 2023/12/20an eratu zena).</p> <p>Halaber, zenbait zailtasun izan ziren tokiko gizarte-arloko profesional teknikoaren erreferente soziosanitarioa izendatzeko (batez ere, figura horietako batzuk profil politikoek betetzen dutenean). Izan ere, horren izaera eta partaidetza zehaztu zen antolakuntza- eta laguntza-koordinaziorako eta, ondorioz, onartzeko komunikazioa, deliberazioa, erabaki teknikoak hartzea, arreta soziosanitarioa koordinatzea kasuko kudeaketa-zereginetan eta Eskualdeko Batzorde Soziosanitarioan parte hartzeko, baldin eta horietako kide izendatu bazituzten.</p>

Beste zailtasun bat izan zen bateratzeko hedapena sistema bakoitzak Gobernantza Soziosanitarioaren markoan egin beharreko komunikazio- eta hedapen-lanarekin, modu horretan eta, ASEKen onartutako estrategiaren arabera, osatu ahal izateko ur-jauzi erako komunikazio-prozesua, estrategien eta erabakiak hartzeko planoan abiarazitakoa, plano asistentzialeko profesionali heltzekoa, bai gizarte-zerbitzuen bai osasunaren arloetan. Horretarako, beste materialen artean, [Gobernantza Soziosanitarioari buruzko Dekretuaren Komunikazio Gida \(2022\)](#) baliatu zen. Dokumentu hori saiatzeko da sinplifikatzen eta gerturatzen modu egituratuan askotariko hartzaillei Gobernantza Soziosanitarioaren organoen eta figuren, horien izaeraren, harremanen eta funtzionamenduaren gaineko informazioa. Hala ere, [Gobernantza Soziosanitarioaren Dekretuaren Hedapena Ebaluatzeko Txostenaren](#) ondorioek komunikazio-estrategiaren erabilgarritasuna iradokitzen zuten arren, egiaztatu zen beharrezkoa zela horri jarraitasuna emateko, Gobernantza Soziosanitarioaren Dekretuaren (2022) hedapena instituzioetan, erakundeetan, eragile soziosanitarioen artean, organoetan eta koordinazio-figura guztien artean sendoagoa izan zedin. Beraz, erronka nagusia zen instituzioen, erakundeen eta koordinazio soziosanitarioko ardurak zituzten profesionalen konpromisoa eta gaitasuna, ezagutarazteko baliabide eta kanal propioen bitartez Gobernantza Soziosanitarioaren Dekretua erregulatzen duen erlazio-markoa eta, zehazki, koordinazio-organo eta -figurak, horien izaera, zereginak, funtzionamendudinamikak, etab., modu horretan laguntzeko koordinazio soziosanitario efektibo eta efizientean.

Kontsulta- eta partaidetza-organo sortu berrien funtzionamenduari eta izendatutako koordinazio-figurei dagokienez (zehazki Eskualdeko Batzorde Soziosanitarioetan kide gisa parte hartzen zuten erreferente soziosanitarioak), komeni da adieraztea denbora beharrezko faktorea dela organo bakoitzak ezartzeko –kideek– funtzionamendu-oinarriak, sortzeko lan-kultura eta -dinamika eta eratzeko arreta soziosanitarioaren koordinazio-lanak gauzatzeko funtsezkoak diren konfiantza- eta komunikazio-loturak, organoen maila gorabehera.

Labur esanda, Gobernantza Soziosanitarioa hedatzeko prozesuan, beste behin ere egiaztatu zen ekosistema soziosanitarioan komunikazioan hobekuntzak sustatu behar zirela (dinamikak, kanalak, mezuak, etab.) harreman kooperatiboak ezarri ahal izateko, Euskadin, Lehen Mailako Arreta Soziosanitarioa efektiboki (operatiba) eta efizienteki antolatzeko beharrezko komunikazioa, elkartasuna eta konfiantza nagusitu zitezten horietan.

Gainera, etorkizuneko beste erronka bat izango da Baliabide Soziosanitarioen Katalogoko edukiak hedatzea, baita arreta

	<p>soziosanitarioaren gaitan ardurak dituzten instituzioek edukiak berrikusteko eta eguneratzeko planteia ditzaketen proposamenak ere –kontuan hartu gabe baliabide horien finantzaketa zein den–.</p>
<p>Proiektuaren balizko onurak (zuzenekoak eta zeharkakoak)</p>	<p>Gobernantza Dekretua argitaratu eta 11 hilabeteko epean kontsulta- eta partaidetza-organo gehienak sortu izana eta koordinazio-figurak izendatu izana eta horiek Dekretuak berak funtsean erregulatu duen lan-markoan funtzionatzen hasi izana gertaera garrantzitsua da Euskadiko arreta soziosanitarioaren antolaketaren sendotze- eta hobekuntza-sektorean. Denbora gehiago igarotzen denean, berriz ebaluatu beharko da horren ibilbidea eta proiektzioa.</p> <p>Dekretu hori osasun-sistemetako eta gizarte-zerbitzuen sistemetako asistentzia-mailen eta maila profesionalen arteko harremanak errazteko eta antolatzeko tresna da, EAEko biztanleriaren premia soziosanitarioen arretan koordinazioa hobetzeko. Hona hemen onuretako batzuk:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Koordinazio soziosanitarioaren eredu ezagutzen laguntzea, eredu horren efikazia eta efizientzia hobetu nahi baitira. Eredu horrek, funtzionamendu egokia izateko, ez du egitura berririk behar gizarte- edo osasun-zerbitzuen sistemetan. • Lan-esparru partekatua sustatzea, antolaketa eta sistema bakoitzaren historia, hizkera eta antolaketa-kulturak gaitzen dituena. Arreta soziosanitario efikazago eta efizienteago baten alde egingo du, non beharrak dituen pertsona profesional, organizazio, erakunde eta sistemen jarduketara-erdigunean kokatzen den. • Kontsulta- eta partaidetza-organoak eratzea, erakundearteko eta diziplina anitzeko organo gisa, autonomia-erkidegoko, foru-lurraldeko, eskualdeko edo udalaz gaitzeko eta tokiko lurralde-eremuetan erabakiak hartzeari dagokionez proposamenak eta aholkuak emateko, jarraipena egiteko eta kontrola izateko. Nabarmentzekoa da, bereziki, Eskualdeko Batzorde Soziosanitarioen osaera eta funtzionamendudinamika berriak parekotasuna lortzeko aukera eman duela. Izan ere, orain arlo sozialeko ordezkarien presentzia (tokikoak eta eskualdekoak) osasunaren arloko ordezkarien presentziarekin parekatu da. Modu horretan konpondu da gizarte zerbitzuen alorreko ordezkarien presentzia txikiagoa (egoera hori ohikoa zen <u>Euskadiko gobernantza soziosanitarioari buruzko abenduaren 7ko 150/2022 Dekretua</u> onartu aurretik). • Koordinatzaile soziosanitario izendatutako profesionalak gizarte-zerbitzuen arloaren eta osasunaren arloaren arteko koordinazio funtzionaleko rolak bere gain hartu izana. • Arreta soziosanitarioko profesionalak ahalduntzea, bereziki, erreferente soziosanitarioak, eta, batez ere, antolakuntzaren eta asistentziaren arloan, rolak eta funtzioak betetzeko garaian, eta, azken batean, rol aktiboa izan dezaten

	<p>herritarren premia soziosanitarioei emandako zuzeneko arretan eta koordinazio-mekanismoen abiarazpenean eta horien funtzionamenduaren hobekuntzan. Erreferente soziosanitarioen kasuan, ahalduntze hori gertatu da, Gobernantzaren funtsezko figura diren aldetik, dagozkien zereginak onartzean Lehen Mailako Arreta Soziosanitariotik beharrei erantzutea sustatzeko, kasuen kudeaketatik eratorritako informazio-, prestakuntza- eta administrazio-beharrak kudeatzuz; arlo bakoitzean eta arloen artean maila asistentzialeko informazio-fluxuak koordinatzeko; dagokien erakundeetan edo entitatean proiektu soziosanitarioak hedatzeko interlokuzioa gauzatzeko; eta, izendapenaren kasuan, dagokion Eskualdeko Batzorde Soziosanitarioaren funtzionamendu egokian laguntzeko.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Euskadiko Etika Batzordeen Batzorde Soziosanitarioa jendartean ezagutzen laguntzea, bai eta arreta soziosanitarioaren arloan eduki etikoko txostenak eta irizpenak egiteaz arduratzen dela jakinaraztea ere. • Baliabide Soziosanitarioen Katalogoa ezagutarazten laguntzea. Herritarren beharrei arreta emateko argitaratu da –finantzaioaz arduratu den erakundea edozein dela–, Dekretuaren eranskin gisa, baliabide soziosanitarioen definizioa eta hornidura EAEko herritarren beharretara egokitzen jarraitzeko oinarriak ezartzen ditu, eta katalogo hori eguneratzeko eta berrikusteko prozesua zehazten du.
<p>Beste alderdi batzuk (baloratzeko):</p> <ul style="list-style-type: none"> - Espero den bilakaera - Ahuleziak, mehatxuak, indarrak eta aukerak identifikatzea - Oharrak 	<p><u>Euskadiko gobernantza soziosanitarioari buruzko abenduaren 7ko 150/2022 Dekretuaren</u> argitalpena (2022/12/22) osatu da zenbait ekintzarekin, Euskadin arreta soziosanitarioen koordinazioa posible egiten duten organoen eta figuren zerrendaren berri ematekoekin. Dena den, Euskadin arreta soziosanitarioaren koordinazioaren funtsezko marko denez, Gobernantza Soziosanitarioaren Dekretuaren edukien hedapena eta difusioa hobetzeko marjina eta, ondorioz, lanerakoa oraindik ere zabala da 2024an.</p> <p>Gobernantza Soziosanitarioaren Dekretuaren hedapena hobetzeko alderdien artean, identifikatu dira erakunde arteko komunikazioan aurrera egiteko eta informazioaren banaketa hobetzeko beharra. Alderdi horiek, beste behin ere, agerian jartzen dute erakundeek aukera dutela, Gobernantza Soziosanitarioaren Dekretuaren funtsezko faktoreak hedatzeko lanarekiko konpromisoa, babesa eta lidergoa (inplikazioa) indartzeko, eta komenigarria dela, gainera.</p> <p>Ildo horretan identifikatzen dira lan-esparru horren hedapen- eta ezagutarazpen-prozesua hobetzeko aukerak, koordinazio-figurek komunikazioan lidergo-rol aktibo izateari lotutakoak, bereziki, meso- eta mikro- mailetan; hots, Lurraldeko Koordinazio Soziosanitarioek eta erreferente soziosanitarioek, batez ere, foru eta udal gizarte zerbitzuetakoak. Hala, lor daiteke</p>

jarraitzea Gobernantza Soziosanitarioaren Dekretua/eredua ezagutarazten, ur-jauzi erako komunikazio-estrategiarekin bat, instituzioetan eta erakundeetan behera eginda mikro/laguntza-mailara arte. Hori da arreta soziosanitarioaren arrakastaren gakoa eta, modu horretan, oinarriko profesional gehienengana helaraz daiteke, Lehen Mailako Arreta Soziosanitarioaren arduradun direnez gero.

Bestalde, Gobernantza Soziosanitarioaren eragile gehienak hedapen-prozesuan parte gutxi edo batera hartzen ez dutenez –gizarte-zerbitzuetakoak eta osasun-sistemakoak–, lan-esparru koordinatuaren garapenean desdoikuntzak eragin ditzake eta oztopoa izan daiteke laguntza-mailan proiektuaren arrakastarako, baita Lehen Mailako Arreta Soziosanitarioa ematen duten eragile guztien antolaketa eta hedapena gauzatzeko ere. Hau da, funtsean, ahaleginen antolaketa ez lortzea (ekintzak, harremanak, zereginak eta baliabideak), Euskadin pertsonak dituzten behar soziosanitarioen inguruan.

Ekosistema soziosanitarioko lan-dinamiken berezko ahulezia gisa identifikatu da partaidetza txikia askotariko gairi buruz egiten diren kontsultetan. Zehazki, duela gutxi (2023ko maiatza-ekaina) Gobernantza Soziosanitarioaren ezarpena ebaluatzeko hautatutako profesionalen artean egin zen inkestan izan zen partaidetza txikiak agerian jartzen du denbora falta zaiela ekimenetan parte hartzeko, eta kasu askotan karga eransten dietela berez gainkargatuta dauden lanaldiei. Horrek bat egiten du ezaugarri horietako kontsulta bati erantzuteko interes eta motibazio faltari. Ebaluazio hori planteatu zen adituen iritziekin eta esperientziarekin laguntzeko Gobernantza Soziosanitarioaren Dekretuaren hedapena hobetzen. Aitzitik, aukera galdu da Euskadiko koordinazio soziosanitarioaren funtzionamenduan 2024an gehitzeko hobekuntzak identifikatzeko.

Azkenik, Gobernantza Soziosanitarioaren indarguneei dagozkenez, nabarmentzen da gizarte-zerbitzuen arloko erreferente soziosanitarioen kopuruan izandako hazkundera, baita Eskualdeko Batzorde Soziosanitarioak herritarrek eskualdeetan dituzten beharren gaineko lan teknikorako espazio moduan eratu izana ere, horietan gizarte-zerbitzuen esparruak osasunaren esparruarekin partekatuta parte hartzen baitu. Batzorde horien eraketan kideek erakutsitako arrera onak eta 2023an horietan sortutako lan-dinamikek aukera ematen dute ezagutarazteko antolaketa- eta laguntza-funtzionamendua, dauden baliabideak eta gabeziak, ekimen pilotuak eta sortutako ezagutza; labor esanda, berri emateko meso- eta mikro-mailetak arduraren arloan pertsonak dituzten behar soziosanitarioei emandako erantzunaren koordinazioaren efikazia eta efizientzia hobetzeko moduari buruz.

2. Arreta Soziosanitarioko Zuzendaritzaren antolaketa	
Proiektuaren egoera	Aribidean
Proiektuaren hasiera-data	2021eko martxoa
Lantaldea	<ul style="list-style-type: none"> Euskadiko Koordinazio Soziosanitarioko Taldea.
Proiektuaren helburuak	<ul style="list-style-type: none"> Arreta soziosanitarioa gobernu-ardatz gisa ikusaraztea. Harreman-esparru egituratu bat ezartzea, Eusko Jaurlaritzako sailen artean arreta soziosanitarioa koordinatzeko.
Aurrekariak	Osasun Sailean Arreta Soziosanitarioko zuzendaritza berri bat sortzea, eta zuzendaritza horretan koordinazio soziosanitarioko eginkizunak sartzea, Osasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko martxoaren 23ko 116/2021 Dekretuan ezarritakoaren arabera.
Lan-metodologia	2023an hainbat lan tekniko egin dira ASZri legegintzaldiko proiektu estrategikoak garatzen laguntzeko.
Egindako ekintzen deskribapena	<ul style="list-style-type: none"> Euskadiko Koordinazio Soziosanitarioko Taldearen bilerak (2023/04/27, 2023/08/31 eta 2023/11/09). Batzorde Tekniko Iraunkorraren bilera (2023/10/03 eta 2023/12/14). ASZren 2024rako aurrekontuen aurreproiektua egitea. 2030eko Euskadiko Osasun Planaren adierazleak definitzen eta aginte-koadroan parte hartzea. Dokumentazioa prestatzea arreta soziosanitariorako finantza-lankidetzarako hitzarmenen gehigarriak formalizatzeko, lankidetzaren zenbatekoak % 5,7 eguneratuz 2023rako (2023/12). Arreta soziosanitariorako Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorren eta foru-aldundien arteko lankidetzak hitzarmenak urtebetez luzatzeko (2024) akordioak formalizatzeko dokumentazioa prestatzea (2023/12).
Jarduera-adierazleak (Ekintza, data, parte-hartzaileak, etab.)	<ul style="list-style-type: none"> Euskadiko Koordinazio Soziosanitarioko Taldearen bileren hiru akta (2023/04/27, 2023/08/31 eta 2023/11/09). Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseiluaren osoko bilkuraren akta, <i>Gobernantza Soziosanitarioaren Dekretuaren komunikazio-estrategia</i> eta Euskadiko Gobernantza Soziosanitarioaren Dekretua. Komunikazio-Gida onartzea (2023/02/06). Batzorde Tekniko Iraunkorraren bileraren akta (2023/10/03 eta 2023/12/14). 2024rako aurrekontuen aurreproiektua egiteko dokumentazioa. Dokumentazioa arreta soziosanitariorako finantza-lankidetzarako hitzarmenen gehigarriak formalizatzeko, lankidetzaren zenbatekoak % 5,7 eguneratuz 2023rako (2023/12).

	<ul style="list-style-type: none"> • Arreta soziosanitarioko Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorren eta foru-aldundien arteko lankidetzaz hitzarmenak urtebetez luzatzeko (2024) akordioak formalizatzeko dokumentazioa.
Proiektuaren aliantzak	Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseilua osatzen duten instituzioak, Batzorde Tekniko Iraunkorra barne.
Aurrerapen nagusiak eta arazo iraunkorrak	<p>Lehen aldiz, XII. legegintzaldian, Koordinazio Soziosanitario Autonomikoa:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Osasun Sailaren egituran txertatu zen (Eusko Jaurlaritzaz). • Aurrekontu berariazkoa du EASE 2021-2024an jasotako konpromisoak garatzeko. • 2022ko urtarrilean, idazkari bat sartu zen ASZn. <p>Koordinazio Soziosanitario Autonomikoaren egitura paritarioa gizarte-zerbitzuen eremuko arduraduna izendatzeko zain dago.</p>
Proiektuaren balizko onurak (zuzenekoak eta zeharkakoak)	<ul style="list-style-type: none"> • Erakundeek arreta soziosanitarioaren alde egitea, Osasun Sailaren gobernu-arlo gisa (Eusko Jaurlaritzaz). • Jaurlaritzak eta ASEKek proiektu estrategikoen hedapena babestea EAEn koordinazio soziosanitarioko eredu eraginkorra sendotzeko.
<p>Beste alderdi batzuk (baloratzeko):</p> <ul style="list-style-type: none"> - Espero den bilakaera - Ahuleziak, mehatxuak, indarrak eta aukerak identifikatzea - Oharrak 	<p>Koordinazio soziosanitarioko egungo talde teknikoak ikuspegia, eskarmentua, fidagarritasuna eta emaitza-orientazioa ematen ditu koordinazio soziosanitarioko proiektu estrategikoen garapenean. Hala ere, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saileko Arreta Soziosanitarioko Zuzendaritzaren egitura propioaren zuzkiduratik erator daitezkeen aldaketan zain dago.</p>

3. Finantzaketa soziosanitarioko esparru partekatua	
Proiektuaren egoera	Burututa (2023ko apirila)
Proiektuaren hasiera-data	2021eko urtarrila
Lantaldea	<ul style="list-style-type: none"> • Euskadiko Koordinazio Soziosanitarioko Taldea. • Aseguramendu eta Kontratazio Sanitarioko Zuzendaritza (Osasun Saila, Eusko Jaurlaritza). • Araubide Juridiko, Ekonomiko eta Zerbitzu Orokorretako Zuzendaritza (Osasun Saila, Eusko Jaurlaritza). • Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako osasuneko lurralde-ordezkaritzak. • AFA • BFA • GFA • EUDEL, Euskadiko Udalen Elkarte. • Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila (Eusko Jaurlaritza).
Proiektuaren helburuak	EAEko arreta soziosanitariorako finantzaketa publikoko esparru partekatu bat definitzea eta operatibizatzea.
Aurrekariak	<p><u>Euskadiko arreta soziosanitarioko lehentasun estrategikoak (2017-2020)</u> txostenaren arabera, beharrezkoa zen «finantzaketa soziosanitarioko esparrua» proiektua garatzea, arretaren egituraketa soziosanitarioari laguntzeko.</p> <p>Hedapenaren zati gisa, eta horretarako eraturako Erakundearteko Batzorde baten barruan, baliabide-tipologia bat zehaztu zen haien finantzaketaren jatorriaren arabera, eta, ondoren, horren osagarri, honako diagnostiko hau egin zen: dauden finantzaketa-akordioak zer neurritan egokitzen zaizkion sektore publikoko kontratazioaren arloan indarrean dagoen lege-esparruari.</p> <p>Kontuan hartuta, batetik, arreta soziosanitarioko baliabideak finantzatzeko formulen heterogeneotasuna, eta bestetik, akordio horiek lege-euskarririk gabe geldituko zirela 2020ko urriaren 2tik aurrera, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren eta foru-aldundi bakoitzaren arteko finantza-lankidetzaren eredu berri bat landu beharra zegoen arreta soziosanitariorako; halere, 2020a amaituta, eredu hori ez zuten baloratu ASEKeko kide diren foru-erakundeak.</p> <p>2022an, hiru foru aldundiek eta Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak finantza-lankidetzaren oinarriak zehaztu zituzten, hitzarmen-eredu baten bidez, zeinak lankidetzaren eduki ekonomikoa ezartzen baitzuen, baita gauzatzea arbitratzen duten baldintzak ere hiru baliabidetarako (mendeko adinekoen eta desgaituen egoitzak, EUSak eta gaixotasun mental larri kronifikatua duten pertsonentzako baliabideak). Hala, moduluen finantzaketan edo baliabideen lanpostuen kostuaren banaketa</p>

	<p>paritarioan oinarritutako konpentsazio bidezko ordainketa bazterteak dakarren paradigma-aldaketa egin zen, eta horrek ekarri zuen Osasun Sailak parte hartzea baliabide soziosanitarioen finantzaketan, zeinen titulartasuna gizarte-zerbitzuen sistemari baitzegokion.</p> <p>2023ko hasieran, Osasun Sailaren eta hiru foru-aldundietako bakoitzaren arteko finantza-lankidetzako hitzarmenak argitaratu ziren, hiru baliabide soziosanitario motetarako, Osasun Sailaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren artekoa izan ezik, ez baitzituen barne hartzen gaixotasun mental larri kronifikatua duten pertsonen zuzendutako baliabideak, indarrean baitzegoen bi erakunde horiek nahasmendu mental larria duten pertsonen arreta soziosanitarioa emateko lankidetzako hitzarmena –2019-2022–, 2023rako (2022/12/29) eta 2024rako luzatu ahal baitzen.</p>
<p>Lan-metodologia</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Dokumentuak prestatzea, berrikustea eta aztertzea, dokumentu bakoitzari dagokion izapidetze juridiko-administratiboarekin osatzea eta Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak eta hiru foru-aldundietako bakoitzak sinatutako finantza-lankidetzarako hiru hitzarmenen eta hitzarmen markoaren argitalpenaz amaitzea. • Dokumentuak prestatzea arreta soziosanitarioarako finantza-lankidetzaren hitzarmenen gehigarriak formalizatzeko Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta hiru foru-aldundietako bakoitzaren artean. Horiekin 2023rako zenbatekoak % 5,7 eguneratu ziren (2023/12). • Arreta soziosanitarioarako Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorren eta hiru foru-aldundietako bakoitzaren arteko lankidetzako hitzarmenak urtebetez luzatzeko (2024) akordioak formalizatzeko dokumentazioa prestatzea.
<p>Egindako ekintzen deskribapena</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Argitaratzea 32/2023 Ebazpena, otsailaren 23koa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariarena, Arabako Foru Aldundiarekin finantza-lankidetzarako hitzarmena argitaratzea xedatzen duena, arreta soziosanitarioa emateko (2023/02/23). • Argitaratzea 33/2023 Ebazpena, otsailaren 27koa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariarena, arreta soziosanitarioa emateko Bizkaiko Foru Aldundiarekin izenpetutako finantza-lankidetzarako hitzarmena argitaratzea xedatzen duena (2023/02/27). • Argitaratzea 34/2023 Ebazpena, otsailaren 27koa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariarena, arreta soziosanitarioa emateko Gipuzkoako Foru Aldundiarekin izenpetutako finantza-lankidetzarako hitzarmena argitaratzea xedatzen duena (2023/02/27).

	<ul style="list-style-type: none"> • Argitaratzea 44/2023 Ebazpena, apirilaren 4koa, Jaurilaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariarena, zeinaren bidez argitara ematen baita Arabako Foru Aldundiarekin, Bizkaiko Foru Aldundiarekin, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta, EAEko udalerrri guztien izenean, EUDELekin esparru-akordioa, EAEn arreta soziosanitarioa emateko finantza-lankidetzarako (2023/04/04). • Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta hiru foru-aldundietako bakoitzak sinatutako hitzarmenetan adostutako finantza-lankidetzaren zenbatekoaren gainean 2023an % 5,7ko handitze lineala aplikatzeko hitzarmena (2023/12/15). • Dokumentuak prestatzea arreta soziosanitarioarako finantza-lankidetzaren hiru hitzarmen bateratuen gehigarriak formalizatzeko Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta hiru foru-aldundietako bakoitzaren artean. Horiekin 2023rako zenbatekoak % 5,7 eguneratu ziren (2023/12). • Dokumentuak prestatzea 2019an Bizkaiko Foru Aldundiak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak nahasmendu mental larria duten pertsonen arreta soziosanitarioa emateko sinatutako lankidetzahitzarmenaren gehigarria formalizatzeko, 2022an luzatzekoa, zeinaren bidez % 5,7 eguneratu baitzen 2023rako lankidetzahorren zenbatekoa (2023/12). • Arreta soziosanitarioarako Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta hiru foru-aldundietako bakoitzaren arteko lankidetzahitzarmenak urtebetez luzatzeko (2024) akordioak formalizatzeko dokumentazioa prestatzea, 2023rako zehaztutako plaza kopuru berarekin (2023/12). • Bizkaiko Foru Aldundiak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak nahasmendu mental larria duten pertsonen arreta soziosanitarioa emateko sinatutako lankidetzahitzarmena luzatzeko erabakia formalizatzeko dokumentuak prestatzea (2024), 2023rako zehaztutako plaza kopuru berarekin (2023/12).
<p>Jarduera-adierazleak (Ekintza, data, parte-hartzaileak, etab.)</p>	<p>Proiektuaren jarduera-adierazle nagusia da EHAAn argitaratu izana Arabako Foru Aldundiarekin, Bizkaiko Foru Aldundiarekin, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta, EAEko udalerrri guztien izenean, EUDELekin esparru-akordioa, EAEn arreta soziosanitarioa emateko finantza-lankidetzarako (2023/04/04) eta Arabako Foru Aldundiarekin, Bizkaiko Foru Aldundiarekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin arreta soziosanitarioa emateko sinatutako hiru finantza-lankidetzahitzarmenak(2023/02/23 eta 27).</p> <p>[Hurrenkera kronologikoan]</p>

	<ul style="list-style-type: none"> • 32/2023 Ebazpena, otsailaren 23koa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariarena, Arabako Foru Aldundiarekin finantza-lankidetzarako hitzarmena argitaratzea xedatzen duena, arreta soziosanitarioa emateko (2023/02/23). • 33/2023 Ebazpena, otsailaren 27koa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariarena, arreta soziosanitarioa emateko Bizkaiko Foru Aldundiarekin izenpetutako finantza-lankidetzarako hitzarmena argitaratzea xedatzen duena (2023/02/27). • 34/2023 Ebazpena, otsailaren 27koa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariarena, arreta soziosanitarioa emateko Gipuzkoako Foru Aldundiarekin izenpetutako finantza-lankidetzarako hitzarmena argitaratzea xedatzen duena (2023/02/27). • 44/2023 Ebazpena, apirilaren 4koa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariarena, zeinaren bidez argitara ematen baita Arabako Foru Aldundiarekin, Bizkaiko Foru Aldundiarekin, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta, EAEko udalerrri guztien izenean, EUDELekin esparru-akordioa, EAEn arreta soziosanitarioa emateko finantza-lankidetzarako (2023/04/04). • Onartzea Gobernu Kontseiluaren erabakia, arreta soziosanitarioa emateko Arabako Foru Aldundiak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak sinatutako hitzarmena aldatzeko gehigarria izenpetzekoa, zeinaren bidez lankidetzaren 2023rako zenbatekoa % 5,7 eguneratu baitzen (2023/12/26). • Onartzea Gobernu Kontseiluaren erabakia, arreta soziosanitarioa emateko Bizkaiko Foru Aldundiak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak sinatutako hitzarmena aldatzeko gehigarria izenpetzekoa, zeinaren bidez lankidetzaren 2023rako zenbatekoa % 5,7 eguneratu baitzen (2023/12/26). • Onartzea Gobernu Kontseiluaren erabakia, arreta soziosanitarioa emateko Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak sinatutako hitzarmena aldatzeko gehigarria izenpetzekoa, zeinaren bidez lankidetzaren 2023rako zenbatekoa % 5,7 eguneratu baitzen (2023/12/26). • Onartzea Gobernu Kontseiluaren erabakia, arreta soziosanitarioa emateko nahasmendu mental larria duten pertsoneri Bizkaiko Foru Aldundiak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak 2019an sinatutako hitzarmena aldatzeko gehigarria izenpetzekoa, zeinaren bidez lankidetzaren 2023rako zenbatekoa % 5,7 eguneratu baitzen (2023/12/26).
--	---

	<ul style="list-style-type: none"> • Onartzea Gobernu Kontseiluaren erabakia, arreta soziosanitarioa emateko Arabako Foru Aldundiak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak sinatutako hitzarmenaren luzapena izenpetzekoa, 2023rako zehaztutako plaza kopuru berarekin (2023/12/26). • Onartzea Gobernu Kontseiluaren erabakia, arreta soziosanitarioa emateko Bizkaiko Foru Aldundiak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak sinatutako hitzarmenaren luzapena izenpetzekoa, 2023rako zehaztutako plaza kopuru berarekin (2023/12/26). • Onartzea Gobernu Kontseiluaren erabakia, arreta soziosanitarioa emateko Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak sinatutako hitzarmenaren luzapena izenpetzekoa, 2023rako zehaztutako plaza kopuru berarekin (2023/12/26). • Onartzea Gobernu Kontseiluaren erabakia, nahasmendu mental larria duten pertsonen arreta soziosanitarioa emateko Bizkaiko Foru Aldundiak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak 2019an sinatutako hitzarmenaren luzapena izenpetzekoa, 2023rako zehaztutako plaza kopuru berarekin (2023/12/26).
<p>Proiektuaren aliantzak</p>	<p>Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseilua osatzen duten erakundeak, eta, bereziki, hiru foru-aldundiak, dagozkien lankidetzaren hitzarmenaren sinatzaile gisa.</p>
<p>Aurrerapen nagusiak eta arazo iraunkorrak</p>	<p>2023. urtean, Euskadin arreta soziosanitarioa zabaltzeko erakundearteko 25 urtetik gorako lankidetzaren eta koordinazioaren emaitza moduan, eta EASEn hartutako konpromisoari jarraikiz, erakundearteko partekatutako eta adostutako markoa antolatu zen arreta ereduaren jarraitasuna sustatzeko baliabide soziosanitarioak finantzatzeko lankidetzaren hitzarmenak sinatuta. Marko horretan planteatu ziren Osasun Sailaren eta baliabide soziosanitarioen titular diren foru-alorreko instituzioen arteko finantza-lankidetzarako baldintzak².</p> <p>2022an onartutako finantza-lankidetzarako ereduaren zehaztu zen hiru hitzarmen sinatuz eta argitaratuz –bi urteko iraunaldia dute, eta beste bi urtez luza daitezke–, Osasun Sailak (Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra) hiru foru-aldundietako bakoitzarekin, baliabide soziosanitarioen titular direnez, bakoitzaren kudeaketa-eredua gorabehera. Hiru hitzarmen horiek jasotzen dute lankidetzaren eduki ekonomikoa eta gauzatzeko baldintzak, hiru baliabide motari dagokienez:</p>

² Tradizioz, Osasun Sailak (Eusko Jaurlaritza) lagundu izan du arreta soziosanitariorako prestazio sanitarioak finantzatzen, hiru modalitate handitan oinarrituta: a) finantzaketa partekatua dagozkion foru- edo udal-erakundearen eta Osasun Sailaren artean, plazaren kostua bitan banatuz normalean; b) Osasun Sailak parte hartzea foru-titulartasuneko baliabideen finantzaketan, modulu bakoitzean ezarritako zenbatekoarekin, eta c) Osasun Sailak baliabide soziosanitarioen finantzaketa bakar eta osoa ematea.

	<ul style="list-style-type: none"> - Mendetasun-egoeran dauden adinekoentzako eta desgaitasunen bat duten pertsonentzako egoitzak. - EUSak. - Gaixotasun mental larri kronifikatua duten pertsonentzako baliabideak. <p>Hitzarmen horiek zehazten dituzte lurralde historiko bakoitzean Osasun Sailak zenbat plazekin eta zer zenbatekorekin laguntzen dien aipatutako hiru baliabide motei.</p> <p>2023an, Osasun Sailaren eta foru aldundietako bakoitzaren arteko finantza-lankidetzako hitzarmenak argitaratu ziren, hiru baliabide soziosanitarioetarako, Osasun Sailaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren artekoa izan ezik, ez baitzituen barne hartzen gaixotasun mental larri kronifikatua duten pertsonen zuzendutako baliabideak, indarrean baitzegoen bi erakunde horiek nahasmendu mental larria duten pertsonen arreta soziosanitarioa emateko lankidetzako hitzarmena (2019-2022), 2023rako (2022/12/29) eta 2024rako luzatu ahal baitzen.</p> <p>Halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak foru-aldundi bakoitzarekin sinatutako erabakien finantza-lankidetzaren zenbatekoak arreta soziosanitarioa emateko, 2023rako eguneratu ziren lau gehigarri formalizatuz, zenbateko horiei % 5,7ko gehikuntza erantsita, hitzarmen bakoitzaren arreta soziosanitarioerako baliabideei ekarpen efektiboagoa eta egokiagoa egiteko beharragatik (2023/12).</p> <p>Azkenik, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak foru-aldundi bakoitzarekin arreta soziosanitarioa emateko sinatutako hitzarmenen luzapenek aukera ematen dute lankidetzari eusteko 2024an hiru baliabide soziosanitario motetan arreta emateko eta indartzeko lankidetzari eusteko, 2023rako zehaztutako plaza kopuru berarekin.</p>
<p>Proiektuaren balizko onurak (zuzenekoak eta zeharkakoak)</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Baliabide soziosanitarioak finantzatzeko esparru adostu bat izatea, bi urteko indarraldia duena (2022 eta 2023), beste bi urtez luza daitekeena (2024 eta 2025). • Adostutako finantza-lankidetzaren ereduak planteatzen duen paradigma-aldaketak (konpentsazioagatik ordainketa bertan behera uztea dakar, moduluen finantzaketan edo baliabideen plazen kostuaren banaketa parekidean oinarrituta) eta, gainera, berekin dakar Osasun Sailak (Eusko Jaurlaritzak) parte hartzea Gizarte Zerbitzuen Sistemaren titulartasunekoak diren baliabide soziosanitarioen finantzaketan (baliabide horietan arreta mantentzeko <i>finkatutako gastu historikoaren</i> zorian oinarrituta kalkulaturako lankidetzak), baliabide soziosanitarioen finantzaketaren jarraitutasuna eta jasangarritasuna sustatze aldera.

	<ul style="list-style-type: none"> • Baliabide soziosanitarioak finantzatzeko formulen estandarizazioan eta normalizazioan aurrera egitea, horiek lurralde historikoka multzokatuta, hiru kategoria handitan oinarrituta: <ul style="list-style-type: none"> - Mendetasun-egoeran dauden adinekoentzako eta desgaitasunen bat duten pertsonentzako egoitzak. - EUSak. - Gaixotasun mental larri kronifikatua duten pertsonentzako baliabideak. • Konbergentzia-planteamendu bat lortzea hiru lurralde historikoetan baliabide soziosanitarioetarako historikoki existitzen diren akordioen <i>corpus</i> heterogeneorako finantzaketa-hitzarmenen formulazioan, eta baliabide mota bakoitzera bideratutako finantza-lankidetzaren osagai ekonomikoa zehazteko aukera. • Hitzarmen berrien edukia indarrean dagoen esparru juridikora egokitzea, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legean, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko 185/2015 Dekretuan eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legean eta Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legean ezarritakora egokituta. • Finantza-lankidetzako hitzarmenen mendeko baliabideen % 5,7ko gehikuntza linealari esker zuzkidura hobetzen da (plaza kopuru handiagoa, onuradun gehiago, etab.), baita hiru baliabide mota horietako arreta soziosanitarioaren kalitatea ere (zuzeneko eta zeharkakoa). • Lurralde arteko ekitatea sustatzeko bidean aurrera egitea, hiru lurralde historikoetan arreta soziosanitarioa emateko baliabideak mantentzeko eta sortzeko finantza-lankidetzarekin.
<p>Beste alderdi batzuk (baloratzeko):</p> <ul style="list-style-type: none"> - Espero den bilakaera - Ahuleziak, mehatxuak, indarrak eta aukerak identifikatzea - Oharrak 	<ul style="list-style-type: none"> • Aukera: Arreta soziosanitarioaren finantzaketa eta prestazioa harmonizatzeko esparru partekatua lortzea EAEn lurralde arteko ekitatearen aldeko apustuan aurrera egiteko beharra indartzen du; izan ere, hitzarmen horiek sinatzeak lurralde historiko bakoitzean baliabide soziosanitarioen hornidura biztanleriarengana pixkanaka hurbiltzea sustatzen du, biztanleriaren premien arabera, eta horien finantza-lankidetzari pixkanaka parekatzea hiru lurralde historikoetan, lurralde arteko ekitatea sustatzeko formula gisa, biztanleriak egun dituen eta sortzen ari diren premia soziosanitarioei erantzuteko baliabideak mantentzeko eta sortzeko finantza-zuzkidura eta -lankidetzari dagokionez. • Aukera: Bizkaiko Lurralde Historikoan, gaixotasun mental larria duten pertsonen bideratutako baliabideen finantza-lankidetzarako hitzarmen bakarrean biltzeak 2025eko urtarrilaren 1etik aurrera (helburu horretarako hitzarmenaren, 2019 eta 2022 bitartekoaren, 2024ko luzapena amaitzean) aukera eman dezake 2025ean bat-egite esparru formal bat



	sortzeko, hiru lurralde historikoetan baliabide soziosanitarioen finantza-lankidetzarako erabakiak hartzeko.
--	--

3. ELKARRERAGINGARRITASUN SOZIOSANITARIOA

ELKARRERAGINGARRITASUN SOZIOSANITARIOA	
Arloaren helburua	<p>Elkarreragingarritasunaren arloak honako hau du helburutzat: informazio-sistemek eta horietaz baliatzen diren prozedurek datuak partekatzeko eta elkarri informazioa eta ezagutza helarazteko duten gaitasuna sustatu eta erraztea, eta arreta koordinatzen laguntzea. Elkarreragingarritasuna sartzen da administrazio elektronikoen garapenean, baita informazioaren gizartearena ere.</p> <p>Elkarreragingarritasun-estrategiaren garapena lau proiektutan oinarritzen da:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Historia soziosanitario elektronikoa: praktikan, elkarreragingarritasun soziosanitarioaz hitz egin behar dugu, informazio-sistemen bilakaera errazten baitu, gizarte- eta osasun-zerbitzuetako sistemetako profesionalen landinamika koordinatuaren euskarri gisa. • Aginte-taula: datuetan oinarrituta erabakiak hartzea. • Historia Klinikorako sarbidea egoitzetan: profesionalak informazio-sisteman nonahi sartu ahal izatea, lanean ari diren lekua edozein dela ere. • Elkarreragingarritasun soziosanitarioa garatzeko esparru juridikoa eta datuen babesekoa. <p>Eremuak lotura estua du Lehen Mailako Arretako eremuarekin.</p>
4. Egoitza-zentroetatik Historia Klinikorako sarbidea izatea	
Proiektuaren egoera	Osatuta eta laguntza- eta mantentze-fasean.
Proiektuaren hasiera-data	2015
Lantaldea	<ul style="list-style-type: none"> • Euskadiko Koordinazio Soziosanitarioko Taldea. • Osakidetzako Zuzendaritza Nagusia, bere zuzendariordetzen bidez: Lehen Mailako Arreta Koordinatzeko Zuzendariordetza eta Informatika Zuzendariordetza.
Proiektuaren helburua(k)	Egoitzetan eta eguneko zentroetan arreta ematen duten profesional sanitarioei Historia klinikorako sarbidea ematea.
Aurrekariak	Hobetzea egoitzetan dauden pertsonen osasun-arreta jasotzeko aukera.
Lan-metodologia	<p>Egoitzetan Osabide Integra hedatzeko, honako urrats hauek egin behar dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Egoitzak komunikazio-azpiegituren arloko zenbait ezaugarri eduki behar ditu. • Egoitzaren eta Osakidetzaren arteko hitzarmena. • Profesionalen konfidentzialtasun-dokumentua.

	<ul style="list-style-type: none"> • Ekipamendu informatikoak konfiguratzea Historia Klinikoaren softwarean sartzeko. • Pazientearen baimen informatua. • Tresna informatikoa erabiltzeko prestakuntza eta laguntza funtzionala.
Egindako ekintzen deskribapena	Gaur egun, proiektua laguntza- eta mantentze-fasean dago. Osabide Integraren ezarpenak asistentzia-lanean eta egoitzen eta Osakidetzaren arteko koordinazioan duen eraginaren diagnostiko bat lantzen ari dira, haren erabilgarritasunak egokitzearen.
Jarduera-adierazleak (Ekintza, data, parte-hartzaileak, etab.)	Proiektuaren gauzatzeko-maila neurtzeko erabiltzen den adierazle nagusia hau da: tresna informatikoa zenbat egoitzatan hedatu den. Gaur egun, ezaugarri jakin horiek dituzten egoitza guztietan hedatu da, eta egoitza horiekin lotutako egoitza eta eguneko zentro berriak eransten ari dira.
Proiektuaren aliantzak	Osakidetzaren eta egoitzen arteko lankidetzaren hitzarmenez gain, Gasteizko Udalaren egoitzen eta Osakidetzaren arteko hitzarmena dago.
Aurrerapen nagusiak eta arazo iraunkorrak	<p>2023an, Osabide Integra egoitzetan ez ezik, Gasteizko Udalaren mendeko lau eguneko zentrotan ere ezarri da. Gainera, aukera dago beste zentro batzutan ere txertatzeko, beharra badago eta Gasteizko Udalak eskatzen badu.</p> <p>Mantentzearekin lotutako arazo bat dago administrazio atalean (eOsabide), hain zuzen, ospitaleratzeen/alten ondoriozko aldi baterako lekualdaketatik dauden pazienteen erroldak mantentzearekin.</p> <p>Bestalde, beste arazo batek irauten du ez delako erabakirik hartu Osabide Integran kodetutako diagnosien erregistroa (CIE) txertatzeko –funtsezkoa da historia kliniko bakarra bermatzeko eta beste informazio-sistema batzuekiko bikoizketak galarazteko–.</p>
Proiektuaren balizko onurak (zuzenekoak eta zeharkakoak)	<p>Pazientearen informazio klinikorako sarbidea hobetzea; izan ere, profesionalen praktika kliniko hobetzen du eta zuzeneko eragina du asistentziaren kalitate eta segurtasunean.</p> <p>Onura horiek agerikoagoak izango dira Osabide Integraren kudeaketa tresnei jarduketa-protokoloak eta ibilbide asistentzialak gehitzen zaizkienean.</p>
<p>Beste alderdi batzuk (baloratzeko):</p> <ul style="list-style-type: none"> - Espero den bilakaera - Ahuleziak, mehatxuak, indarrak eta aukerak identifikatzea 	<p>Proiektuaren arrakastari esker, aurrera egin daiteke tresna informatikoan funtzionalitate berriak sartzen:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1) Web formularioaren funtzioa gehitu da, eta egoitzetan erabiltzeko egokitzeko dago. 2) Anbulantziak eskatzeko kudeatzailea erantsi da.

- Oharrak	3) Aurretiazko Borondateen Dokumenturako sarbidea arazo tekniko eta legalak konpontzeko zain dago. Profesionalaren lana nonahikoa izatea da azken helburua.
5. Historia Soziosanitaria	
Proiektuaren egoera	Hedatze-fasean.
Proiektuaren hasieradata	2021eko apirila
Lantaldea	<ul style="list-style-type: none"> • Euskadiko Koordinazio Soziosanitarioko Taldea. • Osakidetzako Zuzendaritza Nagusia, bere zuzendariordetzen bidez: Lehen Mailako Arreta Koordinatzeko Zuzendariordetza eta Informatika Zuzendariordetza. • Osakidetzako ESlak, zerbitzuen bidez. • Eusko Jaurlaritza, Osasun eta Berdintasun, Justizia eta Gizarte Zerbitzuen sailen bitartez. • Foru-aldundiak, zerbitzu-arloen eta informatika-sailen bidez. • EUDEL - Udalak, oinarriko gizarte-zerbitzuen, mankomunitateen edo kuadrillen bidez.
Proiektuaren helburua(k)	<p>Zerbitzu sozial eta sanitarioetako informazio-sistemen bilakaera sustatzea, bi ikuspegi osagarritan oinarrituta:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Herritarrek, administrazio-prozedurak izapidetzeko, Administrazioarekin bitarteko elektronikoen bidez harremanetan jartzeko duten eskubidea garatzea. • Egungo informazio-sistemak egokitzea, gizarte- eta osasun-zerbitzuen sistemetako profesionalen baterako lan-dinamika koordinatuaren euskarri gisa.
Aurrekariak	<p>Euskadiko arreta soziosanitarioaren ildo estrategikoak 2013-2016 zehaztu zirenetik, eremu eta maila asistentzialetako profesional ugarik parte hartu dute proiektua garatzeko prozesuan, baina garapen horrek intentsitate-maila ezberdinak izan ditu halere, eta ikuspegi-aldaketa batzuk egin behar izan dira, halaber, jatorrizko egitasmoan.</p> <p>Egungo estrategian, Euskadiko Arreta Soziosanitarioko Estrategia (2021-2024), profesionalen esperientziaren gaineko ikaskuntzak lehenetsi dira, eta elkarreragingarritasunaren alde egin da, erakunde bakoitzaren autonomiari, baita informazio-sistemei dagokienez ere, zehatz-mehatz erantzuteko.</p>
Lan-metodologia	<ul style="list-style-type: none"> • I. fasea: Erabilera-kasua identifikatzea³. • II. fasea: Informazio-bilerak. • III. fasea: Datuak trukatzeko programak aztertzea. <ul style="list-style-type: none"> ○ Eredu funtzionala.

³ Software-ingeniaritzaren «erabilera-kasua» terminoa hartu da; hau da, sistema baten eta haren zerbitzuren bat erabiltzen duen norbaiten edo zerbaiten arteko interakzioen sekuentzia. Erabilera-kasua, praktikan, sistema baten portaera zehazteko tresna bat da, eta [Euskadiko Arreta Soziosanitarioaren Estrategiaren \(2021-2024\)](#) ikuspegi pragmatikoaren erreferente metodologiko argi bat. Erabilera-kasuak proiektu pilotu bat gauzatzea hartzen du barnean, eta proiektu pilotu hori ebaluatu beharko da eskalagarritasuna duen jardunbide egoki bat identifikatzeko.

	<ul style="list-style-type: none"> ○ Arkitektura teknologikoa. ○ Edukien estandarizazioa. ● IV. fasea: Pilotajea eta neurketa. <ul style="list-style-type: none"> ○ Erakunde bakoitzeko zuzendaritzari proposamena egitea. ○ Proiektu pilotua zehaztea. ○ Ebaluazio-adierazleak zehaztea. ○ Proiektu pilotua gauzatzea. ○ Etengabeko neurketa. ● V. fasea: Emaitzak ebaluatzea. ● VI. fasea: Eskalabilitatea gauzatzea.
<p>Egindako ekintzen deskribapena</p>	<ul style="list-style-type: none"> ● Zeharka eta etengabe, baldintzak sortzen jarraitu da inplikaturako erakundeen ordezkaritasunean eta konpromisoan, lidergo korporatiboaz gain. ● Euskadiko Arreta Soziosanitarioko Estrategiaren (2021-2024) helburuekin bat etorritik, hiru baldintza hauek betetzen zitezten erabilera-kasuak identifikatu dira: koordinazioa antolatzen duen protokolo edo arau bat egotea, datuak eskuz trukatzeko eta EAE osorako eskalabilitatea izatea. ● 2023 osoan, aurreko hiru erabilera-kasuak erabiltzen jarraitu da, intentsitate maila ezberdinetan: <ul style="list-style-type: none"> ○ Arreta goiztiarra. ○ Telelaguntza-eskaera. ○ Interkontsulta soziosanitarioa (arreta integratua Gernikako KIUn, gizarte-zerbitzuekin). <p>Hiru erabilera kasuetan, eredu funtzional bat dago:</p> <ul style="list-style-type: none"> ○ Arreta goiztiarrean, talde motorrari Bizkaiko AGBLa ez ezik, Gipuzkoako AGBLa gehitu zaio, eta elkarrekin baliozkotu dute eredu funtzionala. Gainera, Hezkuntzako informazio-sistemak aztertzeke saioak egin dituzte. ○ Interkontsulta soziosanitarioaren erabilerari eman zaio lehentasuna koordinazio soziosanitarioan duen eragin globala dela eta: pilotaje-plana landu da eta bideragarritasun-txostena egin dute, datu segurtasunaren eta datuak babestearen arloetan (2023). ○ Erabilera kasuen pilotuak ebaluatzeke azterketa eta diseinua abiarazi da, eta interkontsultaren erabilera kasuari buruzko aurretiazko proposamen bat dago (Gernika). ● Informatika-zerbitzuekin hitz egiteko bideak ezarri dira eta erakunde parte-hartzaile bakoitzaren informazio-sistemak egokitzeko zehaztapen funtzionalak eman dira. Lanean jarraitzen dute informatika-zerbitzuek lehentasuna eman ahal izateko informazio-sistema korporatiboen egokitzapenari, zehaztutako eredu funtzionalaren arabera, eta elkarreragingarritasun puntuak gara daitezkeen. Gizarteren eta Osabideren arteko interkontsulta soziosanitarioa lehentasuntzat jo da, eta baterako lan-plana zehaztu da, 2024ko lehen seihilekorako, Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzaren eta Osakidetzaren artean.

	<ul style="list-style-type: none"> • Mendekotasuna/desgaitasuna balioztatzeneko osasun-txostenaren tresnaren ezarpena eta sendotzea hobetu dira, softwarearen erabilgarritasunari dagokionez, eta prozesu horretan, Osabide AP bertsioetik Osabide Global APra migratu dute. Osabideren mantentze korporatiboko prozesu horrek funtzionaltasun-galerak eragin ditu aldi batez (adituen txostenetarako sarbidea) Mendekotasuna Balioztatzeneko Txostenean (MBT), eta horrek zailtasunak eragin ditu erabileran, batez ere, Gipuzkoan, oso zabaldua dagoenez, Bizkaian, 2022an ezartzen hasi zenez, eta Araban, ezin izan duena 2023an ezarri. Osabideren mantentze korporatibo horrek mendekotasuna/desgaitasuna balioztatzeneko osasun-txostenaren tresna sendotuko du, eta, hala, baliagarritasuna hobetuko da, Osabide AP bertsioetik Osabide Global APra migratzeko prozesua txertatu baita. Foru Aldundiaren informatika-zerbitzuek eta Osakidetzak koordinatutako lanari esker, migratutako software berriaren konektagarritasuna berreskuratzeko aukera ematen ari da, eta 2024an Bizkaian eta Araban ezartzen jarraituko dute. • Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzak Suspertze eta Erresilientziarako Mekanismoaren Funtsei aurkeztutako historia soziosanitario elektronikoen 11. proiektuak, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailaren eta Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren arteko lankidetzahitzarmenaren emaitza denak, 3 milioi euroko finantzazioa jaso zuen. 2023an, elkarreragingarritasun soziosanitarioaren azpiegitura teknologikoak aztertzen, diseinatzeko eta garatzeko zerbitzuaren aurrekontuak esleitzeko, lizitatzeko eta kontratatzeneko prozesua gauzatu zen, EJIEn bitartez. Helburua da Eusko Jaurlaritzari elkarreragingarritasun soziosanitariorako azpiegitura ematea, Eusko Jaurlaritzaren barruan (intra), arreta soziosanitarioan esku hartzen duten EAeko gainerako administrazioekin batera (inter). Azpiegitura horiei esker, elkarreragingarritasun-erabileraren edozein kasu ezar daiteke eskalan. • Arreta Soziosanitarioko Zuzendaritzak (Osasun Saila) elkarreragingarritasun soziosanitarioari babesa ematen dion bulego tekniko berri bat dauka, zehazki, EJIEn agindutako informazio-teknologiaren gaineko proiektuak gauzatzeko.
<p>Jarduera-adierazleak (Ekintza, data, parte-hartzaileak, etab.)</p>	<ul style="list-style-type: none"> • 30 bilera, aktarekin dokumentatuta. • 4 fitxa, erabilera-kasu bakoitzeko bat. • 4 proiektu-dokumentu, erabilera-kasu bakoitzeko bat. • 4 eredu funtzional, lotutako datuak trukatzeko diagramekin, erabilera-kasuko bana. • Eusko Jaurlaritzaren elkarreragingarritasun soziosanitarioko azpiegiturak aztertu, diseinatu eta garatzeko zerbitzua EJIEn bidez kontratatzeneko.
<p>Proiektuaren aliantzak</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseilua: <ul style="list-style-type: none"> ○ Osasun Saila (Eusko Jaurlaritza).

	<ul style="list-style-type: none"> ○ Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila (Eusko Jaurlaritza). ○ Foru-aldundiak: AFA, BFA eta GFA. ○ EUDEL, Euskadiko Udalen Elkarte. ● Osakidetzako Zuzendaritza Nagusia (Lehen Mailako Arretako Zuzendariordetza). ● Proiektuak Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren (SEM) finantzaketa du, 22. osagaiaren barruan (Zaintzen ekonomiarako talka-plana eta gizarteratze politikak indartzea), C22.l2 inbertsio-lerroan. Iraupen luzeko laguntza-eta zaintza-plana: desinstituzionalizazioa, ekipamenduak eta teknologia. Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzak (Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila) SEM funtsei aurkeztutako eta Gizarte Eskubideen eta 2030 Agendaren Ministerioaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren arteko lankidetzak-hitzarmenean jasotako historia soziosanitario elektronikoaren 11. proiektuari erantzuten dio.
<p>Aurrerapen nagusiak eta arazo iraunkorrak</p>	<ul style="list-style-type: none"> ● Proiektuak erakundeen konfiantza berreskuratzea lortu du, beren autonomia errespetatuta sentitzen baitute ikuspegi horrekin. <ul style="list-style-type: none"> ○ Elkarreragingarritasuneranzko ikuspegi horretan erakunde bakoitzaren informazio-sistemak dira abiapuntua, horien bitartez egiten baita datu-trukea. ○ Erregistroak bitan egitea eragozten da, eta profesionalei balioa ematen zaie. ○ Elkarreragingarritasunak administrazio guztien konpromisoa eskatzen du; izan ere, maila batek huts egiten badu, informazio-trukea ez da osatzen. ● Erabilera-kasuen metodologiak aukera ematen du behar zehatzak moldatzeko, eta aurrerapen txikia da hasierako fasean, harik eta informazio-sistemak egokitu eta edozein motatako elkarreraginak ezartzea ahalbidetuko duten irtenbideak eskaini arte.
<p>Proiektuaren balizko onurak (zuzenekoak eta zeharkakoak)</p>	<ul style="list-style-type: none"> ● Zuzenean, lortu beharreko onurak hauek dira: informazio-trukea modu zehatz, beharrezko eta eguneratuan erraztea. Eta, zeharka, lan koordinatua erraztu beharko luke horrek, eta esku-hartze plan partekatua ekarri amaieran. ● Nabarmentzekoa da, halaber, informazio-trukeak informazioaren erregistro egituratua eskatzen duela, eta horrek aukera ematen du informazioa prozesatzeko eta erabakiak hartzen laguntzeko ezagutza lortzeko.
<p>Beste alderdi batzuk (baloratzeko):</p> <ul style="list-style-type: none"> - Espero den bilakaera - Ahuleziak, mehatxuak, indarrak 	<p>Gizarte-eremuko informazio-sistemen aniztasunak aurrerapena moteltzen du; era berean, horretan laguntzen duten elementuak eta adostasunak bilatzera behartzen du horrek, eta proiektuaren benetako indarrak bihurtzen dira azkenean elementu horiek.</p>

<p>eta aukerak identifikatzea</p> <p>- Oharrak</p>	
<p>6. Aginte-taula: datuetan oinarritutako erabakiak hartzea</p>	
<p>Proiektuaren egoera</p>	<p>Hasi gabe. 2024an EAEko administrazio publikoen elkarreragingarritasun soziosanitarioaren azpiegiturak aztertzeko, diseinatzeko eta garatzeko zerbitzuaren kontratazioak informazioa bi ikuspuntutatik analizatzeko tresnak ditu: asistentzialetik, batetik; koordinazio-jardueraren ikuspuntutik, bestetik.</p>
<p>7. Elkarreragingarritasun soziosanitarioa garatzeko dekretua</p>	
<p>Proiektuaren egoera</p>	<p>Aribidean</p>
<p>Proiektuaren hasiera-data</p>	<p>2022ko maiatza</p>
<p>Lantaldea</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saileko Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza (Eusko Jaurlaritza). • Arreta Soziosanitarioko Zuzendaritza, Osasun Saila (Eusko Jaurlaritza).
<p>Proiektuaren helburua(k)</p>	<p>Proiektuaren helburu orokorra da EAEko erakundeen artean informazioa eta ezagutza soziosanitarioa trukatzeko esparru arautzailea zehaztea.</p>
<p>Aurrekariak</p>	<p>EAEko arreta soziosanitarioaren ereduaren helburua da pertsonak jasotzen duten zaintzan arreta integratua eskaintzea, asistentziaren ikuspegia oinarri hartuta, baina, betiere, egitura instituzionalen autonomia organikoa, informazio-sistemak eta eskumenak errespetatuz. Horretarako, zerbitzu sanitario eta sozialen koordinazioari dagokionez, arreta integratuan oinarritutako eredu bat behar da, baina integrazio organikorik gabe. Beraz, bi sistema koordinatutan oinarritutako ikuspegia da.</p> <p>Erakunde-, eskumen-, antolamendu-, funtzio- eta teknologia-komplexutasuna nagusi den esparru horretan, historia soziosanitarioa elkarreragingarritasun-proiektu gisa kontzeptualizatzen da, datuak partekatzeko eta informazio-sistemen artean informazioa eta ezagutza trukatzeko; betiere, guztien helburu komuna dela behar duten pertsonen arreta koordinatua ematea.</p> <p>Horrek esan nahi du EAEn elkarreragingarritasun soziosanitarioa garatzeko dekretua adostu, landu eta onartu behar dela, erakundeen artean trukatzeko den informazio eta ezagutza soziosanitarioa arautzeko esparru gisa, bai eta esparru soziosanitarioko segurtasun-politikaren parte diren segurtasun-prozedurak arautzeko ere.</p>
<p>Lan-metodologia</p>	<p>Proiektuari lotutako premiak hiru bloketan egituratzen dira:</p>

	<ul style="list-style-type: none"> • I. multzoa: Osasun-sistemen eta gizarte-zerbitzu publikoen artean datu pertsonalen komunikaziorako eta trukerako esparru juridikoen azterlana, elkarreragingarritasun soziosanitarioaren araurako erreferentzia gisa. • II. multzoa: Datu pertsonalak tratatzeko gaitasuna ematen duten lege-oinarriak zehaztea, elkarreragingarritasun soziosanitarioaren arloan. • III. multzoa: Datu pertsonalen babesaren eta informazioaren segurtasunaren eremuko aholkularitza eta laguntza tekniko-juridikoa.
<p>Egindako ekintzen deskribapena</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Eremu soziosanitarioan datu-babeseko araudia betetzeko laguntza teknikoko zerbitzuaren kontratua adjudikatzea. • I. blokea lan-esparruan: <ul style="list-style-type: none"> ○ Hasteko, arreta soziosanitarioaren ikuspegia eta beharrak zehazten dira. Horretarako, erabilera-kasuak lantzen dira praktikoki, zehazki, interkontsulta soziosanitarioarena. Eraitza datuen babesaren pilotuaren bideragarritasun-txosten bat da. ○ Uneko esparru juridikoak aztertu dira, eragile nabarmenekin elkarrizketak egiten dira eta egungo esparru arautzailearen aplikazio praktikorako erabilera anitzeko gida prestatu da, arau berrirako trantsizio moduan. • II. blokearen lan-esparruan: I. blokearen ondorioetatik abiatuta, oinarrien analisi hausnartua eta heldua egin da elkarreragingarritasunari buruzko etorkizuneko arauari dagokionez edo arreta soziosanitariorako datu pertsonalen trukeari.
<p>Jarduera-adierazleak (Ekintza, data, parte-hartzaileak, etab.)</p>	<ul style="list-style-type: none"> • 10 lan-saio. • 6 elkarrizketa eragile nabarmenekin. • Interkontsulta soziosanitarioaren erabilera-kasuaren pilotuaren bideragarritasun-txostena. • Dauden esparru juridikoen analisisa. • Egungo esparru arautzailearen aplikazio praktikorako erabilera anitzeko gida. • Oinarrien azterketa hausnartua eta heldua elkarreragingarritasunaren etorkizuneko araurako edo arreta soziosanitariorako datu pertsonalen trukerako.
<p>Proiektuaren aliantzak</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Eusko Jaurlaritza: Osasun Saila eta Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila. • Proiektuak Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren (SEM) finantzaketa du, 22. osagaiaren barruan (Zainketen ekonomiarako talka-plana eta gizarteratze politikak indartzea), C22.l2 inbertsio-lerroan. Iraupen luzeko laguntza-eta zaintza-plana: desinstituzionalizazioa, ekipamenduak eta teknologia. Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzak SEM funtsei aurkeztutako eta Gizarte Eskubideen eta 2030 Agendaren Ministerioaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko

	Administrazio Orokorraren arteko lankidetzeta-hitzarmenean jasotako historia soziosanitario elektronikoaren 11. proiektuari erantzuten dio.
Aurrerapen nagusiak eta arazo iraunkorrak	<ul style="list-style-type: none"> • Aurrerapen nagusia da arreta soziosanitarioan inplikaturik dauden Eusko Jaurlaritzako sailen arteko adostasuna, informazioa eta ezagutza soziosanitarioa trukatzeko esparru arautzaile bat ezartzearen premia eta egokitasunari buruz, eta hori zerbitzuak kontratatzeke baldintza-agiri batean islatzea.
Proiektuaren balizko onurak (zuzenekoak eta zeharkakoak)	<ul style="list-style-type: none"> • Proiektuaren onurak honela zehazten dira zuzenean: 1) Arlo soziosanitarioko elkarreragingarritasuneko arau-esparruak aztertzea eta aplikazio-gomendioa; eta 2) EAEn elkarreragingarritasun soziosanitarioa garatzeko esparru arautzailearen lanketa-oinarriak. • Euskadiko administrazioen arloko eragile nabarmenei egindako elkarrizketei esker, parte hartzen ari dira irtenbidearen soluzioan eta arreta soziosanitarioaren lan-ikuspegi partekatua dibulgatzen ari da.
Beste alderdi batzuk (baloratzeko): <ul style="list-style-type: none"> - Espero den bilakaera - Ahuleziak, mehatxuak, indarrak eta aukerak identifikatzea - Oharrak 	<ul style="list-style-type: none"> • I. eta II. blokeak burutu dira, eta esperotako emaitzak lortu dira. • Baieztatu da ez dagoela erreferentzia sendorik, beraz, inguru berri bat esploratzea da kontua. • Elkarreragingarritasunaren etorkizuneko oinarriak jartzeko analisiaren (II. blokea) emaitzen arabera, lege-oinarrien ezarpenak lege-lerruna izan beharko luke. • 2024tik aurrera, euskarri juridiko-teknikoa izango da nahieran.

4. PREBENTZIO SOZIOSANITARIOA

PREBENTZIO SOZIOSANITARIOA	
Arloaren helburua	<p>Prebentzio Soziosanitarioak autonomia eta bizitza independentea sustatzea eta osasun-arloko desberdintasunak murriztea xede duten politikak eta ekimenak koordinatzeko proposamena hartzen du barnean, arrisku soziosanitarioko faktoreen agerpenari eutsi, hura arindu eta/edo atzeratzea xede duen ikuspegi batekin.</p> <p>Prebentzio soziosanitarioaren hedapena bi proiektutan zehazten da:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1.1. Prebentzio soziosanitarioko esparru koordinatu bat zehaztea. 1.2. Arrisku soziosanitarioa detektatzeko tresna.
8. Prebentzio Soziosanitarioko esparru koordinatua zehaztea	
Proiektuaren egoera	Aribidean
Proiektuaren hasiera-data	2022ko urtarrila
Lantaldea	<ul style="list-style-type: none"> • EAEko Koordinazio Soziosanitarioko taldea
Proiektuaren helburuak	<p>Arrisku soziosanitarioko faktoreak hautematera, kontrolatzera, arintzera edo atzeratzera bideratutako politikak eta jarduketak koordinatzea; faktore horien artean daude osasunaren baldintzatzaile sozial eta ekonomikoak, osasunean desparekotasun sozial gisa agertzen direnak. Horretarako, arreta soziosanitarioko beharrei erantzun biopsikosoziala emateko esparru bat diseinatzea proposatzen da, pertsonen autonomia eta bizimodu independentea sustatzera bideratutako politikak eta ekimenak koordinatuz.</p>
Aurrekariak	<p>Euskadiko Arreta Soziosanitarioko Lehenetasun Estrategikoek (2017-2020) 4. lehenetasunaren garapena bideratu zuten Prebentzio Soziosanitarioari eta herritarren parte-hartzeari heltzeko.</p> <p>Formulazioan, prebentzio soziosanitarioa gizarte- eta osasun-zerbitzuen sistemen jasangarritasunerako elementutzat hartzen da, arreta soziosanitarioko eskaerak agertzea atzeratzen edo saihesten duelako. Prebentzio soziosanitarioak biztanleriaren ikuspegia arrisku-profilaren banakako doikuntzarekin uztartzeari erantzuten dio, eta helburu horrekin, Euskadiko Arreta Soziosanitarioaren Lehenetasun Estrategikoetan (2017-2020) bi proiektutan oinarrituta antolatzea planteatu zen: EAEn profesional soziosanitarioek tratu txarrak detektatzeko tresna bat hedatzea (ekimena, era berean, 2013-2016 aldirako Euskadiko Arreta Soziosanitarioko Ildo Estrategikoetatik dator) eta prebentzio soziosanitarioko eredu bat garatzea.</p>

	<p><u>Euskadiko Arreta Soziosanitarioaren Lehentasun Estrategikoen jarduera- eta ebaluazio-memoriak (2017-2020)</u> agerian utzi zuen, EAEn tratu txarrak detektatzeko tresnarekin lortutako hedapenak ez bezala, finantzaketa espezifikorik ezak zaildu egin zuela prebentzio soziosanitarioko eredu konprometitua prestatzea.</p> <p><u>Euskadiko Arreta Soziosanitarioko Estrategia 2021-2024</u> dokumentuak proposatzen du marko bat lantzea erantzun biopsikosoziala emateko arreta soziosanitarioko beharrei, pertsonen autonomia eta bizitza independentea sustatzeko politiken eta ekimenen koordinaziotik, baita osasuneko desparekotasun sozialak gutxitzea ere.</p>
Lan-metodologia	Arreta Soziosanitarioko Zuzendaritza gonbidatu duten Eusko Jaurlaritzako sailarteko foroetan parte hartzea eta/edo koordinazio-lanak egitea.
Egindako ekintzen deskribapena	<ul style="list-style-type: none"> • Euskadiko 2023-2028 aldirako Osasun Planaren segimendu- eta ebaluazio-adierazleak prestatzen parte hartzea, 3. lantaldea: Bizitza osoko ikuspegidun zahartzea lortzea (Osasun Saila). • Euskadiko 2023-2028 aldirako Osasun Planaren aginte-koadroa prestatzen parte hartzea (Osasun Saila). • <u>2022-2026 aldirako Inklusiorako V. Euskal Plana</u> prestatzen eta ezartzen parte hartzea (Lan eta Enplegu Saila). • Gizarteratze mahaien antolaketan laguntzea (Enplegu eta Gizarteratze Zuzendaritza, Lan eta Enplegu Saila). • 2023-2028 aldirako bizitegi-bazterketa larriari aurka egiteko euskal estrategian parte hartzea (Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila). • <u>Haurren eta nerabeen kontrako indarkeriari aurre egiteko Euskal Estrategia (2022-2025)</u> prestatzen eta ezartzen parte hartzea (Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila). • Familien eta Hautzaroaren aldeko 2018ko Euskal Itunean parte hartzea (Eusko Jaurlaritza). • Osasun Mentaleko Euskal Estrategia (2023-2028) egiten parte hartzea (Osasun Saila, 2023). • Euskadin suizidioa prebenitzeko estrategia (2019) zabaltzen parte hartzea (Osasun Saila). • Mendekotasunen VIII. Plana prestatzen parte hartzea (Osasun Saila, 2023). • Euskadiko Lehen Mailako Arretako Aholku Batzordean parte hartzea. • Arreta Goiztiarraren Erakundearteko Kontseiluan parte hartzea (Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila).
Jarduera-adierazleak (Ekintza, data, parte-hartzaileak, etab.)	Plan, estrategia eta aholku horien aktetan jasota dago Arreta Soziosanitarioko Zuzendaritzaren parte-hartzea.

Proiektuaren aliantzak	Eusko Jaurlaritzaren Arreta Soziosanitarioko Zuzendaritzak parte hartzen duen sailarteko lankidetzak harremanak eta konpromisoak garatzen laguntzen du, EAEko arreta soziosanitarioa, oro har, eta arrisku soziosanitarioaren prebentzioa, bereziki, hobetuko duten gobernu-proiektuak egiteko.
Aurrerapen nagusiak eta arazo iraunkorrak	
Proiektuaren balizko onurak (zuzenekoak eta zeharkakoak)	Gobernu-eremuen arteko sinergiak sortzeari eta aprobetxatzeari esker, arrisku soziosanitarioaren kontzeptuaren ezagutza eta jarduteko beharra bultzatzen dira, esparru koordinatu, diziplina anitzeko, sailarteko eta sistematiko batetik, hura prebenitze aldera.
Beste alderdi batzuk (baloratzeko): - Espero den bilakaera - Ahuleziak, mehatxuak, indarrak eta aukerak identifikatzea - Oharrak	Arreta Soziosanitarioko Zuzendaritza sortzeak beste gobernu-eremu batzuetatik (eta beste erakunde eta entitate batzuetatik) eremu soziosanitarioa ikusarazten laguntzen du, eta, horri esker, zuzendaritzak arrisku soziosanitarioaren prebentzioan eragin dezaketen politikak eta ekimenak formulatzen lagun dezake.
9. Arrisku Soziosanitarioa zehazteko tresna	
Proiektuaren egoera	Aribidean
Proiektuaren hasiera-data	2022ko urtarrila
Lantaldea	<ul style="list-style-type: none"> • EAEko Koordinazio Soziosanitarioko taldea • Erizaintzako Zuzendariordetza (Asistentzia Sanitarioko Zuzendaritza, Osakidetza) • Lehen Mailako Arretako Zuzendariordetza (Asistentzia Sanitarioko Zuzendaritza, Osakidetza).
Proiektuaren helburuak	Arrisku soziosanitarioko faktoreak hautematea ahalbidetuko duen tresna bat eraikitzea, faktore iragarle jakin batzuen definizioetik eta mailakatzetik abiatuta.
Aurrekariak	<p>Euskadiko Arreta Soziosanitarioko Lehentasun Estrategikoen (2017-2020) 4. lehentasunaren garapena bideratu zuten prebentzio soziosanitarioari eta herritarren parte-hartzeari heltzeko.</p> <p>Formulazioan, prebentzio soziosanitarioa gizarte- eta osasun-zerbitzuen sistemen jasagarritasunerako elementutzat hartzen da, arreta soziosanitarioko eskaerak agertzea atzeratzen edo saihesten duelako. Prebentzio soziosanitarioak biztanleriaren ikuspegia arrisku-profilaren banakako doikuntzarekin uztartzeari erantzuten dio, eta helburu horrekin, Euskadiko Arreta Soziosanitarioaren Lehentasun Estrategikoetan (2017-2020) bi proiektutan oinarrituta antolatzea planteatu zen: EAEn profesional soziosanitarioek tratatu txarrak detektatzeko tresna bat</p>

	<p>hedatzea (ekimena, era berean, 2013-2016 aldirako Euskadiko Arreta Soziosanitarioko Ildo Estrategikoetatik dator) eta prebentzio soziosanitarioko eredu bat garatzea.</p> <p>Euskadiko Arreta Soziosanitarioko Estrategiak (2021-2024), azken mende laurdenaren arreta soziosanitarioaren ereduaren antolaketarekin jarraituz, herritarren behar soziosanitarioak aurreratzeko eta prebenitzeko komenigarritasuna sustatzen du, prebentzio, arreta eta errehabilitazio soziosanitarioko eredu berrietarako aldaketa errazten duten elementuen aldeko apustua eginez. Ildo horretan, arrisku soziosanitarioa hautemateko tresna baten diseinua sustatzen da zenbait faktore iragarleren bidez.</p> <p>2022an egindako arrisku sozial eta/edo sanitarioko egoeren arrisku-faktoreen eta neurketa-eskalen lehen mailako eta bigarren mailako iturrien azterketa eta analisi bibliografikoan, prebentzio tresnaren ikuspegiari buruzko hausnarketa ez ezik, ondorioztatu zen zer desegokia zen arrisku soziosanitarioaren definizio unibokoari heltzea, konstruktu neurgarria balitz bezala, tresna iragarle batez hitz egiteko aurretiko fasea denez. Halaber, proiektuaren jatorrizko ikusmoldeari eta ateratako ondorioei dagokionez, hauxe zehaztu da: 1) «arreta soziosanitarioaren beharra» aldagaia aipatzeak aldeztu aurretik adierazten du arreta soziosanitarioa kontzeptu berezia, definigarria eta neurgarria dela; 2) behar soziosanitarioen detekzioaren arabera eskaerarekin identifikatzen diren taldeak heterogeneoak dira. Halaber, egiaztatu da egoera horiek pairatzera aldeztu aurretik eramaten gaituzten egoerak (arrisku-faktoreak) askotarikoak direla; 3) zailtasun horiek gainditze aldera, proposatu da proiektuari beste ikuspegi bat ematea, zaurgarritasun-egoerak hautemateko arrisku-faktoreak identifikatzeko orientazioarekin (esaterako, mendekotasunaren aurreko egoera); 4) dena den, argitaratutako zaurgarritasun-definizioek banakoen egoerak soilik aipatzen dituzte, batez ere morbiditate- eta funtzio-egoerak, aintzat hartu gabe ez dimentsio soziala ez biztanleriaren ikuspuntua.</p> <p>Labur esanda, 2023an proposatu da proiektua birdefinitzen aurrera egiteko aukera, zaurgarritasun-egoerak hautemateko arrisku-faktoreak identifikatzera bideratuta, Erizaintzako Zuzendariordearekin eta Lehen Mailako Arretaren Zuzendariordearekin lankidetzan (Osakidetza).</p>
<p>Lan-metodologia</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Lehen eta bigarren mailako iturrien bibliografia berrikustea, arreta soziosanitarioa eman behar izatea eragin dezaketen arrisku-faktoreei dagokienez, eta arrisku sozial edo sanitarioko egoerak neurtzeko eskalak berrikusteari dagokienez. • Hausnarketa-prozesua egitea eta proiektuari beste ikuspegi bat emateko proposamen bat egitea, hausnarketa-egoerak

	<p>hautemateko arrisku-faktoreak identifikatzera bideratuta (mendekotasunaren aurreko egoera gisa).</p>
<p>Egindako ekintzen deskribapena</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Lehen eta bigarren mailako iturrien bibliografia berrikustea, arrisku-faktoreei eta arrisku sozial edo sanitarioko egoerak neurtzeko eskalei dagokienez. • Bibliografiaren berrikuspenaren emaitzen inguruko hausnarketa-prozesua egitea eta ondorioak ateratzea. • Proiektuari beste ikuspegi bat emateko proposamen bat egitea, hausnarketa-egoerak hautemateko arrisku-faktoreak identifikatzera bideratuta (mendekotasunaren aurreko egoera gisa). • Adinekoen Arreta Planean (Osakidetza, 2018) zaurgarritasun-kontzeptuarekin lotutako elementuak identifikatzea, arrisku soziosanitarioa hautemateko eta ebaluatzeko elementu moduan. • Zaurgarritasunaren arrisku soziosanitarioa prebenitzeko tresnaren prototipo baten baterako proposamena prestatzea Arreta Soziosanitarioko Zuzendaritzak (Osasun Saila) eta Osakidetzaaren Erizaintzako eta Arreta Soziosanitarioko zuzendariordetzek, baita herritarrekin elkarrekintzan aritzeko elementuak aztertzea ere (sare sozialen bidez edo erabilera unibertsaleko IKT aplikazioak garatuz).
<p>Jarduera-adierazleak (Ekintza, data, parte-hartzaileak, etab.)</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Lehen eta bigarren mailako iturrien bibliografia berrikustea, arrisku-faktoreei eta arrisku sozial edo sanitarioko egoerak neurtzeko eskalei dagokienez. • Bibliografiaren berrikuspenaren emaitzei buruzko hausnarketa-saioa egitea eta ondorioak ateratzea. • Proiektuari beste ikuspegi bat emateko proposamena, hausnarketa-egoerak hautemateko arrisku-faktoreak identifikatzera bideratuta (mendekotasunaren aurreko egoera gisa). • Adinekoen Arreta Planean (Osakidetza, 2018) zaurgarritasun-kontzeptuarekin lotutako elementuak, arrisku soziosanitarioa hautemateko eta ebaluatzeko elementu moduan. • Zaurgarritasunaren arrisku soziosanitarioa prebenitzeko tresnaren prototipo baten baterako proposamena prestatzea Arreta Soziosanitarioko Zuzendaritzak (Osasun Saila) eta Erizaintzako eta Arreta Soziosanitarioko zuzendariordetzek (Osakidetza).
<p>Proiektuaren aliantzak</p>	<p>Ekintza hori Erronka Demografikorako 2030erako Euskal Estrategian dago jasota (III. ardatza, 22. jarduketa), Lehendakariaren Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusiak sustatua (Eusko Jaurlaritza).</p>

<p>Aurrerapen nagusiak eta arazo iraunkorrak</p>	<p>Kontsultatutako bibliografiaren azterketatik eta 2022an egindako hausnarketatik ondorioztatzen denez, ez da bidezkoa arrisku soziosanitarioaren definizio unibokoa kontzeptu neurgarri gisa jorratzea, aurretiazko fase beharrezkoa baita tresna iragarle bati buruz hitz egiteko.</p> <p>Proiektuari beste ikuspegi bat emateko proposamenak, zaurgarritasun-egoerak hautemateko arrisku-faktoreak identifikatzeko orientazioarekin (esaterako, mendekotasunaren aurreko egoera); zailtasun bati egin behar dio aurre argitaratutako zaurgarritasun-definizioek banakoen egoerak soilik aipatzen dituztelako, batez ere morbiditate- eta funtzio-egoerak, aintzat hartu gabe ez dimentsio soziala ez biztanleriaren ikuspuntua –ezinbesteko alderdiak biak proiektua berriz definitzeko eta garatzeko–.</p>
<p>Proiektuaren balizko onurak (zuzenekoak eta zeharkakoak)</p>	<p>Arrisku-faktoreak identifikatzea, hauskortasun-egoeren prebentzioa eta mendetasun-egoerak atzeratuko edo saihestuko dituen esku-hartze goiztiarra ahalbidetzeko.</p>
<p>Beste alderdi batzuk (baloratzeko):</p> <ul style="list-style-type: none"> - Espero den bilakaera - Ahuleziak, mehatxuak, indarrak eta aukerak identifikatzea - Oharrak 	<p>Proiektuaren berrorientazioak honako eremu hauek hartuko lituzke barne:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Prebentzio soziosanitarioko lan-ildoei buruzko egoeraren diagnostikoa: biztanleria-ikuspegia eta banakako perspektiba. 2. Arrisku-faktoreen eta beharizan soziosanitarioen kudeaketako jardunbide egokiak identifikatzea. 3. Prebentzio soziosanitariorako funtsezkoak diren eragileak identifikatzea. 4. Arlo soziosanitarioko funtzionaltasuna eta hauskortasuna ebaluatzeko ekimenekin bat etortzea.

5. ARRETA SOZIOSANITARIOA

ARRETA SOZIOSANITARIOA	
Arloaren helburua	<p>Arreta soziosanitarioaren hedapenak honako helburu hau du: arreta soziosanitarioko taldeak osatzen dituzten profesionalen koordinazio soziosanitarioa sustatzea eta diziplina anitzeko esku-hartzeetan oinarritutako landinamika partekatuak bultzatzea, eta horien bitartez, azken finean, baterako zaintza-planak ezarri ahal izatea, pertsona esku-hartzeen erdigunean jartzeko eta asistentzia-jarraitutasuna eta bere bizi-proiektuarekiko errespetua bermatzeko.</p> <p>Planteamendu horretatik abiatuta, arlo honen garapenak loturak ditu sistemen arteko elkarreragingarritasuna, gobernantza soziosanitarioa edo prebentzio soziosanitarioa biztanleriaren ikuspegitik sustatzea xede duten beste arlo estrategiko batzuekin.</p> <p>Arreta soziosanitarioaren sustapena hiru proiektu hauen bitartez egiten da:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Lehen Mailako Arreta Soziosanitarioaren hedapena, hainbat ekintza barnean jasota: erreferente soziosanitarioen mapa bat eraikitzea; gida kontzeptual soziosanitario bat (<i>tool kit</i> soziosanitarioa) egitea, koordinazio soziosanitarioko tresnen –batzordeen, protokoloen, prozeduren eta abarren– baliagarritasunaren eta finkatze-mailaren diagnostikoan oinarrituta, edo, proiektu pilotuak garatzea arreta soziosanitarioko jardunbide egokiak bultzatzeko, besteak beste. • Arreta soziosanitarioko xede-kolektiboetako jarduketak. • Arreta goiztiarra eta hezkuntzako eremu soziosanitarioaren garapena.
10. Lehen Mailako Arreta Soziosanitarioaren hedapena	
Proiektuaren egoera	Aribidean/hedatzen.
Proiektuaren hasiera-data	<p>Erreferente soziosanitarioen mapa eraikitzeari dagokionez: 2021eko ekaina.</p> <p>Koordinazio soziosanitarioko tresnen diagnostikoari dagokionez: 2021eko azaroa.</p> <p>Proiektu pilotuei dagokienez, kontsultatu proiektu bakoitzaren hasiera-data dagokion fitxa metodologikoan (ikus eranskina).</p>
Lantaldea	Erreferente soziosanitarioen mapa eraikitzeari dagokionez:

	<ul style="list-style-type: none"> • Lurraldeetako koordinatzaile soziosanitarioak. • EUDEL, Euskadiko Udalen Elkarte. • Lurralde historiko bakoitzeko hiriburuetako hiru udaletako zuzendaritza tekniko eta politikoak. • Euskadiko Koordinazio Soziosanitarioiko Taldea. <p>Koordinazio soziosanitarioiko tresnen diagnostikoari dagokionez:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Osasunaren arloko lurraldeetako koordinatzaile soziosanitarioak. • Hiru lurralde historikoetako erakunde sanitario integratuetako, hiru lurralde historikoetako osasun mentaleko sareetako eta Gorlizko eta Santa Marinako ospitaleetako medikuntzako, erizaintzako, asistentzia-integratioko eta gerentzietako zuzendaritzak. • Hiru lurralde historikoetako ESlen eta OMSen osasun-eremuko erreferente soziosanitarioak. • Euskadiko Koordinazio Soziosanitarioiko Taldea. <p>Proiektu pilotuei dagokienez, hasitako proiektuetan askotariko erakundeak aritzen dira. Proiektu bakoitzean parte hartzen duten erakunde eta eragileen xehetasunak zehatz-mehatz jasotzen dira proiektu-fitxa bakoitzean (ikus eranskina).</p>
<p>Proiektuaren helburua(k)</p>	<p>Erreferente soziosanitarioen mapa eraikitzeari dagokionez:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Inplikaturako eremu, maila eta erakundeetako erreferentziako profesionalen egitura ordenatua eraikitzea. • Arreta soziosanitarioiko taldeen lana erraztea (zaintzen koordinazioari, kudeaketari eta jarraipenari dagokienez). • Gobernantza soziosanitarioa hedatzea erreferente soziosanitarioaren figurari dagokionez. <p>Koordinazio soziosanitarioiko tresnen diagnostikoari dagokionez:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Erakundeetan indarrean dauden koordinazio soziosanitarioiko tresnen (batzorde soziosanitarioak, protokoloak eta koordinazio-prozedurak) egoeraren diagnostikoa egitea. • Tresna horien erabilgarritasun- eta egokitasun-maila ebaluatzea, bai eta indarrean dagoen araudiari (gobernantza soziosanitarioari buruzko dekretua) egokitzen zaizkion ere. • Diagnostiko-txosten bat egitea, indarrak eta hobetu beharreko eremuak identifikatzeko, eta gomendio multzo bat egitea, identifikatutako alderdietatik abiatuta.

	<ul style="list-style-type: none"> • Bigarren fasean, dokumentu bat idaztea, EAEko arreta soziosanitarioaren funtsezko elementuen gida kontzeptual gisa. <p>Proiektu pilotuei dagokienez, hasitako proiektuetan askotariko erakundeak aritzen dira. Proiektu bakoitzean parte hartzen duten erakunde eta eragileen xehetasunak zehatz-mehatz jasotzen dira proiektu-fitxa bakoitzean (ikus eranskina).</p>
<p>Aurrekariak</p>	<p>Erreferenteen mapa garatu aurretik, hainbat ekintza egin dira aurreko legegintzaldietan, pilotajerako profesional erreferenteak ezartzeko eta, ondoren, InterRAI-CA (2015-2020) balorazio soziosanitarioko tresna hedatzeko. Era berean, erreferentearen figura 2019an onartutako gobernantza ereduan jasotzen da, eta funtsezko figura izan da COVID-19aren pandemia kudeatzeko; testuinguru horretan gehitu da, gainera, hurbiltasuneko erreferentearen figura.</p> <p>Gida edo <i>tool kit</i> soziosanitarioa garatzeko erabiliko den diagnostiko-txostenaren aurretik beste txosten bat egin zen 2016an, eta hori pixka bat eguneratu zen 2017an; txosten horrek orduan indarrean zeuden protokoloen zerrenda jaso zuen. Txosten horrek dokumentuen funtsa eta forma aztertu zituen, eta hobetzeko arlo argiak zehaztu. Azterlan hori egiteko informazioa <i>ad hoc</i> egindako galde sorta baten bidez lortu zen; ESlen zuzendaritzetara bidali zen galde sorta hori. Oraingo honetan, informazio hori eguneratzea da kontua; hau da, dokumentu horietan izandako aldaketak zehaztea, hobetzeko arloak zuzentzea, protokolo berriak zehaztea, koordinazio-protokoloak eta/edo -prozedurak berriz sailkatzea, eta zehaztea azken horiek baliagarriak eta egokiak diren hainbat eremutatik emandako koordinazioa protokolizatzeko tresna gisa. Gainera, batzorde soziosanitarioen azterketa gehitu da.</p> <p>Proiektu pilotuei dagokienez, bakoitzak helburu jakin bat lortu nahi duen arren, honako hau da ikuspegi horren helburu orokorra: erakunde sanitario guztiek, eskualdeko gizarte-zerbitzuekin batera, proiektu piloturen bat garatzea, dagozkien jardun-eremuak eta -mailak hobeto ezagutzeko, koordinazio soziosanitarioa hobetzeko eta beste ekosistema soziosanitario batzuetara eskalatu daitezkeen jardunbide egokiak identifikatzeko.</p>
<p>Lan-metodologia</p>	<p>Erreferente soziosanitarioen mapa garatzen laguntzeko zehaztutako metodologiak honako hauek izan ditu ardatz:</p> <ul style="list-style-type: none"> • EAEko Erreferente Soziosanitarioen Gidaren proposamen teknikoa egitea.

	<ul style="list-style-type: none"> • Lehen mailako arreta soziosanitarioko profesionali zuzendutako jardunaldiak antolatzea. Zehazki, bi edizio egin ziren (2022an eta 2023an) <i>topaketa</i> izenaz, ekosistema soziosanitarioaren profesionalak hurbiltzeko eta erreferente soziosanitarioaren figura aitortzeko helburuz; baita Euskadiko koordinazio soziosanitarioko ekimen estrategikoak partekatze ere. • Proposamen teknikoaren eguneraketak prestatzea eta etengabeko hobekuntzako elementuak txertatzea (Erreferente soziosanitarioen gida. 2023ko eguneraketa eta Erreferenteen Direktorioa). • Emaizak zabaltzea (I. eta II. Topaketa Soziosanitarioen markoan, baita Arreta soziosanitarioaren atariaren bidez ere). <p>Diagnostikoa egiteko lan-metodologia hau izan da:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Bilera teknikoak egitea funtsezko informatzaileekin (Bizkaiko eta Gipuzkoako lurralde historikoetako ESletako, Osasun Mentaleko sareetako eta egonaldi ertain-luzeko ospitaleetako zuzendaritzak eta gerentziak). • Dokumentazio teknikoa prestatzea eta zabaltzea (aurkezpena, informazio-txostena, informazioa biltzeko fitxak eta formularioak, gidoia eta aktak, arreta soziosanitarioa hedatzeko galdetegia). • Idazkaritza teknikoa eta euskarria koordinazio soziosanitarioko protokoloen eta prozedurei buruzko informazioa argitzeko eta/edo alderatzeko (aldebiko komunikazioa askotariko erakundeetako erreferente soziosanitarioekin). • Jasotako informazioaren analisi konparatiboa eta longitudinala. <p>Proiektu soziosanitario pilotuei dagokienez:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Esku hartzen duten erakunde sozial eta sanitarioetako zuzendaritzekin eta gerentziekin bilera teknikoak egitea. • Material teknikoak egokiak prestatzea: aurkezpenak eta bileren aktak. • Fitxa metodologikoa, pilotu bakoitzaren kasuan eskatu behar diren eremuekin (ikusi eranskina).
<p>Egindako deskribapena</p>	<p>ekintzen</p> <p>Erreferente soziosanitarioen mapari dagokionez:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Erreferente soziosanitarioaren figura sustatzea (izendapena doitzuz Euskadiko gobernantza soziosanitarioari buruzko abenduaren 7ko 150/2022 Dekretuan adierazitako epeei). • Euskarria inplikaturako erakundeei izendapenak formulatzeko eta erregistratzeko.

	<ul style="list-style-type: none"> • Eguneratzea Euskadiko Erreferente Soziosanitarioen Gida (2023ko eguneraketa), erreferenteen izendapen berriekin (edo aurrekoak ordeztuta); eta EAEn figura horren ezarpenaren bilakaerari buruzko ondorioen atala sartzea. • Euskadiko Erreferente Soziosanitarioen II. Topaketaren egitaraua eta edukiak prestatzea, lankidetzaren ikuspegitik, proiektu soziosanitarioak zuzentzen dituzten profesionalak ezagutza zabaltzeko xedez. • Lehen mailako arreta soziosanitarioaren arloko erreferentziako profesionali eta ekosistema soziosanitarioaren funtsezko beste eragile batzuei zuzendutako Euskadiko Erreferente Soziosanitarioen II. Topaketa egitea, 2023ko urriaren 26an, ezagutza transferitzeko eta zabaltzeko eta arlo soziosanitarioko esperientzia eta egitasmo estrategikoak partekatzeko, adinekoen bizitegi arloari arreta berezia jarritz. • EAEko Erreferente Soziosanitarioen Gida (2023ko eguneraketa) prestatu, maketatu, itzuli, formatu elebidunean editatu eta argitaratzea. • EAEko Erreferente Soziosanitarioen Direktorioa prestatu, maketatu, itzuli, formatu elebidunean editatu eta argitaratzea (2023). • II. Topaketan aurkeztutako hitzaldiak idaztea, maketatzea, itzultzea eta formatu elebidunean argitaratzea (aurkezpenaren hurrenkeran): <ul style="list-style-type: none"> ○ Gobernantza Soziosanitarioari buruzko Dekretua hedatzea. ○ Koordinazio soziosanitarioko tresnen diagnostikoa. ○ Elkarreragingarritasun soziosanitarioaren jardun-ildoak. ○ Egoitza-eremuko adinekoen arreta soziosanitarioa. Pandemiaren osteko egoerari behakoa. ○ Zaintzen Trantsizio-taldea (ZTT) egoitza geriatrikoetan dauden pazienteentzat. • Jardunaldiko dokumentazio osoa komunikatzea eta zabaltzea, baita <i>Egoitza-eremuko adinekoen arreta soziosanitarioa. Pandemiaren osteko egoerari behakoa</i> galdera-sorta ere⁴. <p>Koordinazio soziosanitarioko tresnen diagnostikoari dagokionez:</p>
--	--

⁴ Galdera-sorta prestatu zen mintegiko ariketa gisa. II. Topaketaren egitarauko azken blokerako programatuta zegoen, baina ez zen egin denbora-faltagatik. Horregatik, ondoren, erreferente soziosanitarioei eta bertaratu zirenei bidali zitzaizen adinekoen zentroetan ematen den arreta soziosanitarioari buruzko informazioa biltzeko helburuz (egoitzak, etxebizitza komunitarioak, etxebizitzak, etab.), pandemiaren osteko koordinazioaren ikuspegitik.

	<ul style="list-style-type: none"> • Diagnostikoaren txostena eta ondorioak aurkeztea Erreferente Soziosanitarioen II. Topaketaren esparruan, arreta berezia jarritz dokumentuak hobetzeko gai metodologikoetan (ikusi hitzaldia). <p>Pilotuei dagokienez, ekintzak erantsitako informazioan jasotzen dira.</p>
<p>Jarduera-adierazleak (Ekintza, data, parte-hartzaileak, etab.)</p>	<p>2023an, erreferente soziosanitarioen mapari lotutako jarduerak adierazleak hauek dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Erreferente soziosanitarioen gida. 2023ko eguneraketa. • Euskadiko Erreferente Soziosanitarioen II. Topaketaren programa. • Euskadiko Erreferente Soziosanitarioen II. Topaketako hitzaldiak (aurkezpenaren hurrenkeran): <ul style="list-style-type: none"> ○ Gobernantza Soziosanitarioari buruzko Dekretua hedatzea. ○ Koordinazio soziosanitarioko tresnen diagnostikoa. ○ Elkarreragingarritasun soziosanitarioaren jardun-ildoak. ○ Egoitza-eremuko adinekoen arreta soziosanitarioa. Pandemiaren osteko egoerari behakoa. ○ Zaintzen Trantsizio-taldea (ZTT) egoitza geriatrikoetan dauden pazienteentzat. • Talde-dinamika garatzeko proposamen metodologikoa eta galdera-sorta bidaltzea. • Gonbidapenak bidaltzea erreferente soziosanitarioei, EUDEL Euskadiko Udalerrien Elkarteko ordezkari, hiru foru-aldundietako arduradunei, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saileko Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzako arduradunei, Osakidetzaren Lehen Mailako Arretako eta Erizaintzako zuzendariordetzeko arduradunei, ESletako Arreta Integratuko Zuzendaritzeko ordezkari eta Lurraldeko Koordinazio Soziosanitarioaren arduradunei. • Euskadiko Erreferente Soziosanitarioen II. Topaketa egitea (2023ko urriaren 26an), aurretik aipatutako eta Arreta Soziosanitarioaren Atarian argitaratutako dokumentazioa euskarri moduan erabilia. <p>Koordinazio soziosanitarioko tresnen diagnosi-txostenari dagokionez, 2023. urterako jarduerak adierazleak dira hauek:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Txostenaren proposamen teknikoak laburtzen duen hitzaldia, 2023ko urriaren 26an aurkeztua.

	<p>Proiektu pilotuen jarduera-adierazleen xehetasunak eranskinetako informazioan jasotzen dira.</p>
<p>Proiektuaren aliantzak</p>	<p>Erreferentziako profesionalen egitura ordenatu bat sortzea xede duen Erreferenteen Maparen proiektua Lehen Mailako Arreta Soziosanitarioa bultzatzeko Estrategiaren ekintzetako bat da, eta, horrenbestez, Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseiluaren eta hura osatzen duten erakundeen onespena du. Meso-mailan, honako hauek babesten dute proiektua: hiru lurralde historikoetako lurraldeko koordinazio soziosanitarioek, EUDELEk eta Gasteiz, Bilbo eta Donostiako udaletako gizarte-zerbitzuetako zuzendaritzek.</p> <p>Koordinazio soziosanitarioko tresnen diagnosi-txostenari dagokionez, horren garapenaren xedea da jakitea nola antolatzen den arretaren mikro-maila zenbait koordinazio trenaren analisitik –Lehen Mailako Arreta Soziosanitarioan markoztatzen da–, Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseiluaren eta hori osatzen duten erakundeen onarpenarekin. Meso-mailan, honako hauek babesten dute proiektua: hiru lurralde historikoetako lurraldeko koordinazio soziosanitarioak eta Osakidetzako zuzendaritza eta gerentzia medikoek.</p> <p>Proiektu pilotuen kasuan, bakoitzak bere aliantzak egin ditu, abian jartzeko lortu nahi zituen helburuen arabera.</p>
<p>Aurrerapen nagusiak eta arazo iraunkorrak</p>	<p>Erreferente soziosanitarioaren figura erakunde sanitario eta sozialetan hedatu zen lehenengo urtea igaro ondoren, haren hedapenaren ondorio batzuk atera daitezke. Lehenik eta behin, Euskadiko gobernantza soziosanitarioari buruzko abenduaren 7ko 150/2022 Dekretua onartzea mugari garrantzitsua izan da arreta soziosanitarioan, eta horrek ezagutza erraztu du, bai eta, horrekin batera, erreferentearen irudia hedatzea ere. Termino kuantitatiboetan, estaldura-tasa⁵ % 100koa da Araban eta altuak, bai Bizkaian bai Gipuzkoan (ikusi Erreferente Soziosanitarioen Gida. 2023ko eguneraketa dokumentuaren ondorioak). Figura hori definituta eta bere eginkizunak eta harremanak zehaztuta, profesional askok egindako koordinazio-lana ikusaraztea lortu da, ordura arte aintzatespen gutxi izan duen lana, hain zuzen. Era berean, figura horiek izendatzeko gizarte- eta osasun-erakundeekin izandako komunikazioa etengabea eta erraza izan da, eta hori ere funtsezkoa izan da erakundeen arteko harremanak sendotzeko, eta azken finean, erreferenteen kopurua handitzeko. Oraindik, baina,</p>

⁵ Estaldura-tasak adierazten du lurralde historikoaren zer ehunekok duen erreferente soziosanitario bat. Lurralde batean lortutako estaldura-maila lurralde horretako arreta soziosanitarioaren garapenaren adierazle ere izango da, eta ulertuko da figura horren hedapenak lurraldeko koordinazio soziosanitarioa sendotzen lagunduko duela.

badira erreferente soziosanitarioaren figuraren garapenean eta funtzionaltasunean eragina duten elementuak. Berrienetako bat aurreko udal-hauteskundeen (2023ko maiatza) ondoriozko gobernu-aldaketak izan daitezke. Erreferentearen figuraz kanpoko faktorea den arren, erreferente batzuen ordezkaritza politikoak edo tokiko politika publikoak zuzentzen dituzten taldeen norabide-aldaketak eragina izan dezake figura horren inguruan aurretik egindako lanean. Oztupo izan daitekeen beste elementu bat da gizarte-arreta mankomunatuan koordinaziorik ez egotea mankomunitatea osatzen duten udalerriekin. Udalerrri batzuetan gertatzen zen bezala, mankomunitateak izendatutakoaz aparte, kanpoko erreferenteak izendatzeak gainjartzeak eta eraginkortasunik ezak eragin ditzake kasu soziosanitarioen komunikazioan eta kudeaketan.

Koordinazio soziosanitarioko tresnen azterketari dagokionez (batzordeak, protokoloak, prozedurak, etab.), erakunde batzuek emandako informaziorik eza nabarmentzen da, eta horrek tresna batzuk aztertzea eragozten du. Informazioa ez izateak, kasu batzuetan, dokumentu estrategikoen azken bertsioak ez izatea dakar, eta, ondorioz, Arreta Soziosanitarioko Zuzendaritzak (Osasun Saila) eskura dituen azken bertsioak aztertzen dira. Era berean, koordinazio-tresnak (hau da, esparru-protokoloak eta koordinazio soziosanitarioko prozedurak) ez eguneratzeak eta ez hedatzeak hutsune asistentzialak sor ditzake, edo atzerapenak zaintza soziosanitarioen hartzaileei eta haien familiei emandako erantzunean; funtsezkoa da, beraz, erreferenteak ahalduntzea tresna horiek garatzeko eta hedatzeko.

Eskualdeko Batzorde Soziosanitarioen funtzionamenduari dagokionez, COVID-19aren pandemiak horien funtzionamendu-dinamikan duen eragin negatiboa egiaztatu da. Larrialdi sanitarioko egoerak eraginda, erakunde askok bertan behera utzi behar izan zituzten batzorde soziosanitario horiek.

Halaber, azpimarratu behar da ezen, hiru lurralde historikoen artean banatutako 15 esparru-protokolo zenbatzen diren arren (Arabak protokolo bakarra du; Bizkaiak 8, eta Gipuzkoak 6), erdiak baino gutxiagok dituela inplikaturako erakundeen ordezkaritza-organo juridikoki baliodunen sinadurak. Hau da, tartean dauden erakundeek ez dituzte protokolo gehienak sinatu. Horrela, protokoloen betetze-maila oso eskasa da; izan ere, sinatuz gero, alderdiek hartutako konpromisoa

	<p>berretsi eta dokumentua legitimatzen da, eta, ondorioz, baita bertan ezarritako koordinazioa ere. Antzeko zerbait gertatzen da koordinazio-prozedurekin, baina sinatu gabekoen ehunekoa nabarmen txikiagoa da (% 28 bakarrik). Esparru-protokoloen eta koordinazio-prozeduren azterketan identifikatutako beste oztopo garrantzitsu bat da dokumentuak zaharkituta geratu direla; horrek adierazten du ze gutxi erabili diren, eta ze gutxi egokitu diren urteek aurrera egin ahala arreta soziosanitarioko behar eta aldaketetara. Azkenik, azterketak erakusten du batzordeen bilkurak apenas erabili direla koordinazio-protokolo edo -prozedura berriak egiteko, daudenak gainbegiratzeko edo eguneratzeko, eta lurralde- edo autonomia-proiektuak abian jartzeko.</p> <p>Hala ere, <u>Eskualdeko Batzorde Soziosanitario Euskadiko gobernantza soziosanitarioari buruzko abenduaren 7ko 150/2022 Dekretua</u> eta Eskualdeko Batzorde Soziosanitarioen erreferentziatzeko profesionalen banaketa paritarioa onartu denez, espero da partaidetza handiagoa, batez ere, udalen eremuan.</p> <p>Halaber, II. Topaketa Soziosanitarioan koordinazio-tresnei buruzko hitzaldiak, batez ere, hobetzeko arlo gisa adierazitako alderdienak, elementu horien kalitatea eta funtzioa hobetzen laguntzea espero da.</p> <p>Pilotuen hedapenari dagokionez, informazio hori eranskinean zehaztu da.</p>
<p>Proiektuaren balizko onurak (zuzenekoak eta zeharkakoak)</p>	<p>EAEko erakunde sanitario eta sozialetan erreferente soziosanitarioaren figura hedatzeak honako arlo hauetan lagunduko duela uste dugu: sistema desberdinetako profesionalen arteko koordinazioa hobetzen, talde soziosanitarioetako profesionalen arteko komunikazioa eta konfiantza-harremanak sustatzen, zaintza partekatuen dinamika indartzen, hutsune asistentzialak murrizten eta arreta soziosanitario eraginkorragoa bultzatzen.</p> <p>Diagnosi-txostenari dagokionez, espero da hobetzeko alderdien eta gomendioen hedapena lagungarria izatea ikasteko eta tresnen birformulazioa sustatzea edo laguntzea tresna berriak prestatzen, behar soziosanitario berriei erantzun koordinatua eta efektiboa eman ahal izateko.</p> <p>Pilotuen hedapenari dagokionez, informazio hori horretarako prestatutako eranskinean zehaztuta dago.</p>

<p>Beste alderdi batzuk (baloratzeko):</p> <ul style="list-style-type: none"> - Espero den bilakaera - Ahuleziak, mehatxuak, indarrak eta aukerak identifikatzea - Oharrak 	<p>Erreferentearen figuraren hedapenaren garapena egokia izaten ari da. Lehen mailako arreta soziosanitarioa indartu egin da gaitutako eta egituratutako erreferentziazko profesionalen sare baten bidez, premia soziosanitario berriei erantzun koordinatuagoa emateko. Eta hobetzeko elementuak badaude ere, uste da figura horrek funtsezko eginkizuna izango duela gaur egungo erronka soziosanitarioei erantzuteko, bereziki zainketa-eredu berri baterako trantsizioari lotutako erronkei erantzuteko.</p> <p>Koordinazio-tresnei dagokienez, komeni da adieraztea batzuetan nahasmena sortzen dela esparru-protokoloak eta koordinazio soziosanitarioko prozedurak behar bezala bereizteko. Era berean, egungo esparru-protokoloen eta koordinazio-prozeduren eguneraketa ezak agerian jartzen du hobetu egin behar dela horretan, erakunde bakoitzaren barne-aldaketek eta kanpo-faktoreek protokoloetan jasotako prozesuak eta profesionalak berrikustea eta egokitzea beharrezkoa dute eta.</p> <p>Ildo horretan, 2022an <u>Euskadiko gobernantza soziosanitarioari buruzko abenduaren 7ko 150/2022 Dekretua</u> onartu izana aukera gisa aurkeztu zen, bereziki, eskualdeko batzorde soziosanitarioen ekarpenei dagokienez, koordinazio-tresnak sortzeko eta hobetzeko foro teknikoa direnez. Halaber, 2022ko diagnosi-txostenaren aurkezpena eta argitalpena lagungarria izan daiteke koordinazio-prozedurak eta protokoloak argitzeko eta praktikoki aplikatzeko.</p>
--	--

11. Arreta soziosanitarioaren xede-kolektiboen jarduketak	
Proiektuaren egoera	<p>2023an, xede-talde soziosanitarioei aurkeztutako jarduketak soilik izan dira bileretan eta beste foro tekniko batzuetan parte hartzea. Arreta Soziosanitarioko Zuzendaritzaren denbora-faltak eta baliabide teknikoek kopuru eskasak azaltzen dute ekintza eta ekimen zehatzik ez egon izana.</p> <p>Dena den, 2023an abiarazitako zenbait jarduketa nabarmendu daitezke (edo laster hasiko direnak), mendekotasun egoeran dauden adinekoei eta osasun mentaleko arazoak dituzten pertsonen arreta koordinatua eskaintzekoak.</p> <p>Adinekoen kasuan, 2023ko ekainean EAEko zentro soziosanitarioetan bizi diren adinekoek dituzten beharrei erantzuteko osasun-laguntza ereduari heltzeko proiektu bat abiarazi zuten. Parte hartzen duten erakunde eta eragile guztien artean koordinatutako eta adostutako egoitza-arreta eredu bat definitzea da helburua, adinekoak eta horien familiak jarduketen muinean jartzeko eta horien bizi-proiektua errespetatzeko. Bi bilera izan dira (2023ko uztailan eta urrian).</p>
Proiektuaren hasiera-data	2023ko ekaina.
Lantaldea	<ul style="list-style-type: none"> • Euskadiko Koordinazio Soziosanitarioko Taldea. • Arabako lurralde-koordinatzaile soziosanitarioa. • Bizkaiko lurralde-koordinatzaile soziosanitarioa. • Gipuzkoako lurralde-koordinatzaile soziosanitarioa. • Barrualde-Galdakaoko ESiko berdintasun-erreferentea. • Bilbo-Basurtuko ESiko Arreta Integratuko Zuzendaritza eta erreferente soziosanitarioa. • Bizkaiko Foru Aldundiko Iraupen Luzeko Zaintzen teknikaria. • Debarreneneko ESiko berdintasun-erreferentea. • Donostialdeko ESiko Erizaintzako zuzendariordea eta erreferente soziosanitarioa. • Goierri-Urola Garaiko ESiko integrazio asistentzialaren koordinazioa eta erreferente soziosanitarioa. • Goierri-Urola Garaiko ESiko etxeko ospitalizazioa eta egoitzetarako erreferente medikoa. • Erizaintzako Zuzendariordea, Osakidetzako Zuzendaritza Nagusia. • Lehen Mailako Arretako Zuzendariordea, Osakidetzako Zuzendaritza Nagusia. • Erreferente soziosanitarioa, Gasteizko Udala. • Ostatu publikoen arduraduna, Gasteizko Udala.

<p>Proiektuaren helburua(k)</p>	<p>Parte hartzen duten erakunde eta eragile guztien artean koordinatutako eta adostutako arreta eredu bat definitzea da, EAEko egoitzetan bizi diren adinekoen behar sozialei eta sanitarioei erantzun ahal izateko.</p> <p>Helburu espezifikoak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Egoitzak Osakidetzarekin eta Gizarte Zerbitzuekin koordinatzean ageri diren zailtasunak identifikatzea. • Arreta eta zaintzaren ereduko egungo erronka nagusiak zehaztea (pandemia ostean). • Osakidetzak egoitzei farmazia-produktuak emateko modua hobetzea. • Elkarreragingarritasun soziosanitarioak egoiliarren arretarako eskaintzen dituen aukerak aurreratzea.
<p>Aurrekariak</p>	<p>Proiektu honek 2017. urtean egindako dokumentu bat du oinarri, EAEko egoitzetan osasun-laguntza emateko eredu bat zehaztera zuzenduta. 2023an, lan hau sortzea sustatu zuten iraupen luzeko zainketen eskaera gero eta handiagoak, erabiltzaileen profilen konplexutasun handiak, baliabideen eskasiak eta COVID-19aren pandemiaren laztasunak zaharren egoitzetan. Helburua profesionalen eta adituen arteko eztabaida sortzea da, eta, horretan oinarrituta, EAEko egoitzetan ematen den arretaren erronka nagusiak identifikatzea eta horietatik deribatutako lan-ildoak planifikatzea.</p>
<p>Lan-metodologia</p>	<p>Lan-metodologiak honako zeregin hauek jaso zituen:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Profesional adituek edo egoitzetako arretan zein aztergai den taldearen gainean ardura duten profesionalak osatutako talde eragilea sortzea. • Bilera teknikoak egitea. • Dokumentazio teknikoa prestatzea eta zabaltzea (aurkezpena, adierazleak, aktak, informazioa biltzeko galdera-sortak). • Proiektua zehaztu eta garatzeko idazkaritza teknikoa. • Dagoen informazioaren analisi kuantitatiboa eta kualitatiboa.
<p>Egindako deskribapena</p>	<p>ekintzen</p> <ul style="list-style-type: none"> • Egoitzen arretan eta/edo parte hartzen duten instituzioetako adinekoen taldearen gainean ardura duten profesionalak osatutako taldea eratzea, planteamendu estrategikoan lider-funtzioak, xedeak lortzeko erantzukizunak eta erabakiak hartzeko ardura izango dituztenak. • Bilera teknikoak deitzea eta egitea egoitzekin koordinatzeko egungo egoerari heltzeko. • Proiektuaren proposamen teknikoa egitea. • Egoitzetako osasun-laguntzaren aginte-koadroaren proposamena zehaztea.

	<ul style="list-style-type: none"> • Informazioa jasotzeko galdera-sorta diseinatzea (egoitzekin koordinazioan aritu behar duten erreferente soziosanitarioei zuzendua). • Lantaldearen barruan sortutako dokumentazioa komunikatzea eta zabaltzea.
Jarduera-adierazleak (Ekintza, data, parte-hartzaileak, etab.)	<ul style="list-style-type: none"> • 2 bilera, aktarekin dokumentatuta. • 1 aurkezpen proiektuaren proposamen teknikoari buruz. • 1 dokumentu proposatutako adierazleekin. • 11 fitxategi egituratutako laguntza-datuekin (iturria: ASE). • 1 dokumentu esparru-protokoloen zerrendarekin eta koordinazio soziosanitarioaren prozedurekin, ESlek eta egoitzek sinatutakoak.
Proiektuaren aliantzak	<p>Proiektuaren testuingurua soziosanitarioa da argi eta garbi, non erakundearteko koordinazioa baita ardatz egituratzailea bermatzeko EAEko egoitzetan bizi diren mendeko adinekoen taldeko jarraitutasun asistentziala.</p> <p>Ildo horretan, horren garapenean parte hartu zuten Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailaren Arreta Soziosanitarioko Zuzendaritzak, Osakidetzaren Zuzendaritza Nagusiko Lehen Mailako Arretako eta Erizaintzako Zuzendariordetzek, foru-aldundiek, udaletako meso- eta mikro-mailetako arduradunek eta Osakidetzako Erakunde Sanitario Integratuek.</p>
Aurrerapen nagusiak eta arazo iraunkorrak	
Proiektuaren balizko onurak (zuzenekoak eta zeharkakoak)	
Beste alderdi batzuk (baloratzeko): <ul style="list-style-type: none"> - Espero den bilakaera - Ahuleziak, mehatxuak, indarrak eta aukerak identifikatzea - Oharrak 	Espero da hurrengo hiletan (2024) idaztea hasierako proposamen bat, jorratuko dituen egoitzetako arreta sanitarioaren ereduaren oinarritzko printzipioa eta ezarriko dituen asistentzia emateko oinarria. Asistentzia horrek bermatu beharko ditu erakunde guztiak eman ahal izateko zainketa soziosanitario iraunkorrak eta kalitatezkoak.
12. Arreta goiztiarra eta hezkuntzako eremu soziosanitarioa garatzea	
Proiektuaren egoera	Aribidean
Proiektuaren hasiera-data	2021eko urria
Lantaldea	<ul style="list-style-type: none"> • Euskadiko Koordinazio Soziosanitarioko Taldea. • Bizkaiko Foru Aldundia, Balorazio eta Orientazio Zerbitzuaren (BFA) eta Lantiken (BFA) bitartez. • Bilbo-Basurtuko ESla (Osakidetza) eta Ezkerraldea-Enkarterri-Gurutzetako ESla (Osakidetza), garapenaren pediatriako, jaioberriaren unitateko eta neuropediatriako zerbitzuetatik.

	<ul style="list-style-type: none"> • Bilboko Haurren eta Nerabeen Osasun Mentaleko Zentroa (Bizkaiko Osasun Mentaleko Sarea, BOMS-Osakidetza). • Haurren Osasun Programa (Lehen Mailako Arretako Zuzendariordetza, Osakidetzako Zuzendaritza Nagusia) • Informatikako Zuzendariordetza (Osakidetzako Zuzendaritza Nagusia)
Proiektuaren helburuak	Koordinazio soziosanitarioa eta hezkuntzako hobetzea eta EAEn premia bereziak dituzten haurrentzako arreta-eredua indartzea.
Aurrekariak	<p><u>Euskadiko Arreta Soziosanitarioko Lehenetsun Estrategikoen (2017-2020)</u> arabera, o eta 6 urte bitarteko haurren premia bereziei heltzea xede-kolektibo soziosanitario desberdinentzako asistentzia-ibilbide espezifikoak definitzearekin eta garatzearekin lotutako helburuetako bat zen, eta, azken batean, EAEn arreta goiztiarraren funtzionamendua hobetzeko formula.</p> <p>Arreta goiztiarrak o eta 6 urte bitartean garapen-premia bereziak dituzten haurren estimulazioa sustatzen du, eta, ondorioz, 0-6 urte bitarteko haurrei, haien familiei eta inguruneari zuzendutako esku-hartzeen multzoa da. Esku-hartze horien helburua da garapenean nahasmenduak dituzten edo izateko arriskua duten haurren premia iragankor edo iraunkorrei ahalik eta azkarren eta modu integralenean erantzutea, osasungintza-, hezkuntza- eta gizarte-arloetako diziplinarteko ikuspegi batetik.</p> <p>Bestalde, arreta soziosanitarioa eta hezkuntzako pediatria-adineko haurrek dituzten premia konplexuei erantzutera bideratzen da (6 urte bete ondoren).</p> <p>2010. urtean, <u>Euskal Autonomia Erkidegorako Arreta Goiztiarraren Eredua</u> onartu zen ASEKen. Dokumentu hori Euskal Autonomia Erkidegoko osasungintzako, hezkuntzako eta gizarte-zerbitzuetako ordezkariak egin zuten, eta arreta goiztiarraren etorkizuneko garapenerako oinarriak ezartzen ditu. Funtzionalki, Arreta Goiztiarreko Balorazio Lantalde (AGBL⁶) eta Arreta Goiztiarreko Esku-hartze Taldetan (AGET) dago egituratuta.</p>

⁶ AGBL kudeaketa publikoko kide anitzeko organoa da, arreta goiztiarraren arloan eskumena duen sailari atxikia, eta osasun-sistemako, hezkuntza-sistemako eta gizarte-zerbitzuen sistemako profesional adituz osatuta dago; koordinatuta dihardute kasuen balorazioan eta proposamen teknikoak egiteko garaian. AGBLan, horretarako izendatutako hiru sistemetako hainbat profesionalak parte hartzen dute, prozedurak, helburuak edo jarduketa-ildoak adosteko eta sistema bakoitzak proposatzen dituen kasuetan esku-hartzea kontrastatzeko eta zehazteko.

	<p>Araudiari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko arreta goiztiarreko esku-hartze integralari buruzko otsailaren 2ko 13/2016 Dekretuak oinarritzko arauak ezartzen ditu arreta goiztiarraren arloan Euskal Autonomia Erkidegoko osasunaren, hezkuntzaren eta gizarte-zerbitzuen eremuetatik garatzen diren esku-hartze guztiak antolatzeko eta koordinatzeko, zuzenean inplikaturako osasun-, hezkuntza- eta gizarte-zerbitzuen jarduketak behar bezala koordinatuko dituen eredu integral eta efikaz bat bermatze aldera.</p> <p>Arlo operatiboan, arreta goiztiarrak izaera mistoa eta diziplinartekoa du, eta osasungintza-, hezkuntza- eta gizarte-arloko profesionalak eta baliabideek esku hartzen dute bertan. Beraz, zerbitzu publikoen eskumenak eta prozedurak koordinatzea erronka handia da arreta optimizatzeko eta osagarria izateko (osasungintza / hezkuntza / gizarte-zerbitzuak).</p>
<p>Lan-metodologia</p>	<p>Erabilera-kasuan oinarritutako metodologiari lotuta dago (elkarreragingarritasun soziosanitarioaren garapena), eta sistema baten eta haren zerbitzuren bat erabiltzen duen norbaiten edo zerbaiten arteko elkarreragin-sekuentzia dakar. Kasu zehatz honetan, metodologiari dagokionez, osasun-eremuaren eta gizarte-zerbitzuen eremuaren arteko informazio-trukeak elektronikoki aztertuko dira, arreta goiztiarrearekiko koordinazioa optimizatzeko.</p>
<p>Egindako deskribapena ekintzen</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Gipuzkoako lurralde historikoko AGBTa eragile taldean sartzea. • Gipuzkoako AGBTak ekarpen osagarriak egitea Bizkaiko proposamenari eta horiek berrikustea. • Informazioa-trukatzeko eredu funtzionalaren baterako baliozkotzea. • Hezkuntza Sailaren informazio-sistemen analisi-saioak egitea (Eusko Jaurlaritza). • Informatika-zerbitzuekin hitz egiteko bideak ezartzea eta erakunde parte-hartzaile bakoitzaren informazio-sistemak egokitzeko zehaztaperen funtzionalak ematea.
<p>Jarduera-adierazleak (Ekintza, data, parte-hartzaileak, etab.)</p>	<ul style="list-style-type: none"> • 4 bilera, aktarekin dokumentatuta. • 1 proiektu-fitxa. • 1 proiektu-dokumentu. • 1 eredu funtzionalaren eguneraketa, lotutako datuak trukatzeko diagramekin. • 1 erabilera-kasuaren ebaluazioaren proposamenaren baliozkotze (eragile-taldearen konparaketatik abiatuta).

<p>Proiektuaren aliantzak</p>	<p>Eusko Jaurlaritzaren koordinazio soziosanitarioaren eremuan: Osasun Saila, Arreta Soziosanitarioko Zuzendaritzaren bidez, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailarekin, Familia Zuzendaritzaren bitartez.</p> <p>Arreta Goiztiarreko Erakundearteko Batzorde Teknikoak (Eusko Jaurlaritza) foru-aldundien eta Eusko Jaurlaritzaren (Osasun, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako eta Hezkuntza sailak) arteko lan bateratua eta adostasunezkoa eskaintzen digu.</p>
<p>Aurrerapen nagusiak eta arazo iraunkorrak</p>	<p>2023an, erabilera-kasuari lotutako eragile-taldean Gipuzkoako lurralde historikoa sartu zen, eta proposamen teknikoa osatu eta informazioa trukatzeko eredu funtzionala baliozkotu du.</p>
<p>Proiektuaren balizko onurak (zuzenekoak eta zeharkakoak)</p>	<p>Proiektu hau elkarreragingarritasunaren arloko erabilera-kasuetarako metodologiaren arabera ere garatu da, familiek arreta pertsonalizatuko plan partekatu bat eduki ahal izateko. Plan horretan, hiru eremuetako (soziala, osasuna eta hezkuntza) esku-hartzeak jasoko dira.</p> <p>Proiektuaren onura potentzialen artean, erabilera-kasuak ematen dituen aukerei estuki lotuta, honako hauek identifikatzen dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Arreta goiztiarreko zerbitzuen hornidura hiru eremuetako edozeinetatik has daiteke (osasungintza, gizarte-zerbitzuak edo hezkuntza), eta, horretarako, kasu guztiak identifikatu, eta kode bat eman behar zaie, arreta hasi den eremua edozein dela ere. Hasiera batean beste eremuren batean esku hartu behar ez bada, besteei jakinaraziko zaie, eskariaren plangintza eta familiekiko jarrera proaktiboa aurreikusita. • Familiek arreta pertsonalizatuko plan partekatu bat izatea, non hiru eremuetako bakoitzaren esku-hartzea adieraziko den. Beraz, foru-aldundiek onartzen dute arreta-planaren erreferentea direla, eta arreta sanitarioa plan horretan txertatzen dute. • Kasuak arreta-eremu batetik bestera bideratzeko (soziala, sanitarioa eta/edo hezkuntzakoa), beharrezkoa da informazioa trukatzeko, eta osasun-informazioa lortzea zaila denez, oso onuragarria izango da informazioa trukatzeko prozedura bat ezartzea.
<p>Beste alderdi batzuk (baloratzeko):</p> <ul style="list-style-type: none"> - Espero den bilakaera - Ahuleziak, mehatxuak, indarrak eta aukerak identifikatzea - Oharrak 	<ul style="list-style-type: none"> • <u>13/2016 Dekretua, otsailaren 2koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Arreta Goiztiarreko Esku-hartze Integralari buruzkoa</u>, arau-esparru bat da arreta goiztiarreko esku-hartze integraleko eredu baterako, eta haren kalitatea eta efikazia bermatzen ditu. • Proiektua parte hartzen duten eragileen baliabide informatikoen eskuragarritasunaren arabera da,



	<p>haien informazio-sistemak egokitzeko. 2023an, informatika-zerbitzuekin komunikatzeko kanalak ezarri ziren, erakunde parte-hartzaile bakoitzaren informazio-sistemak egokitzeko, eta lan egin zen informatika-zerbitzuek lehentasunak ezarri ahal izateko informazio-sistema korporatiboen egokitzapenean, zehaztutako eredu funtzionalaren arabera, eta elkarreragingarritasun-puntuak garatzeko.</p> <p>Hala, espero da beste elkarreragingarritasun-proiektu batzuen lan-planean lehentasunak ezartzea lagungarria izatea arreta goiztiarraren markoan elkarreragingarritasuna sustatzen (esaterako Gizarte eta Osabideren arteko interkontsulta soziosanitarioa, 2024ko lehen sei hilekorako zehaztua).</p>
--	---

6. I+G+B SOZIOSANITARIOA

I+G+B SOZIOSANITARIOA	
Arloaren helburua	<p>EAEko ekosistema soziosanitarioan <i>Euskadiko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planaren</i> esparruan bultzatzen da I+G+Ba, gizarte berdeago, digitalago eta inklusiboago baterantz aurrera egiteko apustu gisa.</p> <p>Ekosistema soziosanitarioan sortu eta handik bultzatutako ezagutza sortzeko eta zabaltzeko konpromisoaren adierazpena da arloa.</p> <p>Helburu horrekin, I+G+Baren aldeko apustua hiru proiektutan gauzatzen da:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1.1. Arreta soziosanitarioaren ataria. Ezagutza sortzea eta hedatzea. 1.2. I+G+B soziosanitarioaren arloko politikei eta ekimenei buruzko erreferentzia-nodoa. 1.3. Ekosistema soziosanitarioaren oinarrietatik berrikuntza- eta ikerketa-proiektuak sustatzea.
13. Arreta Soziosanitarioaren Ataria. Ezagutza sortzea eta hedatzea	
Proiektuaren egoera	Aribidean
Proiektuaren hasiera-data	Jarraitutasun-proiektu bat da, 2016ko apirilean Arreta Soziosanitarioaren Ataria sortu eta argitaratzearekin hasi zena, eta ordutik garatzen ari da, batez ere albisteen, ekitaldien eta dokumentazioaren ataletan edukiak astero sortzeari eta argitaratzeari dagokionez.
Lantaldea	<ul style="list-style-type: none"> • Euskadiko Koordinazio Soziosanitarioko Taldea. • Herritarrak Hartzeko eta Zerbitzu Digitaletako Zuzendaritza (Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila, Eusko Jaurlaritza). • Hizkuntza Normalizazioko Zerbitzua (Osasuneko Lurralde Ordezkaritzak, Eusko Jaurlaritza). • Informazioaren Antolaketa eta Sistemak Eremua (Osasun Saila, Eusko Jaurlaritza).
Proiektuaren helburuak	<ul style="list-style-type: none"> • Sistema soziosanitario osoarentzat interesgarriak diren ekimenei buruzko informazioa zabaltzea Arreta Soziosanitarioaren Atariaren bidez, erreferentziako erakunde-gune gisa. • EAEko eremu soziosanitarioko informazio-erreferente instituzionala izaten jarraitzea.
Aurrekariak	Proiektu honen hastapenak Arreta Soziosanitarioaren Ildo Estrategikoetan (2013-2016) daude. Dokumentu estrategiko horrek, 2. lerroko (<i>Informazio eta Komunikazio Soziosanitarioko Sistema</i>) helburuen artean, web-atari bat diseinatu eta abian jartzea jaso zuen, horren bidez aurkezteko atari horretan EAEko

	<p>arreta soziosanitarioari buruzko informazio estrategikoa, egungo gaiei buruzko informazioa eta garatutako proiektuei buruzkoa, bai eta EAEko herritarrei arreta soziosanitarioa emateko baliabideei buruzko zerbitzu-informazioa (aurrerantzean, 2016ko Mapa, 2021eko Mapa eta 2023ko Mapa).</p> <p>2016ko apirilean lehen aldiz argitaratu zenetik, proiektuak bilakaera izan du bai edukien bolumenari bai argitalpenen maiztasunari dagokionez, eta informazioa eguneratzeko prozesuei ekin zaie hainbat ataletan.</p>
<p>Lan-metodologia</p>	<p>2023an, funtsezko lau lan-ildo garatzen jarraitu zen:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Informazioa eta dokumentazioa bilatzea, atariko albisteen, agendaren ekitaldien eta dokumentu-erreferentzien ataletan edukiak sortzeko eta zabaltzeko oinarri gisa. • Atariaren edukiak eguneratzea, 2021-2024 aldirako EASEan aurreikusitako jarduketa-eremu eta proiektuen garapenaren ondoriozko informazio estrategikoa zabaltzeko. • Atariko edukien tratamendua berrikusteko eta estandarizatzeko prozesuarekin jarraitzea, argitaratutako erreferentziei etiketa elebidunak esleituz. • Informazioa eta dokumentuak berrikustea, datuak araztea, informazioa baliabideen titularrekin kontrastatzea eta 2021eko Mapako datu-etaulak zuzentzea eguneraketa argitaratzeko 2023ko Maparekin.
<p>Egindako ekintzen deskribapena</p>	<p>Arreta Soziosanitarioiko Atariak EAEko eremu soziosanitarioko informazio-erreferente instituzionala izaten jarrai dezan, 2023an prospektiba eta zaintza estrategikoko jarduerak egin ziren, argitara daitezkeen erreferentziak identifikatze aldera.</p> <p>Era berean, edukiak astero argitaratu dira atariko hainbat eremutan.</p> <p>2023an, Arreta Soziosanitarioiko Atariaren edukien edizioari eta kudeaketari lotutako helburuak lortzeko 2022an egindako lanen azterketa argitaratu zen. Bertan, web-posizionamenduaren (SEO) ebaluazioa ere jaso zen, bai eta Arreta Soziosanitarioiko Atariaren nabaritasuna, sarean duen egoera eta proiektzioa baloratzeko, eta, hedaduraz, atariko eduki digitalek EAEko ekosistema soziosanitarioko eragileentzat zer interes- eta erabilgarritasun-maila duten baloratzeko. Era berean, azken hiruhilekoan, Arreta Soziosanitarioiko Atariaren inguruan 2023an egindako lanen azterketa osatu zen, eta <i>Arreta Soziosanitarioaren Atariaren edukien edizioari eta kudeaketari, nabaritasunari eta posizionamenduari buruzko Txostena (2023)</i> egin zen.</p> <p>2023an jarraitu zen Arreta Soziosanitarioiko Buletina hedatzen (22., 23., 24. eta 25. zenbakiak). Arreta Soziosanitarioiko Zuzendaritzak sortzen du, Antolaketa eta Sistemak Eremuaren babes teknikoaz (Osasun Saila, Eusko Jaurlaritza), eta Mailrelay buletina zabaltzeko plataforma gisa (2022ko irailetik). Oro har,</p>

	<p>hedapen-prozesu baten emaitzak (bidalitako elementua zenbatetan ireki den) % 20tik gorakoak direnean, onargarriz jotzen da. Buletinaren hiruhilekoko lau bidalketen irekiera datuen arabera, adierazle horren datuak % 25 eta % 29 artekoak izan ziren 2023an. Mailrelay hedapen-plataforma gisa erabiltzeak abantailak ditu buletin bidalketan jasotzen den informazioari dagokionez (22., 23., 24. eta 25. zenbakiak). Hedapen-zerrendan dauden okerreko helbideak identifikatzeko eta garbitzeko aukera planteatzen da (ekosistema soziosanitarioko 2.900-3.000 erakunde eta profesional baino gehiagoren helbide elektronikoek osatzen dute).</p> <p>Halaber, 2023an jarraitu zen atariko edukien tratamendua berrikusteko eta estandarizatzeko lana egiten; horretarako, etiketak esleitu zitzaizkien, hiztegi elebidun kontrolatu bat izateko, bilaketen bidez edukiak berreskuratzea eta horiek posizionatzea hobetzeari begira. Horretarako, katalogo elebidun bat osatu zen; 900 termino baino gehiagorekin.</p> <p>2023an berriz eguneratu eta akatsak zuzendu ziren Baliabide Soziosanitarioen Mapa elikatzen duten datu-etaulak. Horretarako, datuak bidali zitzaizkien 2021eko Mapan bildutako baliabideen titularrak ziren erakundeei, berrikus zitzaaten eta balizko aldaketak jakinaraz zitzaaten, edota desagertuta zeuden edo berriak ziren baliabideen berri emateko. Ondoren, datu-etaulak aldatu ziren Arreta soziosanitarioaren atariaren kudeatzailean, 2021eko taulak 2023ko Mapako taulekin ordeztuz (2023ko abendurako proiektatua).</p>
<p>Jarduera-adierazleak (Ekintza, data, parte-hartzaileak, etab.)</p>	<p>Proiektuaren jarduera-adierazle nagusiak honako hauek dira: argitaratutako edukien kuantifikazioa; eduki horien emaitzak, Arreta Soziosanitarioko Atarian duten posizionamenduari, nabaritasunari eta kontsumoari dagokienez; ASBren hedapena eta horrek atariaren posizionamenduari eta nabaritasunari egiten dion ekarpena, eta EASE 2021-2024 garatzen ari den eremuak eta proiektuak hedatzeko ekintzak. Hori guztia honako hauetan zehazten da:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Arreta Soziosanitarioaren Atariaren edukien edizioari eta kudeaketari, nabaritasunari eta posizionamenduari buruzko Txostena (2022) argitaratzea (2023/02/06). • EASEren esparruan abian diren proiektu soziosanitarioei buruzko eduki estrategikoak dituzten atalak eguneratzea (2023). • Katalogo elebiduna osatzen duten terminoak gehituz eta kenduz argitaratutako edukien tratamenduaren berrikusketa eta homogeneizazioa (2023an: 900 erabilera-termino etengabeko eguneratzen diren edukia etiketatuz). • Argitalpenen hileko programazioa.

	<ul style="list-style-type: none"> • 52 mezu idaztea, Lurraldeko Koordinazio Soziosanitarioko arduradunei eta Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailari (Eusko Jaurlaritza) astero eduki berriak helarazteko. • 52 albiste idaztea eta argitaratzea 2023an. • 250 erreferentzia dokumental baino gehiago hautatzea eta argitaratzea 2023an. • 300 agenda-erreferentzia baino gehiago hautatu eta argitaratzea (ekitaldiak) 2023an. • Udako ikastaroei dagozkien 116 agenda-erreferentzia baino gehiago hautatzea eta argitaratzea (ekitaldiak) 2023an. • Arreta Soziosanitarioko Buletinaren hiru hilekoko 4 zenbaki prestatzea (22., 23., 24. eta 25. zenbakiak). • Arreta Soziosanitarioko Buletina hiru hilean behin 2.900-3.000 helbidetara bidaltzea. • Arreta Soziosanitarioko Buletina hiru hilean behin bidaltzen zaian 2.900-3.000 pertsona eta erakunde harpidedunen zerrenda araztea eta etengabe eguneratzea. • Plan eta proiektuei buruzko informazioa eguneratzea (2023). • Baliabide soziosanitarioei buruzko txosten analitikoak, Open Datan argitaratua (2023/11/02), Herritarrak Hartzeko eta Zerbitzu Digitaletako Zuzendaritzak emana (Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila, Eusko Jaurlaritza). • Web-erabilerraztasunari buruzko txostena, emaitza onak dituen (egokitasun-maila ona) (2022/11/06), Antolaketa eta Sistemak Eremuko profesionalek emana (Osasun Saila, Eusko Jaurlaritza). • <i>Arreta Soziosanitarioaren Atariaren edukien edizioari eta kudeaketari, nabaritasunari eta posizionamenduari buruzko Txostena (2023) egitea.</i> • 2021eko maparen edukiak berrikustea eta baliabide soziosanitarioen definizioa egokitzea Baliabide Soziosanitarioen Katalogoaren edukietara (2023ko irailetik abendura). • Baliabide Soziosanitarioen Mapa elikatzen duten datu-tauletan eguneraketa berria eta akatsen zuzenketa, 2021eko taulak 2023ko Mapako taulekin ordeztuz (2023ko abendurako proiektatua).
<p>Proiektuaren aliantzak</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Herritarrak Hartzeko eta Zerbitzu Digitaletako Zuzendaritzaren (Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila, Eusko Jaurlaritza) lankidetzak tekniko-informatikoa atariko eduki estrategikoak eguneratzeko prozesuetan, bai eta edukiak argitaratzean sortzen diren gorabeherak kudeatzean ere. • Antolaketa eta Sistemak Eremuko (Osasun Saila, Eusko Jaurlaritza) profesionalen lana buletin bidalketa kudeatzeko lanetan eta hedapen-prozesuen analisisian, baita Arreta soziosanitarioaren atariak Interneten duen posizionamendua ebaluatzea ere.

	<ul style="list-style-type: none"> • Hizkuntza Normalizazioko Zerbitzuko (Osasun Lurralde Ordezkaritzak, Eusko Jaurlaritza) teknikari-informatikarien laguntza, atariko edukiak berrikusi eta homogeneizatzeko, bai eta argitaratutako edukiak euskaraz tratatzeko ere. • Herritarrak Hartzeko eta Zerbitzu Digmaletako Zuzendaritzaren (Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila, Eusko Jaurlaritza) lankidetzan tekniko-informatikoa atariko eduki estrategikoak eguneratzeko prozesuetan, bai eta edukiak argitaratzean sortzen diren gorabeherak kudeatzean ere. • Baliabide Soziosanitarioen Mapan sartutako baliabideen titular diren erakunde eta instituzioetako pertsonak, lagundu zutenak datuak eguneratzen eta oso ezberdinak ziren zerbitzuak aurkezteko eskema homogeneizazio-prozesuan. • Herritarrak Hartzeko eta Zerbitzu Digmaletako Zuzendaritza (Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila, Eusko Jaurlaritza) eta horren mendeko profesionalak -Bilbomática-, lagundu dutenak 2023ko Baliabideen Mapako datuen tratamendu informatikoan, eguneraketan eta argitalpenean.
<p>Aurrerapen nagusiak eta arazo iraunkorrak</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Argitaratutako edukien tratamendua berrikusteko eta homogeneizatzeko prozesuaren eraginez, katalogo elebidun bat sortu da; edukien etiketatik erabilitako 900 terminoz osatu da hori. Horri esker, hiztegi kontrolatua izango dugu, eta kontzeptu bat modu unibokoan adierazten duten termino normalizatuak erabili ahaliko ditugu aurkibide gisa. Azken batean, prozesu horrek honako hauek lortzen laguntzen du: <ol style="list-style-type: none"> a) Argitaratutako edukiak etiketatzeko zereginak hobetzea. b) Arreta Soziosanitarioko Atariaren edukiak web ingurunean hobeto kokatzea. c) Argitaratutako edukiak ahalik eta modu efizienteenean berreskuratzea. • Mailrelay ASBren hedapen-plataforman gisa sendotu izana 2023an aukera bat da bidalketa bakoitzaren gauzatzeari buruzko informazioa eskuratzeko eta hedapen-zerrendako helbide okerrak identifikatzeko eta arazteko (ekosistema soziosanitarioko 2.900-3.000 erakunde eta profesional baino gehiagoren helbide elektronikoz osatua). ASB hedatzeko prozesu bakoitzaren ondoren, ez entregatzeko zailtasunak identifikatzen dira, «entregatu gabe» sailkatzen direnak. Hiru hilean behin, helbide-zerrenda berrikusten eta arazten da. Horren emaitza da domeinuen eguneraketa, kontuen egiaztatzea eta helbide okerrak edo erretiratutako profesionalena ezabatzea, oker guztiak konpondu arte. 2023ri dagozkion hiru hilean behingo prozesu horiek guztiak jarraipen-txosten bana dute (4), ASBren hedapen-prozesu bakoitzaren osteko. • Argitaratzeko kudeaketa egokia ziurtatuta dago, aintzat hartuta Arreta Soziosanitarioko Atariaren Google.es-en posizionamenduaren emaitzak (2023an «atención

	<p>sociosanitaria» terminoa-ren bilaketa zortzigarrena da mahaigaineko ordenagailuetan eta seigarrena gailu mugikorretan), Euskadiko ekosistema soziosanitarioko agenteen iruditerian lortutako proiektzioa eta web-erabilerraztasuneko irizpideekiko betetze-mailak. Hala, web-posizionamenduko estrategiak (SEO) ataria informazio estrategiko, gaurkotasun-informazio edo zerbitzu publikoaren informazio bila bisitatzen dutenen fideltasun-mailari eustea lortu zuen 2023an.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Arreta Soziosanitarioko Buletinek Arreta Soziosanitarioaren Ataria ezagutarazten eta atariko ezagutza sustatzen jarraitzen dute pertsona eta erakunde harpidetu berrietara iritsiz; beraz, gero eta gehiago dira Arreta Soziosanitarioaren Atariko eduki digitalak ezagutzen dituzten pertsonak eta horien kontsumitzaileak. • Egiaztatu denez, zaila da profesionalen datu-basea eguneratuta edukitzea; izan ere, profesionalen txandakatze handia dago gizarte-zerbitzuetan eta osasun-arloan, eta <i>baby boom</i>-ean jaiotako profesionalen gero eta erretiro gehiago erakundeetako plantilletan. Hedaturaz, zaila da ASB bidaltzen den base sozialari eustea; izan ere, buletina hiru hilean behin 2.900-3.000 hartzailearengana helarazten da. • Baliabide Mapa berrikusteko eta eguneratzeko prozesuak (2021 eta 2023) agerian jarri zituen baliabide soziosanitarioen eskaintzaren aldaketei eragin dieten aldaketak eta, ondorioz, zer zaila den etengabeko ikuspegia izatea horien ezaugarriei eta banaketari buruz Euskadiko ekosistema soziosanitarioan. • 2023an, atarian argitaratutako edukiak kontsumitu ohi dituen publiko fidela dagoela egiaztatu zen (goranzko portaerarekin). Atarian hilean 2.937 bisita izaten dira, eta edukiek batez beste 5.299 bisita jasotzen dituzte hilean.
<p>Proiektuaren balizko onurak (zuzenekoak eta zeharkakoak)</p>	<ul style="list-style-type: none"> • 2021-2024 aldirako EASEan jasotako proiektu estrategikoei buruzko edukiak eguneratzeak lagundu egiten du konpromiso estrategikoen garapenean egiten diren aurrerapenen justifikazio publikoa eta gardena egiten. • Hiztegi kontrolatu bat edukitzeak, termino normalizatuen aurkibide gisa, Arreta Soziosanitarioko Atariak web-ingurunean dituen edukien posizionamendua hobetzen laguntzen du, eta argitaratutako edukiak modu efizienteagoan berreskuratzen laguntzen du. • Arreta Soziosanitarioko Atariak sendotu egin du informazio estrategikoa eta instituzionala, gaurkotasuneko edo zerbitzu publikokoa kontsultatzeko erreferentziako gune gisa duen izaera eta garrantzia. • Arreta Soziosanitarioko Zuzendaritzaren hedapen-prozesuaren garapenak normalizatu egiten du hari esleitutako lanaren garapena, Osasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko 116/2021 Dekretuaren arabera.

	<ul style="list-style-type: none"> Baliabideen Mapa berrikusita eta eguneratuta, aurreko bertsioko informazioa zuzendu eta eguneratu ez ezik (2021eko Mapa), Euskadiko baliabide soziosanitarioen eskaintzak izandako aldaketak ere islatzen dira.
<p>Beste alderdi batzuk (baloratzeko):</p> <ul style="list-style-type: none"> - Espero den bilakaera - Ahuleziak, mehatxuak, indarrak eta aukerak identifikatzea - Oharrak 	<ul style="list-style-type: none"> 2024ko urtarrilean izango dugu atariaren jarduerari eta posizionamenduari buruzko urteko txostena (2023). 2023an ASB 2.900 helbide baino gehiagori helaraztea lortu zen. ASBren arrakasta, neurri handi batean, hedapen-prozesuaren ezaugarriengatik izan da. Posta bidez helarazten da, eta bi fitxategi elebakar eranstean zaizkio (bata euskaraz eta bestea gaztelaniaz), zeinetan buletinaren edukiak pdf formatuan jasotzen baitira (beste ekimen batzuek ez bezala, horiek edukiak online banatzea eta edukiak html formatuan maketatzea aukeratzen baitute). <i>Google.es</i> webgunearen posizionamenduari dagokionez, 2023an ataria laugarren postutik zortzigarreneara jaitsi zen mahaigaineko ordenagailuetan eta laugarrenetik seigarreneara gailu mugikorretan («Atención sociosanitaria» terminoaren bilaketetan). Aurreko ekitaldietan ez bezala (2021 eta 2022), «Atención Sociosanitaria» terminoaren posizionamendu-analisiari dagokionez, 2023an lehen seizazpi posizioetan instituzioen ekimenak agertu ziren, Arreta soziosanitarioaren atariaren beraren aurretik, hain zuzen, Kataluniako Generalitatearenak edota Bizkaiko Foru Aldundiarenak. Horien edukien ikuspegia Arreta soziosanitarioaren atarikoaren antzekoa bada ere, lurralde-eremua eta hartzaileak Bizkaikoaren kasuan partzialki partekatutak dira eta Kataluniako kasuan ezberdinak. Horrenbestez, ez dira zuzeneko lehiakideak; zerbait izatekotan, proposamen sinbiotikoak dira. Beraz, esan daiteke 2023an <i>Google.es</i> nabigatzaileko posizionamendu-emaitzak okerragoak izateak ez duela adierazten proiektuak proiektzioa galdu duenik (hileko bisita-kopuruak eta eduki-kontsumoak 2022koen antzekoak dira), baizik eta ekimen digitalak areagotu direla, bai publikoak (instituzionalak eta helburu dutenak dibulgazioa, informazioa eta/edo prestakuntza), bai pribatuak (zerbitzu soziosanitarioak eta/edo prestakuntza ematen duten enpresak). Baliabide soziosanitarioei zein sektore soziosanitarioko enplegarritasun-aukera berriei buruzko informazioa bilatzen dutenen interesak eta beharrak erantzuten dituzte.
<p>14. I+G+B Soziosanitarioaren arloko politikei eta ekimenei buruzko erreferentzia-nodoa</p>	
<p>Proiektuaren egoera</p>	<p>Aribidean</p>
<p>Proiektuaren hasieradata</p>	<p>2021eko iraila</p>
<p>Lantaldea</p>	<p>Euskadiko Koordinazio Soziosanitarioko Taldea.</p>

Proiektuaren helburuak	Berrikuntza eta ikerketa soziosanitario oinarrikoaren eta aplikatuaren arloko erreferentziako nodo bat antolatzea, I+G+B soziosanitarioko politikari eta ekimeneri buruzko informazioa biltzeko.
Aurrekariak	<p><u>Euskadiko Arreta Soziosanitarioaren Lehenetsun Estrategikoek (2017-2020)</u> 6. lehenetsuna berrikuntza-gune bat sustatzera bideratu zuten, eremu soziosanitarioan ezagutza sortzeko eta hura transferitzeko.</p> <p>I+G+B arloko ekimenak eta politikak identifikatzeak aukera ematen du esparru soziosanitarioan erreferente diren eragile eta erakundeen artean baliozko informazioa sarean trukitzea sustatzeko.</p>
Lan-metodologia	<ul style="list-style-type: none"> • Ikerketa eta garapenerako elkarlaneko zeharkako proiektu traktoreak diseinatzeko laguntzen deialdira aurkeztutako proposamen teknikoak ebaluatzea, zahartze osasuntsuaren arloko Zeharkako Trakzio Ekimenen markoan.
Egindako ekintzen deskribapena	<ul style="list-style-type: none"> • BFAREN NICek antolatutako <u>"Longevity Economy and Care Economy-Longebitatearen Ekonomia eta Zaintzen Ekonomia"</u> ikastaroan parte hartzea (2023/01/30-31). • BFAREN NICek antolatutako <u>«NIC Topaketa: Longebitatearen Ekonomia eta Zaintzen Ekonomia»</u> topaketan parte hartzea (2023/02/01). • Longebitatearen eta zahartzearen gaineko foroan parte hartzea (NIC-BFA) (2023/02/23). • Zahartze osasuntsuaren gaietako zeharkako proiektu traktoreak ebaluatzearen erakundearen parte hartzea, Osasun Sailburuordetza ordezkatzuz (Osasun Saila, Eusko Jaurlaritza). • <u>«Bakardadeak: detekzioa eta esku-hartzea» topaketan</u> parte hartzea, Eusko Jaurlaritzaren Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila (2023/05/18). • <u>«Etika eta Gizarte Zerbitzuen XII. Jardunaldia: Etika profesionala eta antolamendukoa, zaintzen eta justiziaren artekoa»</u> jardunaldian parte hartzea, AFA (2023/09/26). • <i>El futuro de los cuidados 2040 en el entorno comunitario (en las zonas transfronterizas de Euskadi, Navarra, Nueva Aquitania y Occitania)</i> azterlanean parte hartzea, Eusko Jaurlaritzaren Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzak zuzendutakoa, Next Generation Europako funtsei esker (2023/10). • Eusko Jaurlaritzaren Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren <u>«Zaintzen aldeko Euskal Ituna eraikitzen» Zaintzari buruzko Kongresuko</u> antolaketa-batzordearen parte hartzea, baita kongresuko saioetako batean ere (2023/11/15-16). • Eusko Jaurlaritzaren Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak antolatutako «Bizitza-luzetasunean

	<p>Berrikuntza Politikak, Tresnak eta Etorkizuna» NEXT-CARE II. Topaketan parte hartzea (2023/11/28).</p> <ul style="list-style-type: none"> • «Osasunetik, egin bat! Emakumeen eta haien seme-alaben aurkako indarkeriaren prebentzioan inbertitu» genero-indarkeriari buruzko XI. jardunaldian parte hartzea (2023/12/15). • Eusko Jaurlaritzaren Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren Next-Care mugaz gaindiko poloaren batzorde eragilean parte hartzea (2023). • Pasaia Herri Lab (Adinberri Fundazioa) proiektuaren talde eragilean parte hartzea. • Orkestaren Aholku Batzordean parte hartzea. Laguntza adimenduneko etxeko zerbitzu eta zainketa soziosanitarioak antolatzeko konponbide integraleko proiektua da, eta Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren (Eusko Jaurlaritza) HAZITEK deialdiaren esparruan garatzen da (2023).
<p>Jarduera-adierazleak (Ekintza, data, parte-hartzaileak, etab.)</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Zahartze osasuntsuaren gaietako zeharkako proiektu traktoreen ebaluazioan parte hartzea, Osasun Sailburuordetza ordezkatzuz (Osasun Saila, Eusko Jaurlaritza) (2023). • Iraupen luzeko zaintzei buruzko Euroeskualdeen Berrikuntza, Ikerketa eta Prestakuntzako NEXT-Care Sarean (NAEN) parte hartzea.
<p>Proiektuaren aliantzak</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Eusko Jaurlaritzaren Arreta Soziosanitarioko Zuzendaritzak Lehendakariarekin duen lankidetzak sinergiak garatzen laguntzen du Espezializazio Adimenduneko Estrategia (RIS3) hedatzeko esparruan, zehazki, zahartze osasuntsuari dagokionez, zeharkako espezializazio-eremu gisa. • Lankidetzak Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailarekin (Eusko Jaurlaritza), iraupen luzeko zaintzei buruzko Euroeskualdeen Berrikuntza, Ikerketa eta Prestakuntzako NEXT-Care Sarearen bidez. • Zahartze osasuntsuaren arloan I+G+B sustatzen duten gizarte-eremuko erakundeekin lankidetzan aritzea (Adinberri, Nagusi Intelligence Center, etab.). • BIOEFekin, bioinstitutuekin (Bioaraba, Biobizkaia eta Biogipuzkoa) eta Biosistemekin lankidetzan aritzea, ikerketa-eta berrikuntza-proiektuak garatzeko, eremu soziosanitarioko erreferente aditu gisa.
<p>Aurrerapen nagusiak eta arazo iraunkorrak</p>	<p>Eremu soziosanitarioko berrikuntza eta ikerketa oraindik ere estandarizazio eskaseko lan-eremua da, eta «soziosanitarioa» eremu estrategikotzat hartzen duten ikuspegi ugarikoa.</p> <p>Zuzendaritza soziosanitarioak ezagutza- eta ikerketa-arloetan aurrera egitea eta parte hartzea proposamen «soft» bat da, baina sistematikoa izateko helburua du koordinazio soziosanitarioan kontzeptuak eta metodologiak bateratzeari dagokionez. Arazo</p>

	nagusiak zuzendaritzaren egitura formal eskasaren ondorio dira, horrek kudeaketa, finantzaketa eta ikerketa- eta berrikuntza-proiektuetan parte hartzea eragozten baitu.
Proiektuaren balizko onurak (zuzenekoak eta zeharkakoak)	EAEko Osasun Sistema Publikoko eragile eta erakundeen, enpresa-sektorearen eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sareko eragile zientifiko-teknologikoen arteko esparru soziosanitarioaren proiektzioa.
Beste alderdi batzuk (baloratzeko): - Espero den bilakaera - Ahuleziak, mehatxuak, indarrak eta aukerak identifikatzea - Oharrak	
15. Berrikuntza- eta ikerketa-proiektuak sustatzea ekosistema soziosanitarioaren oinarrietatik	
Proiektuaren egoera	Aribidean
Proiektuaren hasiera-data	2021eko iraila
Lantaldea	Euskadiko Koordinazio Soziosanitarioko Taldea.
Proiektuaren helburuak	Berrikuntza- eta ikerketa-proiektuak sustatzea ekosistema soziosanitarioaren oinarrietatik, eta ekosistema soziosanitarioarentzat interesgarriak diren ekimenak, hedatzeko modukoak eta/edo eskalabilitatea dutenak identifikatzea.
Aurrekariak	Osasun eta Gizarte Zerbitzuetako sistemen oinarrietatik ezagutza sortzen laguntzeak aurrekariak ditu bi eremuetako profesional batzuek unean-unean gauzatu dituzten ekimenetan, zeinak, gerora, Jardunbide Egokitzat hartu diren.
Lan-metodologia	Kontsultatu garatzen ari diren proiektuen lan-metodologia bi arlo hauetan: 2. Elkarreragingarritasuna eta 4. Lehen Mailako Arreta Soziosanitarioa.
Egindako ekintzen deskribapena	Osasun- eta gizarte-zerbitzuetako sistemetako profesionalek eta erakundeek asebeteta ez dauden premia soziosanitarioei buruzko ideiak (antolamendu-aldaketak, produktuak hobetzea, prozesu berriak ezarri edo garatzea, etab.) elkarlanean identifika ditzaten bultzatzen dugu; ideia horiek eremu jakin bateko proiektu pilotu bat osa dezakete gero, Koordinazio Soziosanitarioko Taldearen laguntza metodologikoarekin. Proiektu honen ekintzak 2021-2024 aldirako Euskadiko Arreta Soziosanitarioaren Estrategiaren beste arlo batzuetako proiektuen garapenetan islatzen dira, hala nola Elkarreragingarritasunean (erabilera-kasuak) eta Arreta Soziosanitarioan (proiektu pilotuak).

Jarduera-adierazleak (Ekintza, data, parte-hartzaileak, etab.)	Kontsultatu proiektuen garapenari dagokion jarduera honako arlo hauetan: 2. Elkarreragingarritasuna eta 4. Arreta Soziosanitarioa.
Proiektuaren aliantzak	<ul style="list-style-type: none"> • Osakidetzako antolakunde sanitario integratuak. • Oinarriko eta foru gizarte-zerbitzuetako profesionalak. • Beste erakunde, eragile eta profesional batzuk.
Aurrerapen nagusiak eta arazo iraunkorrak	Proiektuen garapen-egoerak zaildu egiten du hasierako gauzatze-fasean dauden ekimenak identifikatzea.
Proiektuaren balizko onurak (zuzenekoak eta zeharkakoak)	Zenbait ekimen garatuz, epe ertain baten buruan, metodologia bat diseinatu ahal izango dugu ekimen horien emaitzak ebaluatu eta sistematizatzeko, eta horrela, aurrera egingo dugu erakunde sanitarioetan eta gizarte-zerbitzuen sisteman bultzatu daitezkeen jardunbide egokiak, beste eremu geografiko handiago batzuetara eraman edo EAE osora hedatzeko modukoak, identifikatzeko bidean.
Beste alderdi batzuk (baloratzeko): <ul style="list-style-type: none"> - Espero den bilakaera - Ahuleziak, mehatxuak, indarrak eta aukerak identifikatzea - Oharrak 	

ERANSKINA. PROIEKTU PILOTU SOZIOSANITARIOEN ERREGISTROA

1. Mendekotasuna eta desgaitasuna baloratzeko osasun-txostena egiteko tresna hedatzea

PROIEKTU PILOTUAREN IZENBURUA	<i>Mendekotasuna eta desgaitasuna baloratzeko osasun-txostena egiteko tresna hedatzea</i>
HELBURUA	Mendekotasuna eta desgaitasuna baloratzeko beharrezkoa den osasun-txostena Osakidetzaren eta foru-aldundien artean trukatzeko tresna elektronikoaren erabilera zabaltzea da helburua. Mendekotasuna baloratzeko diseinatu zen, baina desgaitasunerako ere erabiltzen da. Mendekotasunari dagokionez, informazioa osoa da, baina ez da nahikoa desgaitasunarentzat, eta azterketa-lan bat egin behar da ondorioz. Behar bezala funtzionatzeko, prestakuntza, erraza bada ere, funtsezkoa da. Hedapenaz gain, tresnaren erabilera finkatzeko, mantentze-lan ebolutiboa behar du.
ERAKUNDE SUSTATZAILEA	Jatorriz, GFAk sustatu zuen proiektua. Gaur egun, beste lurralde batzuetara hedatzen ari da; foru-aldundiek zuzentzen dute prozesu hori, Osakidetzako Lehen Mailako Arretako Koordinaziorako Zuzendariordetzak, dagozkien ESIen bitartez, eta Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saileko Arreta Soziosanitarioko Zuzendaritzak bultzatu eta sustatuta.
IKERTZAILE NAGUSIA	Fernando Urbano
LANPOSTUA	Koordinazio soziosanitarioa – Osakidetza
HELBIDE ELEKTRONIKOA	fernando.urbanospizua@osakidetza.eus
TELEFONO-ZK.	

Lanpostua	Erakundea
Mendekotasunaren eta Desgaitasunaren Arretako Zerbitzua. Balorazio eta Orientazioko Atala.	Gipuzkoako Foru Aldundia. Gizarte Politikako Departamentua
Mendekotasunaren eta Desgaitasunaren Arretako Zerbitzua. Balorazio eta Orientazioko Atala.	Gipuzkoako Foru Aldundia. Gizarte Politikako Departamentua
Mendekotasunaren eta Desgaitasunaren Arretako Zerbitzua. Balorazio eta Orientazioko Atala.	Gipuzkoako Foru Aldundia. Gizarte Politikako Departamentua
Iraupen Luzeko Zaintzen Trantsizio Planaren koordinatzailea (Bizkaiko Foru Aldundia)	Bizkaiko Foru Aldundia
Arduradun tekniko soziosanitarioa	Bizkaiko Foru Aldundia
Balorazioko Unitate Teknikoaren arduraduna.	Arabako Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea
Antolaketa eta Informatika Arloko Zuzendariordetza Teknikoa	Arabako Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea
Antolaketako eta sistemetako teknikaria	Arabako Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea
Lehen Mailako Arreta Koordinatzeko Zuzendariordetza	Zuzendaritza Nagusia, Osakidetza
Lehen Mailako Arreta Koordinatzeko Zuzendariordetzako teknikaria.	Zuzendaritza Nagusia, Osakidetza
Arabako koordinatzaile soziosanitarioa	Arabako ESIa. Osakidetza
Integrazioko zuzendaria	Arabako ESIa. Osakidetza
Gipuzkoako koordinatzaile soziosanitarioa	Goierri-Urola Garaiko ESIa. Osakidetza
Integrazioko zuzendaria	Goierri-Urola Garaiko ESIa. Osakidetza
Zuzendaritza medikoa	Bidasoko ESIa

Kudeaketa klinikoa	Tolosaldeko ESia
Informatikako Zuzendariordetza	Osakidetza
Informatikako zuzendariordetza	Osakidetza
Arreta Soziosanitarioko zuzendaria	Osasun Saila. Eusko Jaurlaritza.
Osabide erreferente funtzional soziosanitarioa	Zuzendaritza Nagusia, Osakidetza.
Elkarreragingarritasun arduraduna	Soziosanitarioa hedatzeko Arreta Soziosanitarioko Zuzendaritza

XEDE-POPULAZIOA	Mendeko pertsonak eta/edo desgaituna dutenak
------------------------	--

KRONOGRAMA	Tresna elektronikoaren garapena 2015ean osatu zen. Harrezkero, Gipuzkoan hedatu da, baina Bidasoako ESian hedatu gabe dago. Bizkaiaren kasuan, Bilbo-Basurtuko ESian hedatu da osorik, baina beste erakunde batzuetako hedapena etenda dago. Araban, 2023an hasi ziren Arabako Foru Aldundiaren informazio-sistemak egokitzen, Osakidetza eskaerak egiteko eta osasun-txostenak eta espezialisten txostenak jasotzeko eta PDF formatuan deskargatzeko. Halaber, osasun-zentroei irakatsi zitzaizkien txostenak erabiltzen, eta adostu zen eskatzaileei txostenak paperean emango zaizkiela, sistemen elkarreragingarritasuna gauzatu bitartean. Azkenik, mantentze- eta zuzentze-lanak gauzatu ziren (txostenaren pergaminoarekin izandako gertakaria konpontzea).
-------------------	--

JARDUERA ESTRATEGIKOKO EREMUA	Elkarreragingarritasun Soziosanitarioa
ARDURADUNAK	Fernando Urbano Alfredo Alday

2. Elkarreragingarritasuna telelaguntza izapidetzean

PROIEKTU PILOTUAREN IZENBURUA	<i>Elkarreragingarritasuna telelaguntza-eskaera izapidetzean</i>
--------------------------------------	--

HELBURUA	<p>Eusko Jaurlaritzaren Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzak eta Osakidetza telelaguntza-zerbitzu publikoaren eskaera izapidetzeko orduan informazioa elektronikoki elkarri helarazteko aukerak (elkarreragingarritasuna) aztertu, diseinatu eta implementatu nahi dira. Elkarreragingarritasunaren baliagarritasuna identifikatu da 4 aukera-elementu hauetan:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Telelaguntza-eskaeraren izapidetze elektronikoa osasun-txostena aurkeztea hartzen du barnean. Gaur egun, medikuak emandako paperezko txostena eskaneatu behar du pertsonak. Txosten hori Osakidetza eskatu ahal izatea eta telelaguntzaren eskaeran modu elektronikoa jasotzea lortu nahi da. • Osasun-txostena egitea aurrez aurreko ekintza bat da; hau da, pertsona osasun-zentrorara doa, eta medikuak telelaguntzarako txosten mota horretarako eredu bat betetzen du. Aurrez aurreko ekintza ezabatu nahi da, bai eta medikuak automatizatu daitekeen egintza horri eskaintako denbora ere. • Telelaguntzaren eskatzaileak osasun-zentrorara joan behar du osasun-txostena aurkezteko. Joan-etorri hori saihestu nahi da, eta Eusko Jaurlaritzako Zerbitzu- eta Osasun-sistemek informazio hori elektronikoki elkarri ematea. • Telelaguntzako Zerbitzu Publikoak Telelaguntza Plan Pertsonalizatuaren bidez antolatzen du prestazio hori. Plan horrek pertsonaren eta bere ingurunearen profil sozialari buruzko informazioa jasotzen du. Lehen Mailako Osasun Arretarekin informazioa trukatzeko pazienteak hobeto ezagutzea dakar.
-----------------	--

ERAKUNDE SUSTATZAILEA	Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritza.
IKERTZAILE NAGUSIA	Itziar Peña Laustalet
LANPOSTUA	Zerbitzuko arduraduna. Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritza.
HELBIDE ELEKTRONIKOA	itziar.pena@euskadi.eus
TELEFONO-ZK.	

Lanpostua	Erakunde
Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza	Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila. Eusko Jaurlaritza.
Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzako zerbitzu-arduraduna	Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila. Eusko Jaurlaritza.
Gizarte Zerbitzuetako Zuzendaritzako teknikaria	Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila. Eusko Jaurlaritza.
Informatikako Zuzendariordetza	Osakidetza
Informatikako arduraduna	Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila. Eusko Jaurlaritza.
Arreta Soziosanitarioko zuzendaria	Osasun Saila. Eusko Jaurlaritza
Koordinazio soziosanitarioa. Osabide erreferente funtzional soziosanitarioa	Zuzendaritza Nagusia, Osakidetza
Elkarreragingarritasun arduraduna	Soziosanitarioa hedatzeko Arreta Soziosanitarioko Zuzendaritza

XEDE-POPULAZIOA	Telelaguntzaren populazioa (65 urtetik gorakoak).
------------------------	---

KRONOGRAMA	Datuak trukatzeko eredu funtzionala izan arren (2022an onartua), ez zen proiektuan aurreratu, informazio-sistemak egokitu gabe zeudelako.
-------------------	---

JARDUERA ESTRATEGIKOKO EREMUA	Elkarreragingarritasun Soziosanitarioa
ARDURADUNAK	Fernando Urbano Alfredo Alday

3. Koordinazio soziosanitarioa egoitzetan dauden pertsonentzako arretan

PROIEKTU PILOTUAREN IZENBURUA	<i>Osasun-sistema eta gizarte-zerbitzuen sistema egoitzetan bizi diren pertsonentzako arretari dagokionez koordinatzeko proiektu pilotua</i>
--------------------------------------	--

HELBURUA	Helburu bikoitza: <ul style="list-style-type: none"> • Egoitza-zentroetan emandako arreta pertsonalizatzea eta humanizatzea • Alferrikako lekualdaketak eta bideratzeak saihestea
-----------------	---

ERAKUNDE SUSTATZAILEA	Autonomia Pertsonala Sustatzeko Zuzendaritza. Gizarte Ekintza Saila. Bizkaiko Foru Aldundia.
------------------------------	--

IKERTZAILE NAGUSIA	Lourdes Zurbanobeaskoetxea Laraudogoitia.
---------------------------	---

LANPOSTUA	Iraupen Luzeko Zaintzen Trantsizio Planaren koordinatzailea eta Bizkaiko lurralde-koordinatzaile soziosanitarioa. Bizkaiko Foru Aldundia.
------------------	---

HELBIDE ELEKTRONIKOA	maria.lourdes.zurbanobeaskoetxea@bizkaia.eus
-----------------------------	--

TELEFONO-ZK.	
---------------------	--

Lanpostua	Erakundea
Birjinetxe egoitza-zentroko zuzendaria	Bizkaiko Foru Aldundia
Santa Marina ospitaleko zuzendari medikoa	Osakidetza
Gizarte Ekintza Saileko aholkularia	Bizkaiko Foru Aldundia
Egoitzei laguntzeko taldeen koordinatzailea	Bizkaiko Foru Aldundia
Lehen Mailako Arreta Koordinatzeko zuzendariordea	Zuzendaritza Nagusia, Osakidetza
Iraupen Luzeko Zaintzen Trantsizio Planaren koordinatzailea (Bizkaiko Foru Aldundia)	Bizkaiko Foru Aldundia
Bilbo-Basurtuko ESIko Integrazio Asistentzialeko zuzendaria	Osakidetza
Arreta Soziosanitarioko zuzendaria	Osasun Saila. Eusko Jaurlaritza
Koordinazio soziosanitarioa-Osabide Integra erreferente funtzional soziosanitarioa	Zuzendaritza Nagusia, Osakidetza
Arreta Soziosanitarioa hedatzeko arduraduna	BIOEF Fundazioa

XEDE-POPULAZIOA	Bizkaiko egoitzetan bizi diren pertsonak.
------------------------	---

KRONOGRAMA	<ul style="list-style-type: none"> - 2021eko azaroa: 14 zentrok parte hartu dute boluntarioki. - 2021eko abendua: autodiagnostiko elkarriketak. - 2022ko urtarrila: Profesional parte-hartzaileak identifikatzea (zentro bakoitzeko arduradun bana, laguntzaile talde espezializatua, osasun-sistemako arduradunak, LMAU eta Santa Marina ospitalea) eta lan-taldearen dinamika definitzea (astean 1 egun, 4 hilabetez). - 2022ko otsaila-maiatza: Laguntza Espezializatuko Taldeak gidatutako lan-saioak (astean egun bat).
-------------------	--

	<ul style="list-style-type: none"> - 2022ko martxoa-apirila: Saioak familiekin - 2022ko uztaia: Egoitzetako hedapenaren ondorengo jarraipena planifikatzea. - <i>Egoitzetan erabakiak eta zainketak aurretiaz planifikatzeko prozesuak ezartzeko gida</i> prestatzea, baita koordinazio soziosanitarioko funtsezko zortzi prozedurak diseinatzea ere. - 2022ko abendua-2023ko otsaila: Pilotajea ebaluatzea. - 2023-2024 bitartean gauzatzeko: <ul style="list-style-type: none"> · Osasun sistemak funtsezko prozedurak behin betiko baliozkotzea eta protokoloak ezagunak eta irisgarriak izatea bermatuko duten mekanismoak ezartzea. · Lantalde espezifikoak antolatzea egoitzetan zuzeneko arreta ematen duten profesionalak erabiltzeko tresna praktikoak diseinatzeko, aurrera egitea interkontsultetan, baliabideen eskaeran, etxeko ospitalizazioa kasu, eta material eskaeretan, besteak beste. · Prestakuntza-ekintza bateratuak planifikatzea. · Egoiliarrei arreta emateko koordinazio soziosanitarioari lotutako informazio kritikoa trukatzeko fitxategia sortzea, adibidez, zainketa-planak, erabakiak eta zainketak aurretiaz planifikatzeko prozesuak (EZAPP) eta aurretiazko borondateen dokumentua, elkarreragingarritasun gakoan. · Egunerokoan eta ezusteko egoeretan jarduteko koordinazio plan funtzional bat zehaztea, protokolo batekin. · Esperientzia Bilboko eta beste ESI batzuetako egoitza guztietan zabaltzea eta ezartzea.
--	--

JARDUERA ESTRATEGIKOKO EREMUA(K)	Arreta Soziosanitarioa Elkarreragingarritasun Soziosanitarioa
ARDURADUNAK	Fernando Urbano Lucía Iñigo

4. Elkarreragingarritasuna Arreta Goiztiarrean

PROIEKTU PILOTUAREN IZENBURUA	<i>Elkarreragingarritasuna Arreta Goiztiarrean</i>
--------------------------------------	--

HELBURUA	<p>Osasunaren eta gizartearen eremuek informazioa elektronikoki elkarri helarazteko aukerak (elkarreragingarritasunez) aztertu, diseinatu eta inplementatu nahi dira, Arreta Goiztiarrari dagokionez koordinazioa hobetzeko.</p> <p>Elkarreragingarritasunaren baliagarritasuna identifikatu da hiru aukera-elementu hauetan:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Arreta Goiztiarra hiru eremuetako edozeinetan has daiteke. Kasuak hasiera batean eremuren bat behar ez badu ere, egokia litzateke hasten den eremutik besteei jakinaraztea, eskaria planifikatzeko, eta familiekin jarrera proaktiboa hartzea. Horretarako, beharrezkoa da kasu guztiak identifikatzea eta kode bat esleitzea, eremua edozein dela ere. • Azken helburua familiek arreta pertsonalizatuko plan partekatu bat izatea da, eta bertan hiru eremuen esku-hartzea adieraztea. Aldundiek plan horren erreferentia direla onartzen dute; osasunaren zatia jaso behar du. Oraingoz, osasun-informazioa lortzea zaila da, eta oso onuragarria litzateke informazio-trukea ezartzea. • Haurren arreta integrala kontuan hartuko bada, kasuak eremu desberdinen artean bideratzeko orduan informazioa elkarri jakinarazi behar diote.
-----------------	--

ERAKUNDE SUSTATZAILEA	Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbo-Basurtuko ESIa eta Enkarterri-Gurutzetako ESIa
------------------------------	--

IKERTZAILE NAGUSIA	Lourdes Zurbanobeaskoetxea
LANPOSTUA	Lourdes Zurbanobeaskoetxea Laraudogoitia. Iraupen Luzeko Zaintzen Trantsizio Planaren koordinatzailea eta Bizkaiko lurralde-koordinatzaile soziosanitarioa. Bizkaiko Foru Aldundia.
HELBIDE ELEKTRONIKOA	maria.lourdes.zurbanobeaskoetxea@bizkaia.eus
TELEFONO-ZK.	

Lanpostua	Erakundea
Iraupen Luzeko Zaintzen Trantsizio Planaren koordinatzailea (Bizkaiko Foru Aldundia)	Bizkaiko Foru Aldundia
Desgaitasuna Ebaluatzeko Ataleko burua	Bizkaiko Foru Aldundia
Arreta Goiztiarreko arduraduna	Bizkaiko Foru Aldundia
Pediatriako burua	Osakidetza (Bilbo-Basurtuko ESIA)
Jaioberrien Unitatea	Bilbo-Basurtuko ESIA
Pediatriako burua	Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESIA
Pediatriako burua	Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESIA
Haur eta nerabeen psikiatra eta psikoterapeuta	Bilboko Haurren eta Nerabeen Osasun Mentaleko Zentroa (Bizkaiko Osasun Mentaleko Sarea, BOMS-Osakidetza)
Haurren Osasun Programa (HOP)	Bilbo-Basurtuko ESIA
Fidelizate/Bezeroak Departamentua	LANTIK
Berrikuntza eta sistemen atala. Gizarte Ekintzako Zerbitzu Orokorrak	Bizkaiko Foru Aldundia
Familia eta Haurren Zuzendaritza	Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila
Informatikako Zuzendariordetza	Zuzendaritza Nagusia, Osakidetza
Arreta Soziosanitarioko zuzendaria	Osasun Saila. Eusko Jaurlaritza
Koordinazio soziosanitarioa. Osabide erreferente funtzional soziosanitarioa	Zuzendaritza Nagusia, Osakidetza
Elkarreragingarritasun Soziosanitarioa arduraduna hedatzeko	Arreta Soziosanitarioko Zuzendaritza

XEDE-POPULAZIOA	0-6 urte
------------------------	----------

KRONOGRAMA	2023an Gipuzkoako lurralde historikoko AGBTa eragile taldean sartu zen. Gipuzkoako AGBTaren ekarpenetan oinarrituta, proposamen tekniko berria osatu eta adostu zen. Informazioa-trukatzeke eredu funtzionalaren baterako baliozkotzea egin zen, informazio-zerbitzuekin elkarreraginean aritzeko kanalak ezarri ziren eta erakunde parte-hartzaileen informazio-sistemak egokitzeko espezifikazio funtzionalak trukatu ziren.
-------------------	--

JARDUERA ESTRATEGIKO EREMUA	Elkarreragingarritasun Soziosanitarioa
ARDURADUNAK	Alfredo Alday Fernando Urbano

5. Elkarreragingarritasuna arreta integratuan. Gizarte Zerbitzuak / Gernika KIUA

PROIEKTU PILOTUAREN IZENBURUA	<i>Elkarreragingarritasuna hemen: «Arreta Integratuko Protokoloa. Gizarte Zerbitzuak / Gernika KIUA»</i>
HELBURUA	Gizarte Zerbitzuek eta Gernika KIUAk –Gernika, Gernikaldea, Bermeo eta Lekeitio hartzen ditu barnean– informazioa elektronikoki elkarri helarazteko aukerak (elkarreragingarritasunez) aztertu, diseinatu eta inplementatu nahi dira. Elkarreragingarritasunaren baliagarritasuna identifikatu da honako aukera-elementu hauetan: <ul style="list-style-type: none"> - Interkontsulta soziosanitarioa. - Agenda partekatua. - Baimen informatua. - Plan partekatua.
ERAKUNDE SUSTATZAILEA	Barrualde-Galdakaoko ESIA (Gernikaldea)
IKERTZAILE NAGUSIA	Iñaki Laboa
LANPOSTUA	Gernikako Ospitaleko arduraduna
HELBIDE ELEKTRONIKOA	inaki.laboacalafel@osakidetza.eus
TELEFONO-ZK.	

Lanpostua	Erakundea
Gernikako Ospitaleko arduraduna	Gernikako Ospitalea
Arreta Integratuaren zuzendariordea	Barrualde-Galdakaoko ESIA
Koordinazio soziosanitarioa	Barrualde-Galdakaoko ESIA
Idazkaria	Gernikaldeko LMAUa
Erizaintza	Gernikaldeko LMAUa (Osakidetza)
LMAUko burua	Gernikaldeko LMAUa (Osakidetza)
Gizarte Zerbitzuen Koordinazioa	Busturialdeko Mankomunitatea
Informatika Zuzendaritza	Barrualde-Galdakaoko ESIA
Informatikako teknikaria	Barrualde-Galdakaoko ESIA
Informatikako Zuzendariordetza	Zuzendaritza Nagusia, Osakidetza
Lehen Mailako Arreta Koordinatzeko Zuzendariordetza	Zuzendaritza Nagusia, Osakidetza
Arreta Soziosanitarioko zuzendaria	Osasun Saila. Eusko Jaurlaritza
Koordinazio soziosanitarioa-Osabide erreferente funtzional soziosanitarioa	Zuzendaritza Nagusia, Osakidetza
Elkarreragingarritasun Soziosanitarioa hedatzeko arduraduna	Arreta Soziosanitarioko Zuzendaritza
Arreta Soziosanitarioa hedatzeko arduraduna	BIOEF Fundazioa

XEDE-POPULAZIOA	Kasu soziosanitarioak Barrualde-Galdakaoko eskualdean
KRONOGRAMA	2023an Bermeoko eta Lekeitioko gizarte-zerbitzuak talde eragilean sartu ziren, pilotaje-plana zehaztu zen eta datu soziosanitarioen segurtasunari eta babesari buruzko bideragarritasun-txostena prestatu zen.
JARDUERA ESTRATEGIKOKO EREMUA	Arreta Soziosanitarioa Elkarreragingarritasun Soziosanitarioa
ARDURADUNAK	Fernando Urbano Alfredo Alday

6. Agenda partekatu soziosanitarioaren elkarreragingarritasuna hedatzea

PROIEKTU PILOTUAREN IZENBURUA	<i>Agenda partekatu soziosanitarioaren elkarreragingarritasuna hedatzea</i>
HELBURUA	Gizarte Zerbitzuek eta Goierri-Urola Garaiko ESIak informazioa elektronikoki elkarri helarazteko aukerak (elkarreragingarritasunez) aztertu, diseinatu eta inplementatu nahi ziren, EGINTZA SOZIOSANITARIOEN aurretiko esperientzian oinarrituta.
ERAKUNDE SUSTATZAILEA	Goierri-Urola Garaia ESIa
IKERTZAILE NAGUSIA	Esther Ortiz de Zárate
LANPOSTUA	Zumarragako Ospitaleko gizarte-langilea. Erreferente soziosanitarioa
HELBIDE ELEKTRONIKOA	esther.ortizdezaratecarrillo@osakidetza.eus
TELEFONO-ZK.	

Lanpostua	Erakundea
Zumarragako Ospitaleko gizarte-langilea. Erreferente soziosanitarioa	Goierri-Urola Garaia ESIa
Goierri-Urola Garaiko ESIko zuzendari medikoa eta Gipuzkoako koordinatzaile soziosanitarioa	Goierri-Urola Garaia ESIa
Zumarragako Udaleko gizarte-langilea eta erreferente soziosanitarioa	Zumarragako Udala
Legazpiko Udaleko gizarte-langilea eta erreferente soziosanitarioa	Legazpiko Udala
Arreta Soziosanitarioko zuzendaria	Osasun Saila. Eusko Jaurlaritza
Koordinazio Soziosanitarioa-Osakidetza	Osakidetza
Elkarreragingarritasun Soziosanitarioa hedatzeko arduraduna	Arreta Soziosanitarioko Zuzendaritza
Arreta Soziosanitarioa hedatzeko arduraduna	BIOEF Fundazioa

XEDE-POPULAZIOA	Zehazteke
KRONOGRAMA	<p>Proiektuaren jatorria 2018an gauzaturako pilotaje bat da. 2021ean birdefinitu zen, partekatutako agendaren garapen teknologikoaren premisapean. Beste lan batzuei lehentasuna eman zitzaenez, egitasmo hau atzeratu zen. Hala ere, laguntzaren epea ez zen atzeratu.</p> <p>2022an eta 2023an partekatutako agendaren epea ezarri zen, Goierriko profesional sanitarioen eta sozialen topaleku gisa, kasu soziosanitarioei arreta eta jarraipena emate aldera. 2023an partekatutako agendaren erabilerari buruzko datuak aurkeztu ziren, eta arretaren mikro- eta meso-mailetan jarduketara horren jarraitasuna eta efektibitatea baieztatu ziren. Maila asistentzialean, lan-dinamika hori sartu zuten Goierri-Urola Garaiko ESIaren Koordinazio soziosanitarioaren esparru-protokoloan.</p> <p>2024rako aurreikusi da plan funtzionala definitzen hasia.</p>
JARDUERA ESTRATEGIKOKO EREMUA	Arreta Soziosanitarioa Elkarreragingarritasun Soziosanitarioa
ARDURADUNAK	Lucía Iñigo Fernando Urbano Alfredo Alday

7. Aretxabaletako Zentro Soziosanitarioaren gobernantzaren garapena

PROIEKTU PILOTUAREN IZENBURUA	<i>Aretxabaletako Zentro Soziosanitarioaren gobernantzaren garapena</i>
HELBURUA	Aretxabaletako zentro soziosanitariorako gobernantza-eredu bat garatzea, zeinak programa soziosanitarioetan hala gizarte-zerbitzuetako nola zerbitzu sanitarioetako langileak modu integratuan jasotzen dituen.
ERAKUNDE SUSTATZAILEA	Debagoieneko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendaritza
IKERTZAILE NAGUSIA	Javier Mar
LANPOSTUA	Familia-medikua eta Aretxabaletako Udaleko zinegotzia
HELBIDE ELEKTRONIKOA	franciscojavier.marmedina@osakidetza.eus
TELEFONO-ZK.	

Lanpostua	Erakundea
Familia-medikua eta Aretxabaletako Udaleko zinegotzia	Osakidetza. Debagoieneko Erakunde Sanitario Integratua
Erizaina eta Aretxabaletako Udaleko Gizarte Ongizateko zinegotzia	Aretxabaletako Udala

Lehen Mailako Arretako erizaina	Aretxabaletako LMAUa. Debagoieneko Erakunde Sanitario Integratua
Lehen Mailako Arretako erizaina	Aretxabaletako LMAUa. Debagoieneko Erakunde Sanitario Integratua
Lehen Mailako Arretako erizaintzako ondokoa	Osakidetza. Debagoieneko Erakunde Sanitario Integratua
Gizarte-langilea	Aretxabaletako Udala. Gizarte Ongizate Saila
Gizarte-langilea	Aretxabaletako Udala. Gizarte Ongizate Saila
Arreta Soziosanitarioko zuzendaria	Osasun Saila. Eusko Jaurlaritza
Koordinazio Soziosanitarioa - Osakidetza	Osakidetza
Elkarreragingarritasun Soziosanitarioa hedatzeko arduraduna	Arreta Soziosanitarioko Zuzendaritza
Arreta Soziosanitarioa hedatzeko arduraduna	BIOEF Fundazioa

XEDE-POPULAZIOA	Mendekotasun-egoeran dauden pertsonak, bazterketa-egoeran daudenak (indarkeria matxistaren biktima diren emakumeak; babesgabetasun-egoeran dauden adingabeak; bazterketa-arriskua duten helduak; portaera-arazoak dituzten adingabeak; buru-osasuneko arazo larriak dituzten gazteak eta helduak, eta tratu txar fisiko eta ekonomikoaren biktima diren adinekoak) eta komunitate-lanaren xede direnak (komunitate- eta prebentzio-lana honako talde-arazo hauei dagokienez: arrisku-egoeran dauden adingabeak, gazteak, kontsumoak, droga-erabilera, osasun mentala, berdintasuna eta sexu-hezkuntza).
KRONOGRAMA	Proiektua 2021ean abiarazi zen, eta 2022an ezarri zen. 2023an bottom-up proiektu soziosanitario gisa aurkeztu zen.
JARDUERA ESTRATEGIKOKO EREMUA	Arreta Soziosanitarioa
ARDURADUNAK	Jose Antonio de la Rica Lucía Iñigo

8. Zainketen Trantsizio-Taldea (ZTT) Egoitza geriatrikoetan dauden pazienteentzat

PROIEKTU PILOTUAREN IZENBURUA	<i>Zainketen Trantsizio-taldea (ZTT) egoitza geriatrikoetan dauden pazienteentzat</i>
HELBURUAK	<p>Helburu nagusiak:</p> <ul style="list-style-type: none"> · Zainketen jarraipena hobetzea eta laguntza-mailen artean koordinatzea. · Erabakiak eta zainketak aurretiaz planifikatzea. <p>Bigarren mailako helburuak:</p> <ul style="list-style-type: none"> · Zainketak egoitza geriatrikoetan egitea, ospitaleratzearen eragina txikiagotuz. · Bizikidetzaren unitateak garatzen laguntzea. · Egoitzetako arreta pertsonalizatzea eta humanizatzea. · Laguntza- eta bizi-kalitatea ematea erakundeetan dauden pertsonen.
ERAKUNDE SUSTATZAILEA	Santa Marina ospitaleko Zuzendaritza Medikoa. Osakidetza.

IKERTZAILE NAGUSIA	Ramón Herrería Laherrán
LANPOSTUA	Santa Marina ospitaleko zuzendari medikoa - Osakidetza Bizkaiko koordinatzaile soziosanitarioa - Osasun Saila
HELBIDE ELEKTRONIKOA	ramon.herreriaherran@osakidetza.eus
TELEFONO-ZK.	

Lanpostua	Erakundea
Santa Marina ospitaleko zuzendari medikoa	Osakidetza
Lehen Mailako Arreta Koordinatzeko zuzendariordea	Osakidetza
Iraupen Luzeko Zaintzen Trantsizio Planaren koordinatzailea (Bizkaiko Foru Aldundia)	Bizkaiko Foru Aldundia
Arreta Soziosanitarioko zuzendaria	Osasun Saila. Eusko Jaurlaritza
Arreta Soziosanitarioa hedatzeko arduraduna	BIOEF Fundazioa

XEDE-POPULAZIOA	Hautatutako egoitzetan instituzionalizatutako pertsonak, zeinak pilotatutako egoitzetatik Santa Marina Ospitalean ingresatzen baitira.
------------------------	--

KRONOGRAMA	<p>Hasiera: 2022ko uztaila. 2022 eta 2023 artean gauzatutako jarduerak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - 2022ko ekaina: Talde eragilea sortzea: mediku bat eta erizain bat, 8:00-10:00 bitartean, astelehenetik ostiralera. - 2022ko iraila: <ul style="list-style-type: none"> · Parte hartzen duten egoitzei eta osasun-zentroi aurkeztea. · ZTTren funtzionamendua egokitzea laguntza- eta prestakuntza-premien arabera. - 2022ko urria: Prestakuntza- eta laguntza-premiei buruzko inkestak. - 2023: Egoitzetako profesionalentzako prestakuntza: Santa Marina Ospitaleko ZTT taldea, Bilbo-Basurtuko ESIko praktika aurreratuko erizainak, Santa Marina Ospitaleko geriatrak eta erreferentziako eskualde zentroko erizainak. - 2023ko azaroa. Pilotajearen II. fasea hasia <ul style="list-style-type: none"> · Prozesu- eta emaitza-adierazleak ezartzea. · Proiektuko taldea handitzea (hiru geriatra, bi internista, bi urgentzietako mediku, bi erizain eta gizarte-langile bat). · Zainketa aringarri buruzko prestakuntza-eredu berriak planifikatu ziren, geriatrico profesionalak, zainketa aurreratutako erizainak eta BFAko profesionalak emango dituztenak, besteak beste (2024ko urtarriletik aurrera emateko). · Pilotajearen helmena zabaltzea: azaroan beste hedapen-kanpaina bat egin zen (13 egoitzatik 26ra). - 2023: Hauskortasun ibilbidea zehaztea eta zabaltzea: geriatrico pazienteentzako zirkuitu asistentzial berezia (2023-2025).
-------------------	--

JARDUERA ESTRATEGIKOKO EREMUA(K)	Arreta Soziosanitarioa
ARDURADUNAK	Lucía Iñigo

EAEko Koordinazio Soziosanitarioko Taldea

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA
Osasun Saiburuordetza
Arreta Soziosanitarioko Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE SALUD
Viceconsejería de Salud
Dirección Atención Socio-sanitaria